ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA





# HEZKUNTZA-BIKAINTASUNERANTZ

Dokumentuaren egilea: **ISEI-IVEI**

Zuzendaria: Xabier Aizpurua Telleria
Aholkulari teknikoa: Eduardo Ubieta Muñuzuri
Koordinatzailea: Araceli de Francisco Archilla
Lan taldea:: Amaia Arregi Martínez
Mª Dolores Damborenea Isusi
Yolanda Méndez Usillos

Prozesuan zehar kolaboratzaileak:
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Idazkaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea:
Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arribe
Kualitate Lantaldea: Gotzon Baraia Etxaburu Artetxe
Amaia Agirre Pinedo

**BILBAO 2015**

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA ....................................................................................................... 5

1. AUZIARIAREN EGOERA: EMAITZA BIKAINAK LORTZEN DITUZTEN HEZKUNTZA-SISTEMEN EZAUGARRIAK ....................................................................... 7

Nazioarte mailako informazio-bilketa honako hauen inguruan:

A. Hezkuntza-sistema

A.1 Antolamendua eta ikasketa-programak
A.2 Ikastetxearen autonomia
A.3 Irakaskuntzaaren finantzaketa
A.4 Irakasleen ordainsaria
A.5 Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa

B. Ikastetxea (antolamendua, kudeaketa eta lidergoa)

B.1 Ikastetxeetako zuzendaritzaren kudeaketa eta lidergoa
B.2 Koordinazio pedagogikoa eta curriculumaren ingurukoa
B.3 Familien parte-hartzea hezkuntza-prozesuetan

C. Irakasleak

C.1 Hasierako prestakuntza eta hautaketa, irakaskuntzara sartzeko eskakizunak
C.2 Irakasleen prestakuntza eta egonkortasuna
C.3 Irakasleen eta ikastetxeko zuzendaritzaren garapen profesionala
C.4 Irakasleen profila eta prestakuntza

D. Ikasleak. Ikaste-irakaste prozesua

D.1 Ikasten ematen duten denbora
D.2 Errendimendu-itxaropen handiak
D.3 Etengabeko ebaluazioa eta ikasle bakoitzaren aurrerapenaren kontrola
D.4 Aniztasunari erantzuna

2. EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMAREN EGOERA ANIZTASUNAREN ERANTZUNARI DAGOKIONEZ. ........................................................................ 21

2.1. Kanpoko ebaluazioak

2.1.1. PISA
2.1.2. Ebaluazio Diagnostikoa

2.2. Ikastetxe Eraginkorrei buruzko ikerlana

2.3. Aniztasunari erantzuna emateko planak.

HPBetarako laguntza-egitura
Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP)
Hezkuntza berariaz sendotzeko proiektua (HBSP)
Eskolatze osagarriko programak (EOP)
Curriculum anitzeko programak
Hamaika Esku programa
Kulturarteko dinamizazioa eta Hizkuntza-errefortzua

2.4. Irakasleentzako pretakuntza-planak

2.4.1. Prestakuntza ikastetxean
2.4.2. Prest-Gara
2.4.3. Prestakuntza eta berrikuntza-planen ebaluazioa

2.5. Ikastetxeetako zuzendaritzen ebaluazioa

3. EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMAREN HELBURUA ........ 39

3.1 Ekitatearen eta bikaintasunaren arteko erlazioa Euskadin
3.2 Eredu orekatua ekitatearen eta bikaintasunaren artean

4. MCKINSEY TXOSTENA. HEZKUNTZA-SISTEMEN HOBEKUNTZAREN FASEAK ........ 43

4.1 Euskadiko hezkuntza-sistemaren egoera, Mckinsey txostenaren egitura erreferentzia bezala hartuta

4.2 Bikaintasunerako faseak (Mckinsey)

"Onargarri-on" etapa: sistemaren oinarriak sendotu
"On-oso on" etapa: irakasle lanbidea aldatzea
"Oso on-bikain etapa: lankideen arteko laguntzaren bidez eta irakaskuntzaren berrikuntzaren bidez hobetzea

4.3 Esku-hartzeko alderdien deskribapena. Eztabaidarako proposamenak

5. HEZIKETA-BIKAINTASUNERANZKO HOBEKUNTZA ALDERDIEI BURUZKO EZTABAIDAREN GARAPENA ........ 55

5.1. Eztabaida-prozesuaren deskribapena
5.2. Eztabaidan aurkeztutako alderdien balioespen osoa
5.3. Eztabaidatik eratorritako ekarpenak eta proposamenak

6. PROPOSAMENAK IKASTETXEAN ABIARAZTEKO EREDUA ........ 72

7. BIKAINTASUNAREN GARAPENA HEZKUNTZA SAILAK PRESTAKUNTZARAKO FINKATU DITUEN LEHENTASUNEZKO LERROETAN ........ 73

I. ERANSKINA ........ 77

PISA:
Batez besteko puntuazioaren bilakaera PISA 2003-PISA 2012
Ikastetxeen banaketa PISA 2003-PISA 2012ko ebaluazioetako puntuazioen arabera
Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan PISA 2012
Errendimenduaren bilakaera maila altuetan. PISA 2003-2012

II. ERANSKINA ........ 85

Ebaluazio Diagnostikoa:
Ikasleen ehunekoen bilakaera errendimendu-mailetan
Ikasgelako kalifikazioen eta ikaslearen ikastaldearen arteko erlazioa

BIBLIOGRAFÍA ........ 91

# AURKEZPENA

Hezkuntza edozein herrialdetako gobernuak aurre egin behar dien erronka handietako bat da, eta hezkuntzaren hobekuntza gizarte-aurrerapenaren aspektu guztietarako giltzarrietako bat. Gaur egun, behin ekitate maila ona lortuz gero, hezkuntzaren bikaintasuna lortzea lehentasunezko helburua da Euskadiko hezkuntza-sisteman.

Dokumentu honetan abiapuntu teorikotzat auziaren nazioarteko egoera hartu da, hau da, horretarako hezkuntza-sisteman bikaintasun maila ona duten herrialdeen ezaugarriak aztertu direlarik. Horrez gain, gure hezkuntza-sisteman eredugarritzat hartu diren zenbait esku-hartze ere jaso dira: horietako bat hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak hezkuntza-sisteman sartzea izan da (1989an hasi zen, baina Hezkuntza Bereziaren Plana 1982an diseinatu zen), eta beste bat aniztasunari ematen zaion erantzuna izan da.

Interesgarria da Javier Touronek[1] dokumentu batean bikaintasunari buruz egiten dituen antzeko planteamenduak irakurtzea. Honela dio **"Bikaintasuna hezkuntza-sistemaren xedea"** dokumentuan: *"**bikaintasuna edozein hezkuntza-jardueraren lehentasunezko xedeetako bat da**, eta gutxienezko mailak lortzera bideratutako sistema batek, azken finean, erdipurdikotasuna baino ez du bermatzen"*. Honela jarraitzen du: *"**bikaintasuna aniztasunarekiko begirunearen ondorio zuzena da** eta, baita ere, honako hau kontuan hartzearena: **pertsona bakoitzak, bere erritmoaz gain, konpetentzia eta gaitasun anitzak ditu, eta hezkuntzaren zerumugan pertsona eta bere garapen osoa daude**. Ikasle arrunta errealitatean ez da existitzen, adin bereko ikasle guztiek behar berberak dituztela onartzera heldu bada ere"*.

Honela dio: *"hezkuntza-sistemak, **hezkuntza ahalik eta pertsonalizatuenaren bidez** (gorengo mailakoa izan beharko luke), **pertsona bakoitzarentzat ahalik eta emaitzarik onena lortu** behar du. Nire ustez, **horrek bikaintasunaren sustapenaren aldeko apustu handi bat bermatzen du**. Bikaintasunaren sustapena pertsona bakoitzarentzat ezberdina izango da, jakina, baina ikastetxeetan eragingo duen aldaketa hain izango da handia, ezen "minimoak bermatzeak" dakarren igualitarismoa galaraziko baitu.*

*(…)*

*Bikaintasuna sustatzea ikasleak, **bere konpetentziak uzten dion heinean, ahalik urrunera, ahalik arinen eta ahalik eta zabaltasun eta sakontasun handienarekin heltzeko** behar dituen hezkuntza-baliabideak ematea da. Eta horrek laneko ongi prestatutako irakasleak eskatzen ditu, ikasle bakoitzaren banakotasuna errespetatu ahal izateko eta aukera-berdintasunaren printzipioa bere adiera egokian errespetatu ahal izateko".*

Bide horretan aurrera joan ahal izateko, gure hezkuntza-sistema zein abiapuntutan dagoen jakin behar dugu, eta bide horretatik planteatu behar ditugu epe labur, ertain eta luzerako hobekuntza-helburuak, baliabideen inguruko erabakiak eta helburuak lortzeko behar diren lanak.

[1] http://www.javiertouron.es/2012/03/la-excelencia-como-meta-del-sistema.html#sthash.nlguNBkn.dpuf

# 1. AUZIAREN EGOERA: EMAITZA BIKAINAK LORTZEN DITUZTEN HEZKUNTZA-SISTEMEN EZAUGARRIAK

Bibliografiaren berrikusketa egin ondoren, lehen atal honetan, nazioarteko ebaluazioetan emaitza bikainak lortzen dituzten hezkuntza-sistemen ezaugarriei buruz bildutako informazioa erakusten da (aztertutako dokumentuak bukaerako bibliografian aipatzen dira). Analisi horretatik jardunbide egokiak atera nahi ditugu Euskadiko hezkuntza-sistemaren bikaintasuna lortzeari begira hartu behar diren erabakiak hartzerakoan lagungarriak izan bailitezke.

Informazioa kategoria eta azpi-kategorien arabera sailkatu da.

## A. HEZKUNTZA-SISTEMA

### A.1 Antolamendua eta ikasketa-programak

- **Ikasleen taldekatzea eta ibilbideak**
    - Zenbait herrialdetan, Finlandia kasu, ikasleak ez dira mailen (gaitasunen) arabera taldekatzen, ibilbideak ezeztatu egin dira, eta oinarrizko eskola-egitura bateratu bat sortu dute. Ikastetxeek askatasun osoa dute ikasleak taldekatzeko.
    - Finlandiako ikasketa-planak argi azpimarratzen du irakasleek ikasketa tokian tokiko testuingurura moldatu behar dutela, eta onartzen du haur bakoitzak bere erritmoan ikasten duela. Horrez gain, oso itxaropen handiak finkatzen ditu espero diren emaitzekiko.
    - Hala ere, maila aurreratuan ikasleen ehuneko altua duten beste herrialde batzuetan, Kanada adibidez, ikasleak gaitasunen arabera taldekatzen dira; Lehen Hezkuntzakoak ikastalde heterogeneoen barruan eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak ,"ibilbideetan": orokorra, aurreratua, lanbidera bideratua edo unibertsitaterako sarbidera bideratua.

- **Ikasketa-planak eta curriculuma**
    - Finlandiako oinarrizko hezkuntzan ikasketa-plana derrigorrezko ikasketek eta hautazko ikasketek osatzen dute. Derrigorrezko ikasketek ondorengo ikasketetarako gaitasunak garatzeko oinarria osatzen dute. Oinarrizko hezkuntzan hautazko ikasketen helburua ikasleen ikasketak aberastea da ondorengo ikasketa osagarrietarako gaitasunak sendotzea da, bakoitzaren behar eta interesen arabera. Bigarren Hezkuntzan ikasle bakoitzak bere ikasketa-plana eratzen du.
    - Gainera, Finlandiako hezkuntza-sisteman ez dago irteerarik gabeko kale itsurik. Ikasleek beti daukate aukera goragoko irakasmaila bateko ikasketak egiten jarraitzeko, bere ibilbidean zehar egindako hautaketak edozein direlarik ere.
    - Mckinsey 2007 txostenak[2], dioenaren arabera, benetako erronka ikasketa-planak egiteko hezitzailerik onenak aukeratzea da.
    - Kanadan curriculuma irakasleekiko eta profesional adituekiko kontsulta-prozesu baten bidez finkatzen da.
    - Holandan akordio zabal bat dago curriculumaren inguruan, sistemaren barruan sortu zelako, sistemaren gainean kanpotik inposatu beharrean.

[2] Mckinsey (2007): *¿Cómo hicieron los sistemas educativos con mejor desempeño del mundo para alcanzar sus objetivos?*

- Finlandiako curriculum nazionala ez da lehen bezain zehatza eta aginduzkoa. Finlandiako irakasleei askatasuna eman zitzaien ikasketa-planak diseinatzeko eta testuliburuak aukeratzeko. Haurrak elkarrekin eta hezkuntza-sistema komun baten barruan hezi behar direlako ideia aldatu gabe mantendu da gobernu-aldaketa ugaritan zehar.
- Hezkuntza-sistema on guztiek arreta berezia jartzen dute aritmetikan eta hizkuntzan eskolatzearen hasierako urteetan.

### A.2 Ikastetxearen autonomia

- Finlandian irakasleek autonomia pedagogikoa dute metodologia eta ikasmaterialak aukeratzeko, eta askatasun osoa dute zer eta nola irakatsi erabakitzeko (ikasketa-planaren diseinua eta testuliburuen hautaketa) eta baita ikasleak nola taldekatu erabakitzeko ere. Oinarrizko hezkuntza irakasten duten ikastetxeen % 99 udal ikastetxeak dira; ikasketa akademikoak irakasten dituzten Derrigorrezkoaren Osteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen artean, % 91 udal ikastetxeak dira, % 7 ikastetxe pribatuak dira, eta % 2 bakarrik dira estatu ikastetxeak. Lanbide ikasketak irakasten dituzten Derrigorrezkoaren Osteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen artean, % 77 udal ikastetxeak edo udalen elkartearenak dira, % 19 ikastetxe pribatuak dira, eta gainerako % 4 dira estatu ikastetxeak (2005eko datuak kasu guztietan).
- Kanadan hezkuntza-sistema deszentralizatua da, eta hezkuntzaren ardura lurraldeen eskuetan dago. Hezkuntza kontseilarien bilera bat dago jardunbide egokiak koordinatzeko eta zabaltzeko.
- Ikastetxeen autonomiari dagokionez, iturri ezberdinetatik jasotako honako aholku hauek ematen dira:
  - Oso aurreratuak ez diren hezkuntza-sistemetan sistema aurreratuetan baino kontrol handiagoa izaten da, sistema aurreratuek irakaslerik gaituenengan uste osoa baitute. Beraz, oro har ikastetxeei eta zuzendariei eskumen gehiago ematea gomendatzen da.
  - Ikastetxeen eta zuzendarien autonomia handitzeaz batera, arautegia murriztu egin beharko litzateke.
  - Autonomia handitzeak buruzagitza sendoa eskatzen du.
  - Ikastetxeetako zuzendariek behar besteko autonomia izan beharko lukete, Eskola Kontseiluarekin elkarlanean, ikastetxeko irakasleak hautatzeko, ikastaldeetan banatzeko, lanak eta ardurak emateko, lana egoki egiten ez duten edo prestakuntza-ikastaroak egin nahi ez dituzten irakasleak lekualdatzea eskatzeko eta ikastetxearen kudeaketaren ardura-postuetarako irakasleak hautatzeko.
  - Eskola muinbakarraren esparruan ikasleen aniztasunari erantzun hobea emateko autonomia.

### A.3 Irakaskuntzaren finantzaketa

- ELGAko herrialde gehienek handitu zuten hezkuntzako gastua 1980tik 2005era. Hala ere, bakan batzuek bakarrik lortu zuten eraginkortasuna modu nabarian areagotzea.

- Mckinsey txostenen arabera, hezkuntza-sistema batzuek, antzeko finantzaketa izan arren, oso emaitza ezberdinak lortze dituztela egiaztatu da. Hortik ondorioztatu daiteke inbertsioak berez ez duela emaitza onik bermatzen. Zenbat diru gastatzen den ez da, beraz, dirua nola gastatzen den bezain garrantzitsua. Zenbait ikerlanek eta PISA[3] ebaluazioetako emaitzek erakutsi duten bezala, hezkuntza-baliabideen eta ikasleen errendimenduaren arteko erlazioa ez da estua eta zuzena. Ikastetxeen arteko –eta ikastetxe barruko– kalitate-aldeak batez ere giza baliabideen kalitatearen ondorio izaten dira.
- ELGAko herrialdeen artean ikasleko gasturik handiena Finlandiak egiten du. Eskola muinbakarrarekin duen konpromisoaren ondorioz, hezkuntza bereziko gastua baxuagoa da ikasle horiek aparteko eskoletan eskolatzen dituzten herrialdeetan baino. Hezkuntza administrazioari dagozkion gastuetatik aparte, hezkuntzan inbertitzen den diru guztia ikastetxeetara eta jardunbide pedagogiko bikainak lortzera bideratzen da.
- Massachusettsen aurrekontua egokitu egiten da premiarik handienak dituzten ikastetxeei laguntzeko (indartze-programak eta zuzendarien lan-gaitasunen garapena).
- Zeelanda Berrian, Albertan, Ingalaterran eta Chicagon finantzaketa-sistema berriak eratu dituzte hobetu beharra duten ikastetxeei baliabide gehigarriak emateko.

### A.4 Irakasleen ordainsaria

- Pertsona egokiek hezkuntzarekiko interesa izan dezaten lortzeko ezinbesteko osagarria da hasieratik soldata ona eskaintzea (Finlandia, Holanda, Alberta).
- Agintariei gomendatzen zaie irakasleen ordainsariaren egitura eta ordainsari osagarriak azter ditzaten. Kontuan hartu beharko lukete irakasleentzako lan-pizgarri gehiago finkatzeko posibilitatea eta, baita ere, osagarri batzuk errendimenduaren edo garapen profesionalaren baldintzapean jartzeko posibilitatea.

### A.5 Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa

- Finlandian ikuskaritza zentrala ezeztatu egin zen. Aldizkako lagin-ebaluazioa egiten da 6. eta 9. mailetan (LH6 eta DBH3). Udalek euren ikastetxeak ebaluatzen dituzte. Garrantzi handia ematen zaie ikastetxeen auto-ebaluazioei eta ikasketen emaitzen ebaluazio nazionalei.
- Derrigorrezkoaren Osteko Bigarren Hezkuntzaren bukaeran Finlandiako ikasle guztiek Matrikulatze Azterketa Nazionala egiten dute gradua eskuratzeko. Azterketaren emaitzek eragina izaten dute goi mailako hezkuntzako ikastetxeetan matrikulatzeko. Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzako ikasketa akademikoak aukeratu beharrean Lanbide Heziketako ikasketak aukeratu dituzten ikasleek ez dute azterketa egin behar, baina hasierako lanbide heziketa bukatu ondoren unibertsitatera joan daitezke.

---

[3] OECD (2012): *Sistemas fuertes y reformadores exitosos en la educación. Orientaciones de PISA para las Islas Canarias, España*, p. 30
OECD (2013): *PISA 2012 Results: What Makes Schools Successful? Resources, Policies and Practices (Volume IV)*, cap. 1.

- Holanda: Lehen Hezkuntzaren bukaeran derrigorrezkoa ez den azterketa bat dago, ikaslea Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batera edo beste batera joatea hein handi batean erabakitzen duena. Estatuko administrazioak ikastetxeetarako helburu nazional argien multzo bat finkatu du, eta kontu emateko sistema bat sortu du.
- Errendimendu altuko hezkuntza-sistema gehienek aitortzen dute hautapen-prozesu perfekturik ez dagoela. Beraz, irakasle batek, izendatua izan ondoren, errendimendu eskasa baldin badu, hala behar denean eta bere irakaslanaren ebidentzian oinarriturik, ikasgeletatik kendu ahal izatea bermatzeko prozedura batzuk finkatzen dituzte.
- Errendimendu apaleko irakasleen eragina oso handia da, batez ere eskolatzearen hasierako urteetan. Lehen Hezkuntzan urte batzuetan jarraian errendimendu apaleko irakaslea duten ikasleek hezkuntza-galera handia pairatzen dute, hein handi batean berreskuraezina.
- McKinsey 2007 txostenaren arabera, errendimendurik altueneko hezkuntza-sistemek bi tresna erabiltzen dituzte irakaskuntzaren eta ikasketen kalitatea kontrolatzeko: azterketak eta ikuskapenak, irakaslana zenbait adierazleren bidez ebaluatzen dutenak. Emaitzak eta prozesuak neurtzen dituzte, eta hobetu beharreko arloak identifikatzen dituzte. Hezkuntza-sistemarik eraginkorrenek, gainera, ebaluazio horren emaitzak jardunbide egokiak identifikatzeko eta hezkuntza-sistema osoan zehar zabaltzeko erabiltzen dituzte.

## B.- IKASTETXEA (ANTOLAMENDUA, KUDEAKETA ETA LIDERGOA)




**ITURRIA:** "*Europa 2020. Sistema educativo inteligente*"

## B.1 Ikastetxeetako zuzendarien kudeaketa eta lidergoa




- **Lidergoa**
  - Finlandian helburua lidergoa garatzeko estrategia nazional argia finkatzea da
  - Lidergo sendoa oso garrantzitsua da hobekuntzak lortzeko.

- **Hautaketa eta baldintzak**
  - Zuzendaritza taldean sartzeko irakasleak hautatuak izan behar dira. Hautagai guztien artean pertsonarik egokienak eta onenak hautatu behar dira.
  - Herrialde batzuetan zuzendaria izateko baldintza batzuk bete behar dira. Adibidez, Finlandian unibertsitateko goi mailako titulua, irakasteko prestakuntza, lan-esperientzia egokia, ikastetxeen kudeaketako titulua edo baliokidea eta abar eskatzen da.
  - Zuzendaritzarako pertsonarik gaituenak (egiaztatutako gaitasunak eta motibazioa) erakarri, hautatu eta prestatu behar dira.

- **Pizgarriak**
  - Zuzendaritzako karguek pizgarriak izan behar dituzte irakaslerik onenak buruzagitza-postuetara aurkez daitezen.
  - Zuzendariari ikastetxearen kudeaketan eta buruzagitzan laguntzeko lanpostuak sortu behar dira.
  - Finlandian zuzendaritza-lana izatez lanbide bat da, eta berariazko prestakuntza eskatzen du.

- **Betebeharrak**
  - Zuzendarien arreta lidergo pedagogikoan, irakasleen eta irakaslanaren antolamenduan jarri behar da hezkuntza-helburuak lortzeko. Administrazio-lanak murriztu eta paperen kudeaketa erraztu egin behar dira, arreta osoa euren lanean jar dezaten.

- Zuzendariei autonomia eman behar zaie ikastetxeko irakasleak hautatzeko eta zenbait arlotan erabakiak hartzeko ere, hala nola ikastaldeen, lanen eta arduren banaketan, errendimendu onik ez duten edo eguneratzen ez diren irakasleak lekualdatzeko…

### B.2 Koordinazio pedagogikoa eta curriculumaren inguruko koordinazioa

- Ikastetxea eskola-komunitate bat dela abiapuntutzat harturik, behar-beharrezkoa da ikastetxe bakoitzak ikaste/irakaste prozesuaren helburuez eta euren garapenaz eztabaidatzea eta horren inguruko ikuspegi partekatua eratzea.
- Kanpoko agenteekin (erakundeak, inguruko enpresak…) koordinazio bat egon behar da ikasleei ikaste-esperientzia gehiago eskaini ahal izateko. Osasun zentroekin eta abarrekin koordinazioa egon behar da.
- Elkarlanerako denborarako aurreikuspen bat egin behar da. Ikasketa-plana aurrera eramateko eta talde-lana (elkarrengandik ikastea) planifikatzeko denbora jakin bat finkatu behar da. Adibidez, Finlandian irakasleek astean arratsalde libre bat dute horretarako.
- Laguntzako irakasleekiko koordinazioa ere egon behar da, laguntza behar duten ikasleak identifikatzeko eta konponbidea elkarrekin aurkitzeko.
- Irakaste-esperientzia egokiak antolatu eta partekatu behar dira. Horretarako esperientziak antolamenduaren aldetik transferigarri bihurtu behar dira, beste ikastetxe batzuek erabili ahal izan ditzaten (Finlandia).

### B.3 Familien parte-hartzea hezkuntza-prozesuetan

- Familiek lagundu egiten dute seme-alaben hezkuntzan
- Familiak oso adi daude seme-alaben aurrerapena dela eta
- Familiak ongi informaturik daude. Ongi dakite komunitatean zer baliabide dauden, seme-alabek ikastetxean zer egiten duten eta seme-alaben ikasketetan laguntzeko zer egin dezaketen.
- Familiei aukera ematen zaie seme-alaben ikasketetan parte har dezaten.
- Familiekiko komunikazioa sustatzen da, seme-alabek ikastetxean gauzatzen dituzten jardueren berri izan dezaten.

## C.- IRAKASLEAK

### C.1 Hasierako prestakuntza eta hautaketa, irakaskuntzara sartzeko eskakizunak.

- **Hautaketa:**
  - Hezkuntza-ikasketetara sartzeko emaitzarik onenak lortzen dituztenak hautatzen dira. Bi aukera daude irakasleak hautatzeko: bat, irakasteko prestakuntza hasi aurretik hautatzea; bestea, gradua lortu ondoren hautatzea. Irakasle bezala jarduteko onenak hautatzen dituzte.
  - Finlandian pausuak honako hauek dira:
    - Irakaslegaiak hautatzeko Bigarren Hezkuntzaren bukaerako azterketako notak, Bigarren Hezkuntzako notak eta ikastetxetik kanpo izandako notak

hartzen dira kontuan. Irakaslegaiek idatzizko azterketa bat egin behar dute aurretik finkatutako pedagogia liburuez.
  - Ikasgela barruko behaketa-jarduera batean, irakaslegaiek ikasgelako egoera antzeztuei aurre egin behar diete, horretarako gizarte-elkarreraginerako eta komunikaziorako trebetasunak erabili behar dituztelarik.
  - Irakaslegairik onenei elkarrizketa bat egiten zaie, eta bertan, besteak beste, irakasle bilakatzeko dituzten arrazoiak azaltzeko eskatzen zaie.

- Finlandiako irakasleen hasierako prestakuntzaren lau bereizgarri onak honako hauek dira:
  - Ikerketan oinarrituta dago.
  - Arreta batez ere eduki pedagogikoaren ezagutzaren garapenean jartzen du.
  - Irakasleei prestakuntza egokia bermatzen die ikaste-arazoak dituzten ikasleei diagnosia egin ahal izateko eta bere irakaslana ikasleen premia eta estilo anitzei egokitu ahal izateko.
  - Bere osagairik garrantzitsuena irakaste-praktika eraginkorrak eta objektiboak dira.

- Finlandiako irakasleen prestakuntza dela eta, hezkuntza-sistemaren erronkarik handienetakoa irakasleak honetarako prestatzea da:
  - Ikasteko zailtasunak diagnostikatzeko eta konponbide egokiak diseinatzeko.
  - Irakaste indibidualizatua gauzatzeko, modu heterogeneoan taldekatutako ikasle guztiak inplikatu ditzakeena.

- Hezkuntzan lan egiten hasteko eskakizun akademiko jakin batzuk bete behar dira (lizentziatura…). Irakasleak oso gaituak dira.

- Profesionalek ezaugarri pertsonal batzuk izan behar dituzte. Hezkuntza-lanean hasteko eskakizun jakin batzuk bete behar dira (maila altua hizkuntzan eta matematikan, pertsonarteko harremanetarako eta komunikaziorako trebetasun handia, ikasteko nahia, irakasteko motibazioa…).

- Errendimendurik altuena duten hezkuntza-sistemek oso profesional gaituak erakartzea, hautatzea eta prestatzea lortzen dute honako hauen bidez:
  - Oso sarbide selektiboa hezkuntza-ikasketetara (irakaslegairik egokienak aukeratzen dituzte).
  - Irakaslegaien prestakuntza egokia, irakasle eraginkor bihurtu arte (emaitzak hobetzeko bide bakarra irakaskuntza hobetzea da)
  - Ordainsari egokiak; irakasleen hasierako soldatak onak izan behar dira (baina ez neurriz kanpokoak).

- McKinsey txosten batzuetan[4] irakasleak kontrtazeko sistema aldatzea proposatzen da, espedienterik onena duten lizentziadun gehiago praktiketako irakasle gisa kontratatu ahal izateko eta ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen dituzten iragazki batzuk finkatu ahal izateko

---

[4] OECD (2012): *Sistemas fuertes y reformadores exitosos en la educación. Orientaciones de PISA para las Islas Canarias, España,* p. 75.

- Eskola-ikasketen aldakuntzen sustatzailerik garrantzitsuena irakasleen kalitatea da ("*Hezkuntza-sistema baten kalitatearen muga bere irakasleen kalitatea da*") (McKinsey, 2007)




## C.2 Irakasleen prestakuntza eta egonkortasuna

- Hasierako gaitzea. Hasierako gaitze prozesuan trebetasun praktikoak garatzea.
- Etengabeko prestakuntza eta gaurkotzea
- Lanbide-garapenerako denbora jakin bat finkatu (Finlandian, adibidez, urtean zazpi egun)
- Irakasleak euren aisi denboran prestatu
- Prestakuntzaren diseinua: prestakuntza ikastetxeak berak diseinatu dezake edo, bestela, erakunde batek (udala, administrazioa…) antolatu dezake ikastetxe guztietarako.
- Lankidetza profesionalaren bidezko prestakuntza (lankidetza-jarduerak). Irakasleak kideekin elkarlanean ikasten du, lan komunaren bidez, eskola irekietan, irakasle aholkulari eta prestatzaileekin. Elkarlanean ikasgelan zerk funtzionatzen duen arreta handiz aztertzen da, eta, norberaren jardueraz gain, kideen jarduera ere hobetzeko konpromisoa hartzen da. Ikastetxera entrenatzaileak ekartzea irakasleei laguntza emateko (esperientzia handiko irakasle adituei lan-karga arintzea, gainerako irakasleei laguntza eta prestakuntza eman diezaieten)[5].

[5] http://mckinseyonsociety.com/downloads/reports/Education/Como_hicieron_los_sistemas_educativos.pdf




- Ikastetxeen arteko trukea eta elkarlana: ikastea, jardunbideak eta elkarren laguntza partekatzea
- AEB osora zabaldutako Kaliforniako esperientzia, irakasle guztiak eta zuzendaritza inplikatzen dituena:
    - Ikasle guztien errendimendua aztertzen du, ikastetxearen eta irakasleen beharrak identifikatzeko
    - Errendimendu handiko zuzendariak eta irakasleak zeintzuk diren aztertzen du, besteentzako prestatzaile bilakatzeko. Prestatzaile horiek ikastetxeari buruzko datuak zuzendaritzarekin aztertzen dituzte.
- Irakasleen prestatzaileek laguntza hiru etapatan ematen dute:
    - Irakasleak prestatzaileek eskola bat nola ematen duten behatzen du
    - Eskola bat elkarrekin ematen dute
    - Azkenik, irakasleak eskola bat ematen du, berak bakarrik.
    - Irakasleak prestatzaile aditua bere eskoletan sartzea onartu behar du.
    - Isilpekotasun osoa bermatzen da.
- Prestakuntzaren eraginkortasuna ez dago ordu kopuruari loturik, prestakuntzaren edukiari baizik, ikasgeletan eragin erreala izan behar baitu.
- Ezinezkoa da hezkuntzaren kalitatea hobetzea kalitate handiko prestakuntza-programak izan gabe eta lan-inguruneak irakasleei laguntzarik, erronkarik eta saririk eskaintzen ez badie.

## C.3 Irakasleen eta zuzendarien garapen profesionala

- **Karrera profesionala:**
    - Ikastetxeetan hobetze-ibilbide bat definitu behar da, karrera profesional bat.
    - Ikastetxearen barruan lanpostu ezberdinetara igotzeko aukera eskaini behar da.

- Karrera profesionala finkatu behar da, eta, baita ere, ikasgelan egindako lana jakinarazi, kideei laguntzen dien irakasle prestatzailearen figura sustatu, jardunbideak partekatu…
- Irakasleen gizarte-prestigioa areagotu behar da. Garapen profesionala bultzatu behar da, karrera profesionalari loturik.
- Karrera profesionalaren adibide bat: Lituania[6]




- **Pizgarriak:**

  Finlandian eta Herbeheretan irakasleen errendimendu bikaina saritzen da, eta, baita ere, garapen profesionalerako jarduerak gauzatzea, kontratuko ordu kopurua baino eskola gehiago edo ordu gehiago irakastea, jarduera bereziak (ikasleei lanbide-orientazioa edo bestelako aholkularitza ematea…) gauzatzea, curriculumetik kanpoko jarduerak prestatzea eta hezkuntza premia berezietako ikasleei eskolak ematea.

  Las mejores prácticas internacionales comparten:
  - Batez ere prestakuntza praktikoa
  - Ikasgelako lanera bideratua
  - Datuetan oinarritua (errendimendu neurriak) eraginkortasuna neurtu ahal izateko.

- **Berrikuntza**
  - Datuak berrikuntza eta hobekuntza sustatzeko erabiltzen dira
  - Irakasleei laguntza ematen zaie berrikuntza pedagogikoa egiteko
  - Berrikuntza-sareak eratzen dira

[6] Mckinsey & Company (2012): *Educación en España: motivos para la esperanza.*

## C.4 Irakasleen profila eta prestakuntza

- Finlandiako irakasleek denbora luzea eman behar izaten dute curriculumaren inguruko erabakiak hartzen (curriculum –marko, hobeto esanda– nazionalaren ezaugarriak kontuan izanik, irakasleek denbora luzea eman behar dute curriculuma interpretatzen eta era askotako erabakiak hartzen, hala nola zein testuliburu eta material erabili, eskolak diseinatu eta abar).
- Ikastetxe batzuetan curriculumaren garapen-prozesua elkarlanean egiten da irakasle taldeetan, baina ikastetxe txikietan ardura hori, hein handi batean, irakasle bakoitzaren eskuetan geratzen da.
- Finlandian irakasleen eta familien arteko komunikazioa estua izatea espero da, eta ikastetxe askok batzordeen egitura konplexua dute ikastetxeko bizitzaren askotariko aspektuei aurre egin ahal izateko. Finlandiako irakasleak, ikasgelan eskolak ematen ez daudenean, ikastetxetik kanpo egon badaitezke ere, irakaskuntza lanaldi osoko lanbidea da argi eta garbi.
- Irakaslerik eraginkorrenek ezaugarri pertsonal jakin batzuk izaten dituztela demostratu da: konpromisorako gaitasuna, erresistentzia, pertseberantzia eta motibazioa, gaitasun handia matematikan eta hizkuntzan, komunikaziorako gaitasuna eta pertsonen arteko harremanetarako trebezia, ikasteko grina eta irakasteko motibazioa.
- Irakaslea gai izan behar da ikasleengan norberaren irudi positiboa eta pertenentzia sentimendua sustatzeko, eta hautaketa positiboak egiteko gaitasuna sustatzeko. Gai izan behar da ikaste-irakaste modelo ezberdinak erabiltzeko (proiektuetan oinarritutakoak, diziplina anitzeko jarduerak…). Gainera, ikasle bakoitzarekin konprometitzen da eta arreta berezia jartzen du ikaslearen konpetentzien garapenean, bere lana ikasgelan partizipatiboa da, esperientzietan oinarritutakoa, ikasleak ikasitakoa gogoratu eta erabili ahal izateko.

# D.- IKASLEAK. IKASTE-IRAKASTE PROZESUA

## D.1 Ikasten ematen duten denbora

- **Ikastetxean:**
  - Finlandian haurrak zazpi urte bete arte ez dira eskolara joaten, eta eskolatzearen hasierako urteetan egunean lau edo bost eskola-ordu izaten dute. Hala ere, 15 urterekin munduko ikaslerik onenak dira matematika, zientzia, irakurketa eta problemen ebazpeneko ebaluazioetan, Norvegia mugakideko ikasleen gainetik (50 puntu gehiago).
  - Finlandiako ikasleek ELGAko beste herrialde batzuetako ikasleek baino eskola-ordu gutxiago dute.

- **Eskola-ordutegitik kanpoko denbora:**
  - Ikasteko aukerak ikasgelatik kanpora hedatzen dira ikasleak zientzia, matematika, teknologia eta antzeko arloen garrantzia esploratu dezan (curriculumetik kanpoko jarduerak ikastetxean edo ikastetxetik kanpo, eskola-ordutegitik kanpo).

**D.2 Errendimendu-itxaropen handiak**

- Eskola-arrakasta haur guztientzako espero da
- Eskola muinbakarraren azpiko ideia hau da: ikasle guztiek errendimendu maila altua lor dezaketela espero daiteke. Familia-jatorriak edo jatorri geografikoak ez ditu mugatu behar ikasleei eskaintzen zaizkien hezkuntza-aukerak.
- Ikasleak lortu behar duenari buruzko itxaropenak handiak eta zehatzak dira
- Proposamen didaktikoak irekiak eta testuinguruari lotuak dira, ikasleen gaitasunen eta erritmoen araberakoak, ikasle guztientzako itxaropen handiak eta egokituak mantenduz.
- Herbeheretako ikuskaritzak aipatu zuen irakasleek batzuetan ikasleekiko oso itxaropen apalak izaten dituztela, eta ikasle onek egoera horretan euren gaitasuna baino errendimendu baxuagoa izaten dutela. Gaur egun hainbat ekimen jarri dira abian ikasleengandik ahalik eta errendimendurik onena lortzeko.

**D.3 Etengabeko ebaluazioa eta ikasleen aurrerapenaren kontrola**

- Ikasle bakoitzaren aurrerapena banakako gaitasunen arabera neurtzen da. Irakasleen lana curriculumak, irakaskuntzak eta ikaskuntzak bultzatu behar dute, eta ez, berriz, ebaluazio estandarizatuek. Irakaslea da bere ikasleek eskolan nola aurreratzen duten ebaluatzeko epailerik onena.
- Ikasleen auto-ebaluazioa bultzatzen da, ikasleek euren aurrerapena ulertu ahal izateko eta euren ikaste-jarduerak diseinatu ahal izateko.
- Ebaluazioak ikasleen ikaste-trebetasunen garapena bultzatu behar du konpetentzia arlo guztietan. Horrek ikasleen ebaluaziorako metodoak eta irizpideak garatzea eskatzen du. Ikasgelako ebaluazio diagnostikoa eta ebaluazio formatiboa ikaragarri handiak eta zehatzak dira.
- Singapurren eta AEBetan ikasleen errendimenduaren ebaluazioak egiten dira, zuzenketa edo hobekuntza-neurriak hartu ahal izateko. Irakasleak hobekuntza-prozesuetan inplikatzen dituzte.
- Emaitzak ebaluatzeak aukera ematen du jardunbide hobeak identifikatzeko eta zabaltzeko, arlorik ahulenak antzemateko eta ikastetxeek euren errendimenduaren erantzukizuna har dezaten.
- Ebaluazio formatiboa bultzatzen da: auto-erregulaziorako aukerak, ebaluazio-irizpideak ezagutarazten dira, auto-ebaluazioa sustatzen da…
- Ikasturtearen hasieran, hasierako ebaluazioak ikasleen konpetentzia-maila erakutsiko du.
- Irakasleek etengabe ebaluatzen dituzte ikasleak.

**D.4 Aniztasunari erantzuna: ikasketen indartze positiboa Gizartean eta ikastetxean sartzeko neurriak.**

- **Ikasleentzako laguntza**:
  - Finlandia oso harro dago ikasleak barneratzearekin duen konpromisoaz. Ikastetxe bakoitzean prestakuntza berezia duen laguntzako irakasle bat dago (special teacher). Irakasleekin batera lan egiten du aparteko laguntza behar duten ikasleak identifikatzeko. Ikasle horiekin banaka edo talde txikietan lan

egiten du euren ikaskideen erritmoa jarraitu ahal izan dezaten. Gainera, ikastetxeetan "talde multiprofesional" bat dago, hilabetean bi aldiz gutxienez, bi orduz biltzen dena. Taldea zuzendariak, laguntzako irakasleak, ikastetxeko erizainak, ikastetxeko psikologoak, gizarte-langileak eta ikaslearen irakasleek osatzen dute.

- Finlandiako ikastetxeen erantzukizun maila altua nabaria da, ikastetxeak, ikasteko arazoak dituzten ikasleekin modu kolektiboan arduratzeko, nola dauden antolatuta ikusten badugu.
- Ikasle guztiek dute ikasteko laguntzarako eskubidea. Laguntza banakako irakaskuntza izan daiteke edo premia berezien arabera egokitua.
- Laguntzako irakasleak, errendimendu apaleko ikasleei laguntza emateaz gain, ikasle aurreratuei ere aparteko heziketa ematen die (Finlandia).
- Kanadan etorkinen kopurua oso handia da, baina hiru urte pasa ondoren PISA ebaluazioetan bertako ikasleen eta ikasle etorkinen arteko alderik ez dago, ezta ere etxean irakas-hizkuntza hitz egiten dutenen eta ez dutenen arteko alderik. Arrazoi nagusiak hiru dira: guraso askok goi mailako ikasketak dituzte; ezberdintasun kulturalak asko errespetatzen dira, eta bertako hizkuntza irabazi-asmorik gabeko erakundeetan irakasten da; eta azkenik, hizkuntza-laguntza finantzatuta dago.



- **Denbora aniztasuna:**
    - Lanak egiteko, ikasteko, lanak irakasleari emateko denbora ezberdinak onartzen dira. Lanak egitean gauzatze-maila ezberdinak onartzen dira, eta irakasleek proposatutako jarduerak ikasleek askatasunez aukeratutako beste batzuekin batera gauzatzen dira.

- **Metodologia aktiboak eta elkarlanekoak**:
    - Proiektuetan oinarritutako lanak eta IKT teknologien erabilera integratua sustatu. Banako eta taldeko ikaste-estrategiak erabili. Diziplinarteko ikasketetarako aukera eman, gaitasun handiko ikasleek sormena eta motibazioa garatu ahal izan dezaten. Testuliburuaren erabilera mugatu. Adimenaren pizgarriak diren materialak eta jarduerak aukeratu. Estrategia partizipatiboak sortu. Ikasleen ikasteko autonomia bultzatu, irakasleak ezagupen-transmititzaile bezala duen zeregina mugatuz.
    - Finlandian, adibidez, honako hauei garrantzi berezia ematen diete: "gauzak eginez" ikastea, talde-lana, sormena eta problemak ebazteko trebezia. Haur Hezkuntzatik espero da ikasleak diziplinarteko proiektuena elkarlanean aritu daitezen. Derrigorrezkoaren Osteko Bigarren Hezkuntzan, ikasleek parte hartzen dute euren ikasketa-planen diseinuan.
    - Shangain, ikasleek lan batzuk egiteko aurretiaz dakitena estrapolatu behar dute eta euren ezagupenak sormenez egoera berrietara aplikatu behar dituzte. Shangain ongi ulertu dute "munduko ekonomiak bikaintasuna gero eta gehiago sarituko duela, eta gaurko ekonomiak pertsonei ez diela ordaintzen soilik dakitenagatik –Googlek dena daki–, baizik eta dakitenarekin egin dezaketenagatik"
    - Espazioaren eta denboraren antolamendu anitzak, ikasleak kasuan kasuko lanen arabera mugitu ahal izan daitezen. Denbora bat gorde elkarrizketarako eta kideen arteko laguntzarako.
    - Ikasitakoaren ahozko eta idatzizko adierazpena bultzatu.
    - Zabaltze-tailerren bidez aberastu (txokoak ikasgelan). Zabaltze-materialak prestatu lana arin bukatzen duten ikasleentzat.
    - Taldekatze anitzak: gaitasun handiko haurrek kideei egoki lagundu diezaiekete, baina batzuetan eurenak bezalako interesak eta lan egiteko modua dituzten kideekin egon behar dute.
    - Ikaste-komunitateen esperientzia jardunbide egokien eredua izan daiteke.

- Ikasleek erronkak behar izaten dituzte motibaturik jarraitzeko. Herbehereetan hainbat ekimen daude abian ikasle onengandik ahalik eta errendimendurik onena lortzeko. Ikuskaritzak irakasleen ekimenak ikasleak motibatzeko onak direla ikusten du, bereziki IKT teknologien aplikazioaren arloan eta lan-metodoen aktibazioaren arloan.
- Bikaintasuna duten hezkuntza-sistemek ikastetxeen barruan prozesuak eta egiturak dituzte ikasle bat noiz hasten den atzeratzen antzemateko eta errendimendua hobetzeko neurriak hartzeko.

## 2. EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMAREN EGOERA ANIZTASUNAREN ERANTZUNARI DAGOKIONEZ.

Aurreko pasartean ikusi dugun bezala, badira honako aspektu hauekin lotutako hainbat neurri: datuen gardentasuna eta ikastetxeetara itzultzea, banakako beharrak sortzen diren unetik antzematea, beharrak ezagutu ondoren berehala konpontzea eta abar. Euskadin aspektu horietan bidea hasita dago, baina oraindik aurrera jarraitu behar da hobekuntzarantz eta bikaintasunerantz ebaluazioen bidez, ebaluazioek ikastetxeei euren errendimenduaren eta aniztasunari erantzuteko proiektuen eta egituren egoera jakinarazten baitiete. Ikasleen gaitasun anitzek, ikasteko erritmo ezberdinek, ikasteko interes eta motibazio ezberdinek eta abarrek osatzen dute aniztasuna.

Gure hezkuntza-sisteman gauzatzen diren proiektu eta jarduera batzuk aurkezten dira, horietariko asko ikasleen aniztasunari ematen zaion erantzunari lotuak. Erantzun hori abiapuntua da emaitza onak bikain bilakatu daitezen lortzeko, eta irakasleen ustez "eurek bakarrik" ikasten duten ikasleak hobetu daitezen lortzeko, baldin eta behar duten laguntza jasotzen badute laguntza hori ematen ondo dakiten irakasleengandik.

### 2.1 Kanpoko ebaluazioak

Hezkuntzaren eta errendimenduaren hobekuntzarako oinarrietako bat *errendimenduaren neurketaren gardentasuna* da, hots, ebaluazioetan zehar datuak biltzea eta ikasleen errendimendua ikastetxeekin gardentasun osoz partekatzea. Kanpoko informazio hori jasotzeak ikastetxeei aukera ematen die emaitzak hobetzen diren jakiteko, euren ekintzen arrakasta ebaluatzeko eta hala behar denean zuzenketa-neurriak hartzeko. Ekintza horien bidez irakasleak ikasleen hobekuntza-prozesuan inplikatzen dira.

Euskadin hezkuntza-sistematik kanpoko hainbat ebaluazio gauzatu dira azken hamarkadan (PISA, TIMSS, Ebaluazio Diagnostikoak), eta ebaluazio horietatik eta ikasleek 2003tik hona ebaluatutako konpetentzietan izan duten errendimendu-mailen analisitik ondorioztatu da Euskadiko hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat bere ekitatea dela, eta beste bat, bere bikaintasun falta. Hori orain arte ebaluatutako hezkuntza-maila guztietan gertatu da (Lehen Hezkuntzako 4. maila, DBHko 2. maila eta 15 urteko ikasleekin, derrigorrezko hezkuntza bukatzean).

Ebaluazio guztietan gure hezkuntza-sistemaren ezaugarri nagusi bezala bere ekitatea azaltzen da behin eta berriro:erdiko errendimendu-mailetan ikasleen ehuneko altua, eta PISA ebaluazioaren kasuan, beheko errendimendu-mailetan, ELGAko batez bestekoa baino ehuneko apalagoa ebaluatutako konpetentzia guztietan. Eta horixe da Euskadiko hezkuntza-sistemaren alde edo ezaugarri positiboa, bere indarguneetako bat: hezkuntza-sistemak ikasleen arteko jatorri-ezberdintasunak hein batean bere gain hartzen eta orekatzen ditu.

Hezkuntza-sistemaren bigarren bereizgarria bikaintasun falta da, sistemaren ahulguneetako bat: Euskadin ebaluatutako konpetentzietan goiko errendimendu-mailan dauden ikasleen ehunekoa, oro har, ELGAko batez bestekoa baino txikiagoa izaten da PISA ebaluazioaren kasuan.

Analisi honetan oinarriturik, hezkuntza-sistemaren helburu bezala planteatzen da ikasleen errendimendua, ekitatea mantenduz, igotzeko neurriak hartzea eta, baita ere, gazteek, behar diren laguntzak ezarri ondoren, euren gaitasun guztiak garatu ditzaten lortzea.

Horretarako, gure hezkuntza-sisteman ikasleek errendimendu-maila ertainetara heltzeko zailtasunak dituztenean aniztasunari erantzuna emateko eraginkorrak izan diren neurrien berrikusketa egin da. Neurriak hezkuntza-komunitate osoari dagozkio eta konpromiso bat eskatzen dute Hezkuntza Sailaren partetik eta irakaskuntzako profesional guztiengandik.

Analisian beste hainbat aspektu ere hartu behar dira kontuan, gure sistemaren bereizgarriak, bere indarguneak eta ahulguneak dei litezkeenak:

**EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA**

| INDARGUNEAK | AHULTASUNAK |
|---|---|
| **Ekitatea:**<br>PISA 2012 ebaluazioan, *Matematikarako konpetentzian* errendimendu-maila ertainetan ikasleen % 74 kokatu da; *Irakurtzeko konpetentzian*, % 81; eta *Zientziarako konpetentzian*, % 83.<br><br>**Errepikatzaileen ehunekoa**:<br>PISA 2012 ebaluazioan, Euskadiko 15 urteko ikasleen artean % 77,9 adinagatik dagokion irakasmailan egon da. ELGAko herrialdeetako batez besteko ehunekoa % 85,6 izan da, eta Espainiako batez bestekoa, % 66. Konparazioak eginez, Euskadin irakasmailarik errepikatu ez duten ikasleen ehunekoa herrialde eta erkidego askotakoa baino handiagoa da, oraindik ere gehiago hobetu behar den arren.<br><br>**Eskola-uste goiztiarraren tasa:**<br>18-24 urte bitarteko biztanleen artean, 2013an DBHko 2. zikloko ikasketak bukatuak ez zituzten eta inolako hezkuntza-prestakuntzarik jasotzen ez zutenak % 9,9 ziren. Europar Batasuneko 28 herrialdeetako batez bestekoa % 12 zen, eta Espainiakoa, % 23,6[7].<br><br>**Hezkuntza premia bereziei erantzuna:**<br>Baliabideak ikastetxetan eta komunitatean. Hezkuntza-jarduera hori 1982ko Hezkuntza Berezirako Planarekin hasi eta denboran zehar irmo errotu da. 1988an Hezkuntza Bereziaren Batzordeak "Eskola muinbakarra eta integratzailea" txostena argitaratu zuen. | **Ikasle gutxi goiko errendimendu-mailetan nazioarteko ebaluazioetan**<br>(ELGAko batez bestekoa baino ehuneko txikiagoa)<br>Agian ikastetxeetan laguntza-egiturak falta dira ikasteko arazorik ez duten ikasleek euren gaitasun guztiak ahalik gehien garatu ditzaten. Baliteke, baita ere, elkarlana, kideen arteko ikaskuntza eta abar bultzatzen duten metodologiak behar beste ez erabiltzea.<br><br>**Familia-ikastetxea lankidetza. Hezkuntza konpromisoa.**<br>Ikastetxeen eta familien konpromiso komuna eta hezkuntza-prozesuan dauden pertsonentzako laguntza bateratua ikasketa-planetan gutxitan jasotzen diren aspektuak dira, nahiz eta erreferentziatzat hartutako beste hezkuntza-sistema batzuetan garrantzi handikoak izan.<br><br>**Irakasleen ebaluazioa**.<br>Ebaluazioa beti izaten da abiapuntua lan-jarduera hobetzera eta lanerako motibazioa handitzera bideratzen diren neurriak hartzeko.<br><br>**Irakasleentzako karrera profesionala falta da.**<br>Lan-ibilbidean gora egiteko aukera izateak lagundu egiten du lanean itxaropen handiak mantentzen.<br><br>**Irakasleen estatusa gizartean.**<br>Ez dago ordainsariari lotua, lanbideak gizartean duen balorazioari baizik. |

[7] Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta Europarra. Eurostat.

**Kanpoko ebaluazio-sistema:** Ebaluazio diagnostikoak 2009an hasi ziren, eta ia urte bateko maiztasunarekin, emaitzak aztertu ondoren, informazioa ikastetxeetara bidaltzen da euren egoera ezagutzeko eta hobekuntza-neurriak hartu ahal izateko.

**Hobekuntza-planak:** ebaluazio diagnostikoetako emaitzetan oinarriturik, ikastetxeek, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta Berritzegunearen aholkularitzarekin, hobekuntza-planak egiten dituzte. Helburu nagusia ikasleen errendimendua konpetentzia guztietan hobetzea da.

**Ikastetxeen eta irakasleen autonomía.** Ikastetxe gehienek finantza-autonomia dute, baina gure hezkuntza-sisteman aurrera egin behar dugu oraindik autonomia pedagogikoan, bai zuzendaritza taldeen kasuan baita irakasleen kasuan ere.

***Zientziarako konpetentziako* errendimendua.** Konpetentzia horretan bakarrik izan da Euskadiko batez besteko puntuazioa ELGAko batez bestekoa baino nabarmenki baxuagoa lau PISA ebaluazioetako bitan (2003 eta 2009).

## 2.1.1. PISA EBALUAZIOA

I. eranskinean Euskadiko hezkuntza-sistemaren egoera objektibotasunez eta denboran zehar adierazten duten zenbait datu azaltzen dira, nazioarteko PISA ebaluaziotik jasoak hain zuzen. Euskadik 2003. urtetik parte hartu du ebaluazioan ikasleen lagin haztatuarekin.

*MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA*
Lagin haztatuarekin egindako lehenengo bi ebaluazioetan (PISA 2003 eta PISA 2006) Euskadiko puntuazioa ELGAko batez bestekoaren antzekoa izan zen, eta azken bi ebaluazioetan (PISA 2009 eta PISA 2012) Euskadiko batez besteko puntuazioa ELGA herrialdeetako batez bestekoa baino nabarmenki altuagoa izan da.

*IRAKURTZEKO KONPETENTZIA*
Euskadiko batez besteko puntuazioa ELGAko herrialdeetako batez bestekoaren antzekoa izan da lau ebaluazioetan (PISA 2003tik PISA 2012ra).

*ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA*
Konpetentzia honetan Euskadiko ikasleen puntuazioa PISA 2003 eta PISA 2009 ebaluazioetan ELGAko herrialdeetako batez bestekoa baino nabarmenki baxuagoak izan ziren. PISA 2006 eta PISA 2012 ebaluazioetan ELGAko batez bestekoarekiko puntuazio-aldeak ez dira nabarmenak izan, eta, beraz, ELGAko herrialdeetako batez bestekoan egon da.

I. eranskinean, adibide gisa, PISA 2012 ebaluazioan ikasleak *Matematikarako konpetentziako* errendimendu-mailetan nola banatu diren grafikoetan azaltzen da. Aurreko PISA ebaluazio guztietan egoera bera errepikatu da; beraz, Euskadiko hezkuntza-sistemaren ezaugarri bat da.

**Euskadiko hezkuntza-sistemaren ezaugarriak PISA ebaluazioko emaitzen argitan**

PISA 2003 ebaluaziotik lagin haztatuarekin 10 urteko esperientzia izan ondoren, lehen txostenean azaldu zen bezala, Euskadiko hezkuntza-sistemaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- **Ekitatiboa da:** errendimendu-maila ertainetan ikasleen ehunekoak oso handia dira. Alderdi positiboa da, hezkuntza-sistema on batek, emaitza onak lortzeaz gain, ikasleen jatorrizko ezberdintasunak kontuan hartzen eta konpentsatzen dituen hezkuntza eskaini behar duelako (1 grafikoa).
- **Bikaintasuna falta zaio:** errendimendu-maila horietan ikasleen ehunekoa oso baxua da konpetentzia guztietan, eta oro har ELGAko herrialdeetako batez bestekoa baino baxuagoa (2 grafikoa)

I.eranskineko 1. Grafikoan azaltzen denez, Euskadin errendimendu-maila ertainetan ikasleen ehunekoak oso altuak dira, kasu honetan *Matematikarako konpetentzia*n. PISA 2012 ebaluazioan ikasle guztien ia % 75 maila horietan kokatu da. Gauza bera gertatu da Estonian, Danimarkan, Finlandian eta Irlandan.

Hezkuntza-sistemaren alderdi negatiboa (I. eranskineko 2. grafikoa) errendimendu-maila altuan eta oso altuan (bikaintasun maila) Euskadin ikasleen % 10,4 bakarrik kokatu izana da. Finlandian ehunekoa altuagoa izan da (% 15,3). Irlandan, Portugalen eta Danimarkan ehunekoak Euskadikoen antzekoak izan dira.

I. eranskinean hiru konpetentzietako goiko errendimendu-mailen bilakaera azaltzen da tauletan, ELGAko herrialdeetakoekin eta Euskadikoa baino puntuazio altuagoa lortu duten hiru herrialdeetakoekin konparaturik.

Goiko errendimendu-mailetako ikasleen ehunekoak azterturik, Euskadiko eta ELGAko batez bestekoen arteko aldeak nahiko egonkor mantendu dira ebaluazio guztietan eta hiru konpetentzietan.

*Matematikarako konpetentzia*ko goiko errendimendu-mailetako ikasleen ehunekoak emaitza onak lortzeagatik hautatutako hiru herrialdeetan aztertzen baditugu, honako hau ikus daiteke:

- Euskadiko eta hiru herrialdeetako ehunekoen arteko aldea nabarmenki jaitsi zen PISA 2003tik PISA 2009ra.
- PISA 2012 ebaluazioan eta PISA 2009 aurreko ebaluazioarekiko Finlandiako ehunekoekiko aldeak jaisten jarraitu du. Kanadakoarekiko aldea mantendu da, eta Herbehereetakoarekiko aldea ia bi puntu igo da.

Euskadiko puntuazioa *Matematikarako konpetentzian*:

- Finlandiako batez bestekoa (519) baino 14 puntu baxuagoa izan da
- Herbehereetako batez bestekoa (523) baino 18 puntu baxuagoa izan da
- Kanadako batez bestekoa (518) baino 13 puntu baxuagoa izan da

Puntuazio horiek kasu guztietan dira izan Euskadikoa (505 puntu) baino nabarmenki altuagoak.

I. eranskineko 3. grafikoan ikasleak PISA 2012 ebaluazioan [8] *Matematikarako konpetentzia*ko errendimendu-mailetan nola banatu diren azaltzen da..

Beheko errendimendu-mailetan Euskadiko ikasleen ehunekoa (% 15,5) ELGAko batez bestekoa (% 23) baino askoz apalagoa izan da.

**PISA 2012**[9]**. *Matematikarako konpetentzia*ko batez besteko puntuazioak ISEK indizea kenduta eta kendu gabe**

Indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK) ikasleek konpetentzia guztietan lortutako emaitzekin erlazio zuzena duten aldagaietako bat da. Hala ere, indizeak Euskadiko hezkuntza-sisteman beste herrialde askotako hezkuntza-sistemetan baino eragin txikiagoa izaten du.

PISA 2012 ebaluazioan Euskadiko ISEK indizea, batez beste, 0,03koa izan da, ELGAko batez bestekoa (0,00) baino handiagoa eta Finlandiakoa (0,36), Kanadakoa (0,41) eta Herbehereetakoa (0,23) baino baxuagoa. Espainiako ISEK indizea (-0,19) ELGAkoa baino baxuagoa izan da.

Euskadin *Matematikarako konpetentzia*ko puntuazio zuzena bere ISEK indizea kontuan hartuta espero zitekeena baino apur bat baxuagoa da, hau da, bere ISEK indizea ELGAkoa (0,00) bezainbestekoa balitz, ez litzateke ia puntuazio igoerarik gertatuko (4. grafikoa).

ISEK indizearen igoeraren eragina emaitzetan zenbat eta txikiagoa izan, zenbat eta ekitatiboagoa izango da hezkuntza-sistema, ikasle guztientzako aukera-berdintasun handiagoa bermatuko bailuke.

[8] ARREGI MARTÍNEZ, A. (2014): *PISA 2012 EUSKADI. Emaitzen txostena eta aldagaien azterketa*. Bilbao. ISEI-IVEI.
http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/PISA2012_eusk.pdf

[9] Opus cit.

**4. grafikoa. PISA 2012. *Matematikarako konpetentziako* puntuazio zuzena eta ISEK indizea kendu ondorengoa**




Iturria: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. PISA 2012. Programa para la evaluación internacional de alumnos. Informe español.

## 2.1.2. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Ebaluazio diagnostikoa[10] Euskadiko ikastetxe guztietan gauzatu da Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan 2009an, 2010ean, 2011n eta 2012an. Ikastetxeentzat ebaluazioaren izaera prestakuntzazkoa eta orientatzailea da, ikastetxe bakoitzari bere emaitzak ematen baitizkio hobekuntza-planak egin ahal izan ditzan.

Hobekuntza-planak Ikuskaritzaren[11] lankidetzaz eta Berritzeguneen[12] aholkularitzaz prestatzen dira. Plan horiek ikasleen errendimendua hobetzeko izan duten eraginkortasuna dela eta, ISEI-IVEI ebaluazio-prozesu bat gauzatzen ari da.

II. eranskineko grafikoetan ikasleen banaketa azaltzen da ebaluatutako lau konpetentzietako errendimendu-mailetan eta ebaluatutako bi irakasmailetan. Datuetan ikus daitekeenez, ikasleen ehunekorik altuena errendimendu-maila ertainek biltzen dute.

PISA ebaluazioarekin bat datozen beste ondorio batzuetatik aparte (sistemaren ekitatea eta bikaintasun falta), datuen analisian honako hau egiaztatu da: ikastaldearen maila akademikoak ikaslearen gelako kalifikazioak baldintzatzen ditu, irakasleek ikastaldeko gaitasunen aniztasuna homogeneizatzeko joera izaten baitute, eta ebaluazio-irizpideak batez bestekotzat hartzen duen mailara egokitzen baitituzte. (ikus II. eranskina).

[10] http://ediagnostikoak.net/edweb/eus/indexeus.htm
[11] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-inspec/eu/
[12] http://www.berritzeguneak.net/berritzeguneak.php

Irakaskuntzaren indibidualizazioa edo pertsonalizazioa, eta horretarako har daitezkeen neurriak abian jartzea oso aspektu garrantzitsua da ikasleen aniztasunari erantzun hobea eman ahal izateko.

## 2.2 Ikastetxe Eraginkorrei buruzko ikerlana [13]

Oraindik gauzatzen ari den ikerlanaren helburua ikastetxeek oro har ikasketei egiten dioten ekarpena ezagutzea da, eta, baita ere, Ebaluazio Diagnostikoan (ED) neurtzen diren konpetentzietako lorpen-maila ezagutzea. Ikerlanaren xedea aztertutako datuetan oinarriturik hezkuntza-sistemaren hobekuntza bultzatzea da eta beste ikastetxe batzuetara transferitu daitezkeen jardunbide egokien katalogo bat egitea. Gure sistemaren aniztasuna islatzen duten 32 ikastetxe publiko eta itunpekoetako datuak aztertu dira.

Honako arlo hauetako jardunbide egokiak bildu dira:

- Proiektuak, planak eta prestakuntza
- Metodologia eta irakasmaterialak
- Aniztasunari erantzuna
- Ikasleen jarraipena, bananako arreta, orientazioa eta tutoretza
- Ikasleen ebaluazioa
- Denboraren kudeaketa
- Lidergoa eta zuzendaritza taldea
- Kudeaketa eta antolamendu ereduak
- Barneko eta kanpoko koordinazioa
- Inplikazioa eta ikastetxeko partaide sentitzea
- Irakasleen, ikastetxearen, programen eta jardueren ebaluazioa; eta Ebaluazio Diagnostikoko datuen erabilera
- Giroa eta bizikidetza
- Irudia, instalazioak eta baliabideak
- Familia, komunitatea eta gizarte-kapitala

Ikerlanaren lehen fase honetako ondorioetan jardunbide egokien zerrenda hau aurkeztu da, zenbait arlotan banatuta (ikasleak, irakasleak eta ikastetxearen kudeaketa, antolamendua eta lidergoa). Jardunbideak, bikaintasunari begira, lagungarriak izan litezke sistemaren hobekuntzarako.

[13] http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/handikobalioa/txosten_laburra.pdf

## Ikasleak (ikaste-irakaste prozesua)

- Ikasleen lana hurbiletik jarraitzea; lanaren kontrol zehatza eta egin beharreko lanak argi finkaturik eta planifikaturik.
- Jarraipena tutoretzaren bidez egiten da, familiekin harreman estuetan eta tutoretza planaren bidez; familiei erabakiak hartzeko parte hartzea eskatzen zaie eta ikasleei buruzko informazioa ematen zaie.
- Aniztasunari erantzun egokia eta ondo antolatua (HPBko ikasleak, etorkinak, errendimendu apalekoak…), ikastetxearen ezaugarriak kontuan izanik eta barneko baliabideak egoki kudeatuz: indarketa programak, errendimendu apaleko ikasleei arreta berezia (PROA programa adibidez), irakasleen bikoizketa ikastalde batzuetan eta abar.
- Ikasleen zailtasunak goiz antzematea eta konponbideak arin abian jartzea.
- Ikasleen ebaluazioari arreta berezia ematea, prestakuntzazko ebaluazioak sarritan eginez eta gutxieneko edukiak eta ebaluazio-irizpideak argi, publikoki eta modu kolegiatuan finkatuz.
- Emaitza onak ez daude metodologia jakinei loturik. Ikastetxe batzuetan ohiko metodologiak (testuliburua, kasu) erabiltzen dira eta beste batzuetan, berriz, metodoa, baliabide eta ikasgelen antolamendu berritzaileagoak erabiltzen dira.

## Irakasleak

- Irakasleen ardura handia, ikastetxearekiko eta hezkuntza-lanarekiko (ez bakarrik irakaslanarekiko) inplikazio handitik sortzen dena.
- Etengabeko prestakuntza eta hobekuntza jardueretan parte hartze eta konpromiso handia; jarduerak zuzendaritza taldeak antolatzen eta bultzatzen ditu (ikasten duten ikastetxeak).
- Kasu batzuetan inplikazio handiaz gain, kalitateko programetan edo proiektuetan ere parte hartzea.
- Ikastetxeko irakasleekiko arreta eta laguntza, bai harreran baita eguneroko lanean ere.
- Irakasle aholkulariaren eta orientatzailearen inplikazioa eta, zenbait kasutan, lidergoa, bai ikasleen jarraipenean baita tutoretza-planean ere.

## Ikastetxea (antolamendua, kudeaketa, lidergoa)

- Arazo larririk gabeko eskola-giroa, eguneroko irakaslana errazten duena –edo oztopatzen ez duena–. Kasu batzuetan normaltzat hartzen da soilik, beste kasu batzuetan ontzat edo oso ontzat. Kasu batzuetan bizikidetzan eta gatazken konponbidean esperientzia eta prestakuntza izan duten ikastetxeak izaten dira.
- Ikastetxeek euren ikuspegia eta filosofia dute, argi definitua eta partekatua. Zuzendaritzak eta klaustroak ikuspegi bera dute eta, ondorioz, xedeak eta xedeak lortzeko bideak finkatzen dituzte.
- Zuzendaritza hautatua edo izendatua izan arren, garrantzi handikoa da lidergo argia izatea ; lidergoa askotariko mota eta estiloetakoa izan daiteke, baina talde-lanaren dinamika oso garrantzitsua da.
- Sistematizazio eta planifikazio maila altua ikastetxearen kudeaketan eta koordinazioan, bai barnekoan bai kanpokoan.

- Denboraren kudeaketa egokia, bai ikasgelako ikaste-irakaste prozesuan, bai ikastetxeko giza baliabideen antolamenduan.
- Ikastetxeak abiarazitako proiektuen, programen eta jardueren ebaluazioa. ED ebaluazioa positibotzat hartzen da eta prestakuntzazko erabilera ematen zaio.
- Zuzendaritza taldearen itxaropen handiak ikasleekiko eta irakasleekiko.

## 2.3 Aniztasunari erantzuna emateko planak

Eskola miunbakarraren helbururik behinena ikasle guztiek euren gaitasun eta ahalmen guztiak ahalik gehien garatzea da. Euskadiko hezkuntza-sistemak esperientzia handia du aniztasunari eskolaren testuinguruan erantzuna ematen, batez ere errendimendu apaleko ikasleen kasuan. Esperientzia hori oso baliagarria izan liteke, ikaste-irakaste prozesuan laguntza handiagoa balute, errendimendu hobeagoa izan lezaketen ikasleen kasuaz gogoeta egiteko.

Ikasleei dagokienez, aniztasuna, besteak beste, aspektu hauetan erakusten da:

- Ikasteko estiloa
- Ikasteko gaitasuna
- Garapen mailak eta aurretiko ikasketak
- Ikasteko erritmoak
- Interesak, motibazioa eta itxaropenak
- Jatorria eta gizarte-taldea

Aniztasunaren arretarako plan estrategikoa eskola eredu muinbakar baten barruan 2012-2016 planean azaltzen den bezala, ikastetxe batek ikasle guztientzako ingurune muinbakar bezala funtzionatu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar ditu:

a) Ikastetxean dauden ikasleen aniztasunaz jabetzea
b) Curriculuma eta ikasgelako jardueren diseinua berraztertzea
c) Espazioen eta denboren erabilera helburuen arabera birplanteatzea
d) Ikasleak motibatzea eta euren beharrez gogoeta egitea
e) Aurretiazko ezagupenetatik abiatzea, jardunari eta ikasgelako lanari zentzua emateko.
f) Proiektu zabalak, malguak eta irakasle taldearen lankidetza eskatzen dutenak gauzatzea
g) Ikasgela ikasleen elkarlana eta autonomia bultzatzen duen modu batean antolatzea

Laguntzaren kontzeptua zabala izan behar da, irakasleen koordinazioa azpimarratu behar du, eta, baita ere, profesionalen arteko lankidetza, ikasle guztien beharrei erantzuteko metodo egokia eta irakasleen prestakuntza, guztiak ezinbestekoak baitira irakaste-jardunbideak gero eta inklusiboagoak izan daitezen.

Jardunbide horiek bi ardatzen inguruan garatzen dira: ikaste-prozesuaren antolamendua eta baliabideen erabilera. Ikastetxeetako jardunbide inklusiboak ikasgelan parte hartzen duten profesional guztiek elkarrekin oinarrizko hiru gai hauetan egindako gogoetaren ondorioz sortuko dira: ingurune inklusibo batean zerk funtzionatzen duen finkatzea, nola funtzionatzen

duen ezagutzea eta zergatik funtzionatzen duen jakitea, hau da, jardunbide horiek gertatzeko behar diren baldintzak identifikatzea.

Hezkuntza eta ikaskuntza premia batzuek, gehienetan ikasleen elbarritasunetik eratorriak, laguntza-egitura egokia dute gure hezkuntza-sisteman, jarraian gainetik azalduko dena. Egituraren atal bat baliagarria izan liteke ikasleen errendimendua euren gaitasunak heltzen diren lekuraino hobetzeko.

**Hezkuntza premia berezietarako laguntza-egitura**

**Ikastetxeko giza baliabideak:**

Lehen Hezkuntzako **irakasle aholkularia;** bere betebeharrak honako hauek dira: tutoreari zailtasunak identifikatzen eta konponbideak aurkitzen laguntzea; curriculuma egokitzen laguntzea; ikasgelan tutorearekin aritzea erantzuna banakoagoa izan ahal izateko; aniztasunari erantzunaren berrikuntza sustatzea.

DBHko **irakasle orientatzaiea;** bere betebeharrak honako hauek dira: aniztasunari erantzuteko jarduerak koordinatzea; ikaste-arazoak identifikatzeko, indartze-jarduerak gauzatzeko eta antolamendurako eta metodologiarako aholkua ematea; curriculuma bereizteko ebaluazio psiko-pedagogikoa egiteko aholkua ematea; irakasleei euren irakaslanerako aholkua ematea; ekintzak ikastetxearen eta zonaldeko hezkuntza-zerbitzuen artean koordinatzea.

**Pedagogia Terapeutikoko irakaslea;** bere betebeharrak gehienbat hezkuntza premia bereziko ikasleekin eta euren irakasleekin lan egiteari dagozkio.

**Entzumena eta Mintazirako irakaslea;** bere betebehar nagusia komunikatzeko eta hitz egiteko arazoak dituzten ikasleekin lan egitea da.

**Gela egonkorrak;** Ikasgelako Curriculum Proiektua eta Banakako Lan-plana izaten dute. “Laguntza orokortua” eta etengabeko baliabide trinkoak behar dituzten ikasleentzako gelak dira. Ikasle horien curriculuma nahiko aldentzen da ikasle arrunten curriculumetik.

**Kanpoko giza baliabideak:**

Ikastetxeko baliabideez gain, zonaldeko eta lurraldeko baliabideak ere badaude: **Berritzegunea, Talde Multiprofesionala (TMP), Logopeda, Fisioterapeuta, Okupazio Terapeuta, Hezkuntza Laguntzako Espezialista, Itsuen Baliabidetegia (IBT), Entzumen urritasuna duten ikasleen lurraldeko koordinazioa.**

**Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP)**[14]

*Ikasteko arazoak dituzten ikasleentzako neurria da* eta helburu bikoitza du:

1. Oinarrizko hezkuntzako helburuak ikasle guztiek lortzen dituztela bermatzea, horretarako oinarrizko konpetentzien lorpen-maila egokirako behar den laguntza emanez. Laguntza honako honetara bideratuko da:

   - Hezkuntza indartzeko banakako plana oinarrizko hezkuntzan egin.
   - Ikaste-arazoak dituzten ikasleak oinarrizko teknika instrumentaletan trebatu Lehen Hezkuntza eta DBH arrakastaz ikasteko.
   - Ikasleari bere garapen integrala (pertsonala, soziala, akademikoa) lortzen lagundu.
   - Ikasleengan ikastearekiko jarrera positiboa eta aktiboa sustatu, ikaste-esperientzia positiboak bultzatuz.
   - Lanean antolamendu-ohiturak eta iraunkortasuna sustatu.
   - Ikaslearen autoestimua (pertsonala, eskolan, gizartean) indartu.
   - Familiak seme-alaben hobekuntza akademikoan inplikatu.

2. Irakasleen lan koordinatua planifikatzea eta familien parte hartzea bermatzea, ikaslearen laguntza beharrei erantzun ahal izateko.

**Hezkuntza berariaz sendotzeko proiektua (HBSP)** [15]

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek gauzatu dezakete, Hezkuntza Sailean aurkeztu eta onetsi ondoren. *DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat dira, gizarte edo kultura-egoera ahulean daudenean edo eskola-egokitzeko arazo larriak dituztenean*. Proiektua ingurune arruntetan gauzatzen da, eta helburu inklusiboarekin.

**Eskolatze osagarriko programak (EOP)**[16]

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna arautzen duen 118/1998 Dekretuak, ekainaren 23koak, eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan, bere 23 eta 24. artikuluetan xedatzen du hezkuntza administrazioak ohiz kanpoko egoerei aurre egiteko eskolatze osagarriko programak abian jar ditzakeela.

Programa horietan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aldi baterako sartu ahal izango dira, hezkuntzako laguntza-zerbitzuen proposamenen ondorioz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako marko orokorreko ohiko neurriak nahikoak ez direnean. Programen

[14] Eusko Jaurlaritza (2012): *Hezkuntza-indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientabideak oinarrizko hezkuntzan.* http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120011e_Pub_EJ_plan_refuerzo_basica_e.pdf

[15] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_5614/refuerzo_educativo_especifico.html

[16] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_5614/g2_e.html

helburua eskolara moldatzeko ezintasun larriko egoeretatik eratorritako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei jarrera positiboak garatzen laguntzea da, hala nola hezkuntza-prozesuarekiko jarrera, ikaskideekikoa, irakasleekikoa, eta gizarte-ingurunearekiko. Horien bidez, egokitzapen pertsonal eta sozialerantz aurrera egingo du, eta DBHn finkatutako helburuak, ahal den neurrian, lortu ahal izango ditu.

Hezkuntza-neurri berezia da, egoera pertsonal edo sozialagatik, horrelako hezkuntza-erantzuna behar duten ikasleei egokitzapen pertsonalerako aukera eskaintze diena. Aldi baterako neurriak dira, helburua hezkuntza-sistema arruntera ahalik lasterren berriro sartzea baita. Neurri berezia da, espero ziren emaitzak lortu ez direnean hartzen dena, hezkuntzaren aldetiko prebentzio-neurriak eta curriculumaren aldetiko beste neurri batzuk, egoki diseinatu eta planifikatutakoak, ohikoak eta ohiz kanpokoak, hartu ondoren.

### Curriculum anitzeko programak [17]

Curriculum anitzeko programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratzera bideratuta daude. Etapako oinarrizko helburuak eta konpetentziak lortzeko curriculumaren antolamendu berezia (edukiak, jarduerak, materialak) eta berariazko metodologia behar duten ikasleentzako programak dira. Ikasleei ebaluazio bat egiten zaie programan sartu baino lehen, eta ikastetxeek Hezkuntza Sailaren baimena behar dute programa abiarazteko.

Programa horietako ikasleek gutxienez 18 eskola-ordu izango dituzte hizkuntza-gizartea eta zientzia-teknologia esparruetan, ikastetxeak erabakitzen dituen arloak barne. Gainerako arloak ikastalde arruntetan (hiru arlo gutxienez) edo berariazko taldeetan. Berariazko taldeak direnean, esparruko irakasle bat edo batzuk arduratuko dira ikasle horien banakako tutoretzarekin (astean bi ordu gutxienez).

Proposamena aurkeztu eta onetsia izan ondoren, ikastetxeak programa modu integratuan antolatu ahal izango du, hau da, programako ikasleek arlo guztiak ikastalde arruntetan ikasi ahal izango dituzte.

Programa horietan curriculuma esparruen arabera, jakintza-alorrarteko proiektuen arabera edo jakintza-arloen arabera antolatu daiteke; nolanahi ere, ikastetxeak erabakiko du curriculum anitzeko ikasleek oinarrizko konpetentziak eskuratzeko behar duten ikasgelako laguntza zein arlotan eta noiz gauzatuko den. Horrez gain, irakasle taldeak erabakiko du banakako tutoretzen ardura nork hartuko duen eta noiz egingo diren.

[17] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_5614/programas_diversificacion_curricular.html

**HAMAIKA ESKU programa**[18]

Programa instituzionala da eta bere helburua ikastetxeetan egiten diren kanpoko ebaluazioetan (PISA, ebaluazio diagnostikoa) hasierako errendimendu-mailan dauden ikasleen ehunekoa murriztea da. Programaren bidez ikasleek konpetentzietan duten errendimendu-maila igo nahi da, eta horretarako lehen fase batean emaitzen baheranzko joera aldatu nahi da, eta gero, ikasleen emaitzak hasierako mailatik erdiko mailara igotzea.

Programa aurrera eramateko ikasleen hezkuntzarekin zerikusia duten hainbat agenteren inplikazioa behar da, hala nola

- Ikastetxea, hezkuntzaren ohiko ingurune gisa
- Familiak, esparru ez-formaletik jarduteko ezinbesteko lokarria
- Hezkuntza administrazioaren unitateak eta zerbitzuak (laguntza-zerbitzuak, Ikuskaritza, ISEI-IVEI…)
- Eusko Jaurlaritzaren sailak (Osasuna, Gizarte Politika…)

Programak zenbait prozedura eta estrategia bultzatzen ditu honako helburu hauek lortzeko:

- Ikasleen emaitzak hobetzea eta emaitzen joera negatiboa hiru ikasturtetan aldatzea.
- Konpetentzietako errendimendu-maila baxuetako ikasleen ehunekoa erabat murriztea.
- Hamaika Esku programa aurrera ateratzeko ezinbestekoa da ikastetxe osoaren konpromisoa, zuzendaritza taldeak bultzatua.

**Kulturarteko dinamizazioa eta hizkuntza-errefortzua** [19]

Gure ikastetxeetako aniztasun kulturalak hobekuntza batzuk eskatzen ditu ikastetxeetako hezkuntza-jardueran. Kurturarteko hezkuntza-erantzun inklusiboak bi gauza eskatzen ditu: alde batetik, kulturen arteko harreman eta truke aberasgarria bultzatzea, eta bestetik, kultura guztietako ikasleentzako (maioritarioak eta minoritarioak) aukera-berdintasuna sustatzea, gizarte konplexu eta anitzean sartzeko eta gaituak izateko behar dituzten baliabideak emanez.

Ikastetxeek bi motatako baliabideak izango dituzte: kulturarteko proiektuaren irakasle dinamizatzailea eta hizkuntza-errefortzuko irakaslea.

**Kulturarteko dinamizazioa**

2013-2014 ikasturtean Lehen Hezkuntzako ikastetxeek (ikasle etorkinen ehunekoa % 20 baino handiagoa bada) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek (% 12 baino handiagoa bada), aurreko hiru urteetan baliabide hori izan ez badute, plantilaren gehikuntza izango dute (1/2 irakasle dinamizatzailea) kulturarteko dinamizazioa gauzatu ahal izateko.

[18] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120015e_Pub_EJ_hamaika_esku_laburpen_e.pdf

[19] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/dig2/eu_5614/adjuntos/atencion_diversidad_2013_2014/interculturalidad/prl_pub_1314_eusk.pdf

Dinamizazioaren xedea ikastetxeetan kultura-aniztasunari buruzko gogoeta egitea da, eta, baita ere, horren inguruko jarduerak hobetzea. Ikastetxea testuingurua aldatzeko prozesuan sartuta baldin badago, xedea baliabideak elkartzea eta optimizatzea da.

**Hizkuntza-errefortzua**

Lehen Hezkuntzako eta Derigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek hizkuntza-errefortzurako baliabide berezia (irakaslea) izango dute alde batetik, hizkuntza-errefortzua behar duten ikasle etorri berriei (2012/01/01etik aurrera) laguntza emateko, eta bestetik, leku-aldatzearen ondorioz B edo D eredura sartzen diren ikasleei laguntzeko.

Hizkuntza-errefortzuaren helburuak honako hauek dira:

- Euskadiko hezkuntza-sistemara etorri berri diren ikasleei eskola-ingurunean ahalik lasterren eta ahalik eta baldintzarik onenetan sartzen laguntzea.
- Ikasle horiei irakas-hizkuntzan –edo hizkuntzetan– hizkuntza eta komunikaziorako trebetasunak garatzen laguntza berezia ematea, curriculumean behar diren aldaketak eginez.

## 2.4 Irakasleentzako prestakuntza-planak

Hezkuntza-sisteman edozein aldaketa egiteko ezinbestekoa da irakasleen gaitasuna. Gaitasun hori hasierako prestakuntzarekin hasten da, hautaketa-prozesuarekin jarraitu eta etengabeko prestakuntzarekin bukatzeko. Dirudienez, etengabeko prestakuntza eraginkorra izateko, praktikoa izan behar da, ikasgelako lanera bideratua eta datuetan oinarritua.

Jarraian, asmo agortzailerik gabe, gure hezkuntza-sisteman antolatu diren prestakuntza-planen bilakaera azaltzen da, oraingo deialdiekin batera, batzuk bikaintasuna lortzeari lotuak.

### 2.4.1 Prestakuntza ikastetxean

Oraingo 2014-2015 ikasturtean bi deialdi egin dira hezkuntza-bikaintasunaren inguruko prestakuntza-jardueretarako (ikastetxe publikoak, itunpekoak eta pribatuak)[20].

» Ebazpena, 2014ko uztailaren 2koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mende dauden eta Heziketa Ziklorik ez eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ematen duen ikastetxeei dei egiten diena Prestakuntza Proiektuak egin ditzaten Hezkuntza Bikainera bidean 2014-2015 ikasturtean. (470 kb.)

» AGINDUA, 2014ko urriaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena; honen bidez, unibertsitatez kanpoko ikasketak –heziketa-zikloak izan ezik– ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei dei egiten zaie hezkuntzaren bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten, 2014-2015 ikasturtean. (267 kb.)

[20] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dib6/eu_2037/b6_formac_innova_plantilla_e.html

### 2.4.2 Prest Gara[21] [22]

*AGINDUA, 2014ko maiatzaren 12koa, Hezkuntza, Politika eta Kultura sailburuarena;honen bidez, Prest Gara 2014-2015 Planaren barruan EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasleek prestakuntza- eta hobekuntza-jardueretan parte hartzeko baldintzak ezartzen dira..*

Prest Gara hezkuntza-komunitate osorako, ez irakasleentzako bakarrik, proposamen ireki bezala abiarazi da. Irakasleen prestakuntzan jauzi handi bat izan da, arreta pertsonarengan jartzetik ikastetxe osoan jartzera. Ikastetxearen berrikuntza-beharrei erantzun nahi die, hezkuntza-eskaintza diseinatzerakoan lehentasuna hartzen duena, eta prestakuntza-prozesu osoaren azken helburua ikasleak eta haien konpetentziak dira. Prest Gara plana 2014-2015 ikasturtean jarri da abian.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak, Prest Gara planaren barruan, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen prestakuntzarako urteko plana egin du. Prestakuntza-planaren helburua irakasleei prestakuntzarako aukerak eskaintzea da, euren gaitasun profesionala hobetzeko, baina prestakuntzak ikastetxean eta oro har hezkuntza-sistema osoan egiten den irakaslanean izan behar duen eragina azpimarratuz eta lanean dihardute irakasleen eskariak ahaztu gabe. Ildo horretatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestakuntza egitea erabakitzen duten irakasleei konpromisoa eta erantzukizuna eskatzen die ikasitakoak ikasgelako irakaslanean isla izan dezan eta ikastetxean eragin zuzena izan dezan hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko.

Prestakuntza garrantzi handikoa da, hezkuntza-sistemaren **ekitatea eta bikaintasuna** lortzeko bidea errazten baitu, azken finean hezkuntzaren esparruko prestakuntza eta berrikuntzaren jasotzailea ikaslea delarik.

### 2.4.3 Prestakuntza eta berrikuntza-planen bilakaera

Ikastaroak zenbait kasutan ikastetxean bertan gauzatzen dira, beste batzuetan Sailak Garatu planaren bidez eskaintzen ditu, eta beste batzuetan beste erakunde batzuek antolatutakoak izaten dira, ikastaro horietan parte hartzeko diru-laguntzetarako deialdia izaten delarik. Zonalde bakoitzeko Berritzeguneak ere bere prestakuntza-ikastaroak eta mintegiak antolatzen ditu..

**PRESTAKUNTZA EKINTZEN BILAKAERA [23]**

| | 2007-08 | 2008-09 | 2009-10 | 2010-11 | 2011-12 |
|---|---|---|---|---|---|
| Berrikuntza proiektu globalak | 51 | 42 | 30 | 18 | - |
| Berrikuntza ekintzak edo proiektuak | 1320 | 1041 | 1050 | 1215 | 487 |
| Prestakuntza proiektuak | 645 | 795 | 782 | 709 | |
| Trukeak | 78 | - | - | 95 | - |
| Eleaniztasuna. Hizkuntza-proiektuak* | - | 31 | - | 94 | 157 |
| Kalitateko proiektu pilotuak | 55 | 61 | - | - | - |

*2011n *MET(39), Comenius(40) eta Eleaniztasuna(15)* proiektuak sartzen dira. *Atzerriko hizkuntza ikasteko (40)* prestakuntza ikastetxean.

[21] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/die11/eu_2070/ofertacursos_garatu_actual.html
[22] http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/eu/bopv2/datos/2014/05/1402253e.pdf
[23] **EuskadiKO Eskola Kontseilua. EUSKADIKO HEZKUNTZARI BURUZKO TXOSTENAK, 2008-2010 eta 2010-2012.** IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA IKASTETXEETAN

**BERRITZEGUNEEK ANTOLATUTAKOEN ARTEAN ESKARIRIK HANDIENA IZAN DUTEN IKASTAROAK**

| | 2008-09 | 2009-10 | 2010-11 | 2011-12 |
|---|---|---|---|---|
| IKT. Eskola 2.0 (1) | 24 | 128 | 92 | 96 |
| Hezkuntza Premia bereziak | 66 | 51 | 50 | 48 |
| Lidergoa eta kudeaketa prozesuak | 4 | 28 | 17 | 18 |
| Bizikidetza eta hezkuntza-komunitatea(2). Bizikidetza | 29 | 32 | 15 | 16 |
| Bizikidetzarako, bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza | 20 | 22 | - | - |
| Curriculum berria eta oinarrizko konpetentziak | 54 | 76 | - | - |
| Hizkuntzak | 14 | 40 | - | - |
| Hinkuntza normaltasuna | - | - | 7 | 19 |
| Kulturartekotasuna eta ikasle iritsi berrien integrazioa | 12 | 12 | | |
| Gizarte eta kultur anitza | - | - | 22 | 21 |
| Zientzia hezkuntza | 13 | 15 | - | - |
| Haur hezkuntza | 11 | 11 | - | - |

1. 2011-12 ikasturtetik aurrera
2. 2008tik 2010era

**BERRITZEGUNEEK ANTOLATUTAKOEN ARTEAN ESKARIRIK HANDIENA IZAN DUTEN MINTEGIAK**

| | 2008-09 | 2009-10 | 2010-11 | 2011-12 |
|---|---|---|---|---|
| IKT. Eskola 2.0 (1) | 37 | 33 | 40 | 76 |
| Hezkuntza Premia bereziak | 35 | 34 | 29 | 29 |
| Zuzendaritza taldeen prestakuntza | 19 | 18 | - | - |
| Eskola-lidergo eta zuzendaritza prozesuak | 7 | 16 | 37 | 35 |
| Bizikidetza | - | - | 8 | 12 |
| Bizikidetzarako, bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza | 11 | 16 | - | - |
| Curriculum berria eta oinarrizko konpetentziak | 17 | 25 | - | - |
| Hizkuntzak | 4 | 14 | - | - |
| Hinkuntza normaltasuna | - | - | 24 | 26 |
| Atzerriko hizkuntzak | 12 | 14 | - | - |
| Kulturartekotasuna eta ikasle iritsi berrien integrazioa | 16 | 18 | - | - |
| Gizarte eta kultur anitza | - | - | 20 | 38 |
| Orientazioa | 8 | 13 | - | -- |

## 2.5 Ikastetxeetako zuzendaritzen ebaluazioa.[24]

Hezkuntza Ikuskaritzak 2011-12 ikasturtetik ebaluazio orokor bat egiten du, askotariko aspektuak hartzen dituena, hala nola, antolamendua, parte hartzea, eskola-giroa, beste ikastetxeekiko lankidetza, plangintza eta kudeaketa. Guztien artean LIDERGO PEDAGOGIKOA nabarmentzen da.

24 http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_liderazg/adjuntos/200010e_Pub_BOPV_Orden_eval_direccion_e.pdf

Beste alde batetik, 2009-2013 aldian izendatutako zuzendarien ebaluazioa egin du. 2012-13 ikasturtean 2009an 4 urtetarako izendatutakoen (174) ebaluazioa egin da. Horien artean aldiaren bukaeran 139 zeuden karguan (% 20,1ek utzi zuen). Ebaluazioa honako bost dimentsioetan oinarriturik egin zen:

- 1. dimentsioa: Xedeen definizioa eta esku-hartze estrategikoak
- 2. dimentsioa: Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua
- 3. dimentsioa: Lidergo pedagogikoa
- 4. dimentsioa: Barneko eta kanpoko agenteen parte-hartzea eta lankidetza
- 5. dimentsioa: Ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa

Dimentsio bakoitzerako 4 garapen-maila finkatu ziren, ez-nahikotik (1) bikainera (4).

Ebaluatutako zuzendaritzen artean % 99,3k balorazio positiboa izan zuen, hau da, gutxienez 2. maila (egokia) lortu zuten dimentsio guztietan. Gainera, balorazio positibo gehienak 3. mailan bildu ziren (garapen oso egokia) modu nabarian, eta 4. mailan estatistikoki espero zitezkeenak baino balio handiagoak egon ziren.

Baloraziorik onena 2. dimentsioak izan zuen (Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua), eta baloraziorik apalena 5. dimentsioak izan zuen (Ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa). Beraz dimentsio hori sakonkiago landu beharko da etorkizuneko zuzendaritza taldeetan.

## 3. EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMAREN HELBURUA

### 3.1 Ekitatearen eta bikaintasunaren arteko erlazioa Euskadin

Lehen aipatu den bezala, Euskadiko hezkuntza-sistemaren indarguneetako bat bere ekitatea da, eta bere ahulguneetako bat ikasleen bikaintasun falta. Ondorengo grafikoan ekitatearen eta bikaintasunaren arteko erlazioa azaltzen da PISA 2012 ebaluazioan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetan.

Hezkuntza-sistemaren ekitateari dagokionez, Euskadi bosgarren tokian dago. Ikasleen % 74 daude errendimendu-maila ertainetan, eta beraz, ekitate handiagoa du ELGAko herrialdeetako batez bestekoa (% 64,4) baino. Hala ere, bikaintasunari dagokionez, ELGAko batez bestekoaren azpitik dago. Euskadin *Matematikarako konpetentzia*ko 5. eta 6. errendimendu-mailetan ikasleen % 10,4 dago, eta ELGAko herrialdeetan batez beste ikasleen ehunekoa handiagoa da (% 12,6). Euskadin helburu bezala planteatzen da bikaintasun maila igotzea da, baina ekitatean galtzeko arriskua hartu gabe, ELGAko herrialdeetan zenbat eta bikaintasun handiagoa, hainbat eta ekitate txikiagoa izateko joera ikusten baita.

**PISA 2012. *Matematikarako konpetentzia*. Ikasleen ehunekoa bikaintasun mailetan (5 y 6) eta Perzentil 95 eta 05 distantziaren arteko erlazioa**




Aurreko grafikoan ardatz horizontalak bikaintasun mailan dauden herrialdeetako ikasleen ehunekoa adierazten du (altuena, % 30,9, Koreak du). Euskadin ikasleen % 10,4 daude maila horretan.

Ardatz bertikalak 05 pertzentilaren (puntuaziorik apaleneko ikasleen % 5) eta 95 pertzentilaren (puntuaziorik altueneko ikasleen % 5) arteko aldea erakusten du. Euskadin bi pertzentilen arteko aldea 277 puntukoa da. Hezkuntza sistemen ekitatearen neurrietako bat da hori.

Euskadi goiko aldeko ezkerreko koadrantean dago, Kanada baino ekitate maila altuagoarekin, baina bikaintasuna areagotu beharrarekin. Estoniak bakarrik du batera Euskadik baino ekitate eta bikaintasun maila handiagoa.

Goiko aldeko eskuineko koadrantean bikaintasun mailan ikasleen ehuneko handia eta ekitate maila ona duten herrialdeak daude. Finlandiak Euskadik baino ikasle bikainen ehuneko handiagoa du, baina ekitate maila baxuagoa.

Erregresio-lerroak (lerro gorria) erakusten du hezkuntza-sistema batean bikaintasuna zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta ekitate txikiagoa izaten dela. Erronka bikaintasun maila altuagoa lortzea da, baina ekitatea galdu gabe.

## 3.2. Eredu orekatua ekiatearen eta bikaintasunaren artean

Ondorengo grafikoetan bikaintasunaren gehikuntzaren bi eredu aurkezten dira. Lehenengoan ekitate galera bat gertzten da; bigarrenean, hala ere, ikasle guztiak hasierako mailetatik goragoko mailetara mugitzen dira.

Euskadin PISA 2012 ebaluazioan *Matematikarako konpetentzia*ko batez besteko puntuazioa 505 izan da. Beheko mailako ikasleen ehunekoa (5 pertzentila) % 15,5 izan da, eta goiko mailakoa (95 pertzentila), % 10,4.

**Ikasleen ehunekoa 5 eta 95 pertzentiletan *Matematikarako konpetentzian***







Jarraian autonomia erkidegoetatik hartutako adibide errealak aurkezten dira. Lehenengoan bikaintasun milako ikasleen ehunekoa Euskadikoa baino altuagoa da, baina beheko mailako ikasleen ehunekoa ere altuagoa da, hau da, errendimendu-maila apaletan ikasle gehiago dago. Batez bestekoa Euskadikoa bezainbestekoa da, baina bikaintasun mailako ikasleen ehunekoaren gehikuntzak berekin dakar, alderdi negatibo gisa, beheko mailetako ikasleen ehunekoaren gehikuntza.

Eredu horretan bikaintasuna ekitatea galtzearen truke irabazteko arriskua errealitate bihurtzen da.







Proposatzen diren hobekuntza-neurrietan planteatzen dena Nafarroako ereduaren antzekoa da (hurrengo grafikoa), igoera, ekitatea galdu gabe, pertzentil guztietan gertatzen baita, hau da, errendimendu bikaineko ikasleen ehunekoa igotzen da, baina aldi berean errendimendu apaleko ikasleen ehunekoa jaitsi egiten da. Konpetentzia orokorra ere, jakina, igo egiten da.







Horrelako hobekuntza batek baliabide gehigarriak eskatzen ditu, zeren zailtasunak dituzten ikasleen baliabideak gaitasun handiko ikasleei ematen bazaizkie, bikaintasuna ekitatearen kaltetan hobetzeko arriskua oso handia bailitzateke.

## 4. MCKINSEY TXOSTENA. HEZKUNTZA-SISTEMEN HOBEKUNTZAREN FASEAK.

McKinsey txostenak (2010)[25] erakutsi du hobera egiten duten sistema guztiek, errendimendu-maila batetik goragokora igotzeko, antzeko neurriak finkatzen dituztela, kultura, lekua, politika edo historia edozein delarik ere.

Hartara, bada neurri multzo trinko bat sistemak "pobreak" izatetik "onargarriak" izatera igarotzea lortzen duena; bigarren neurri multzo batek sistemak "onak" izatera eramaten dituena; hirugarren multzoak "oso onak " izatera eramaten ditu; eta beste batek "bikainak" izatera eramaten ditu.

"Pobre-onargarri" eta "onargarri-on" etapetan dauden hezkuntza-sistemen erronka nagusia errendimendua irakasmailetan eta ikastetxeetan sakabanatzea minimizatzea da. Horretarako, prestakuntza gutxien duten irakasleei kalitate handiko irakasmaterialak eta ikasketa-planak, eguneroko lanerako orientazio zehatzekin, ematen zaizkiela bermatu behar da. Hala ere, prestakuntza handiagoa lortzen dutenean, hobekuntzaren "on-oso on" eta "oso-on-bikain" etapetan gertatzen den bezala, gehiegizko kontrola ez da onuragarria izaten sistemaren hobekuntzarako. Kasu horretan, hobekuntzaren motorrak ikastetxe mailako malgutasuna eta irakasleen arteko lankidetza izaten dira, ikaste-irakaste prozesuan berrikuntzak sortzen dituztelako. Ikastetxeak berrikuntza horietatik ikasten du, eta ondoren sistemako beste ikastetxe batzuetan erabiltzea sustatzen du. Prestakuntza handiko irakasleek irakasteko malgutasuna eta askatasuna behar dute, berrikuntzak egin ahal izateko eta profesional bezala motibaturik sentitu ahal izateko.

Ondoren, eskema[26] horretan oinarriturik eta fase bakoitzeko neurrien garapena kontuan izanik, Euskadi zein etapatan dagoen aztertzen da.




Errendimendu-maila bakoitza neurri multzo jakin batekin identifikatzen bada ere, alde handiak izaten dira sistemek neurri horiek ezartzeko (sekuentzia, denbora…) duten moduen artean.

---

25 McKinsey (2010): http://www.ceibal.org.uy/docs/PREALDOC61V.pdf

26 Mckinsey (2012): *Educación en España: motivos para la esperanza.*

## 4.1 Euskadiko hezkuntza-sistemaren egoera, Mckinsey txostenaren egitura erreferentzia bezala hartuta

Euskadik PISA 2009 ebaluazioan *Matematikarako konpetentzia*n izan zuen puntuazioa (494)eta bere hezkuntza-sistemaren ezaugarriak azterturik, **Euskadiri "on-oso on" etapara igarotzeko neurriak hartzea egokituko litzaioke**, baina sistema ez dela monolitikoa eta ikastetxeek, bakoitza bere ezaugarriekin, osatzen dutela kontuan hartzen badugu, hartu beharreko neurriei buruzko erabakia abiapuntu-egoerari lotua izan beharko da.

Izan ere, ondorengo grafikoak erakusten du ikastetxeen banaketaren bilakaera, emaitzen eta McKinseyk proposatutako puntuazioen arabera, 2003tik 2012ra positiboa izan dela.




- "Pobre-onargarri" etapan egongo liratekeen ikastetxeen ehunekoa jaitsi da. Hala ere, ikastetxeen % 17,2an "onargarri-on" etapara igarotzeko neurriak hartu beharko lirateke.
- "Onargarri-on" etapako ikastetxeen ehunekoa ere jaitsi da. Ikastetxeen % 31 egongo litzateke etapa horretan.
- "On-oso on" etapan egongo liratekeen ikastetxeen ehunekoa igo egin da % 37,9raino.
- "Oso on-bikain" etapako ikastetxeen ehunekoa igo egin da% 14raino.

Informazio horren arabera ikastetxeen % 70 "onargarri-on" eta "on-oso on" etapetan egongo lirateke.

Ikastetxeen banaketaren bilakaera *Zientziarako konpetentzia*n I. eranskinean azaltzen da. *Matematikarako konpetentzia*n, azken PISA ebaluazioaren gai nagusia, ikastetxeen banaketaren bilakaera, PISA ebaluazioko puntuazioen arabera, honako hau da:




Kontuan hartu beharrekoa da errealitatea anitza dela eta ez dagokiola hitzez hitz etapa bakoitzaren definizioari. Zenbait aspektutan agian "onargarri-on" etapako neurriak azpimarratu beharko lirateke, eta beste batzuetan, hala ere, "oso on-bikain" etapako neurri batzuk hartu beharko lirateke. Edozein plan garatzerakoan, gainera, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten ikastetxeen errealitate anitzak hartu behar dira kontuan, hala nola geruza (hezkuntza-sarea eta irakasteredua) edo ikastetxeen maila sozio-ekonomiko eta kulturala, eta abar.

## 4.2. Bikaintasunerako faseak (McKinsey)

***"Onargarri-on" etapa: sistemaren oinarriak sendotu***

Errendimendu oneko sistema guztiek eskolatzearen hasierako urteetan arreta bi arlotan jartzen dute: alfabetatzea (hizkuntzak) eta aritmetika. "Onargarri-on" etapako hezkuntza-sistemek, bi arlo horietan oinarrizko mailak lortu ondoren, ikasleen trebetasunen kalitatea hobetzea bilatzen dute. Aurre egin behar dioten arazo nagusia euren sistemaren oinarriak nola taxutu izaten da, oinarrien barnean datuen jarraipenerako sistema, irakasleek kontuak ematea, finantzaketa, antolamendua eta pedagogia sartzen direlarik. Oinarri horiek ezinbestekoak dira hezkuntza-sistemek jarraipena egiteko eta errendimendua hobetzeko behar dituzten informazioa, baliabideak eta egiturak eskura ditzaten.

"Onargarri-on" etapan garrantzi handia ematen zaio ikasleen ebaluazioa sistema osorako finkatzeari. Etapa horretan datuak oso garrantzitsuak dira bi arrazoirengatik:

- Hezkuntza-sistemako agintariei aukera ematen diete ikasleen emaitzak hobetzen ari diren ala ez jakiteko, eta, horretan oinarrituta, premia handia duten arloei arreta eta baliabideak emateko.
- Hezkuntza-sistema osoko irakasleek ikasleen emaitzak hobetzeko erantzukizuna hartzen dute, eta ondorioz sistemaren kultura aldatzen da.

**"ONARGARRI – ON"**

| Gaia | Deskribapena | Neurrien adibideak |
|---|---|---|
| Oinarria: datuak eta kontu-ematea | **Gardentasuna eta kontu-ematea**: Hezkuntza-sistemak finkatzen ditu ikasleen ebaluazioak eta eskola-ikuskapenak ikasleen errendimenduari buruzko datu fidagarriak lortzeko eta ikastetxeak hobekuntzaren erantzukizuna hartzeko.<br>**Hobekuntza-arloak**: Hezkuntza-sistemak datuak errendimendu apaleko arloak (adib. irakasgaiak, irakasmailak, generoa) identifikatzeko eta konponbideak aurkitzeko erabiltzen ditu. | Ikasleen ebaluazioa.<br>Ikastetxeetako errendimenduaren gardentasuna beste ikastetxeen aurrean edota publikoaren aurrean.<br>Ikuskapenak ikastetxeetan eta Ikuskaritza zerbitzua. |
| Oinarria: finantzaketa eta antolamendua | **Antolamendu-egitura**: Hezkuntza-sistemak pausuak ematen ditu ikastetxe-sareari egitura eta gobernu egokia emateko eta, horren arabera, erabakiak hartzeko eskumenak definitzeko.<br>**Finantza-egitura**: Hezkuntza-sistemak funtsak ikastetxeetan banatzeko mekanismo eraginkorra eta bidezkoa finkatzen du. | Ikastetxeen eta irakasleen kopurua optimizatzea.<br>Finantza eta administrazio-eskumenak deszentralizatzea.<br>Finantzaketa hobetzea eta banaketa-eredua aldatzea.<br>Antolamendua berregituratzea. |
| Oinarria: Pedagogia | **Ikaste-eredua**: Hezkuntza-sistemak ikasleen gaitasunak hobetzearekin bat datorren ikaste-eredu bat hautatzen du, eta eredu berrirako behar diren materialak (adib. gutxieneko mailak, curriculuma, testuliburuak) diseinatzen ditu. | Hezkuntza-eredua (ikasleak zenbat urte ematen duen etapa bakoitzean).<br>Ikasleak errendimenduaren arabera eta interes akademikoen arabera mailakatzea eta ibilbideak finkatzea.<br>Irakas-hizkuntza. |

*McKinsey txostena, 2010. Espainierazko bertsioa, PREAL, 2012*

### *“On-oso on” etapa: irakasle lanbidea aldatzea*

Behin hurrengo etapako oinarriak ezarriz gero, sistemak irakasleen profesionalizazioan jartzen du arreta. Hezkuntza-sistemaren hobekuntzarako bidearen oinarria etapa horretan irakasleek ikaste-irakaste errutinak jarraitzeko duten zehaztasuna da. Hobekuntzarako bidearen aurreko etapetako arrakasta, hein handi batean, sistemaren eta irakasleen kontrol zentral zehatzean oinarritzen zen, baina “On-oso on” etapan hezkuntza-sistema etengabeko hobekuntza sustatzeko irakasleen balioetan eta jokabidean oinarritzen hasten da. Horretarako, “on-oso on” etapan dauden hezkuntza-sistemetan, ikastetxeak neurri multzo bat hartzen du irakasleen lanbideak beste lanbide batzuek, adibidez medikuntzak edo abokatutzak, duten gizarte-prestigioa izan dezan.

**“ON – OSO ON”**

| Gaia | Deskribapena | Neurrien adibideak |
|---|---|---|
| Irakasle eta zuzendari berrientzako eskakizun maila igotzea | **Kontratazioa**: Hezkuntza-sistemak irakaslegaientzako eskakizun maila igotzen du.<br>**Prestakuntza eta sarbidea**: Hezkuntza-sistemak aurre-prestakuntzaren kalitatea eta prestakuntza-eskakizunak igotzen ditu. | Kontratazio-programak.<br>Aurretiazko prestakuntza.<br>Prestakuntza-eskakizunak |
| Lanean diharduten irakasleen eta zuzendarien maila profesionala igotzea | **Garapen profesionala**: Hezkuntza-sistemak garapen profesionalaren aldetiko eskakizunak igotzen ditu; prestakuntzarako (auto-prestakuntza, lankideen artekoa edo erakundeek antolatutakoa) eta garapenerako aukerak gehiago eskaintzen ditu.<br>**Irakaslanerako entrenamendua**: Coach-ek, entrrenatzaileek, irakasleekin lan egiten dute euren trebetasunak zenbait arlotan indartzeko, hala nola eskolak planifikatzea, ikasleen datuen analisia eta ikasgelako pedagogia.<br>**Ibilbide profesionalak**: Hezkuntza-sistemak irakasleentzako eta zuzendarientzako espezializazioak finkatzen ditu ibilbide profesionalen bidez; ibilbideetan mailak igo ahala itxaropenak –eta ordainsaria– ere igotzen dira. | Ordutegi barruko prestakuntza-programak.<br>Ikastetxe mailako entrenamendua.<br>Irakasleen komunitateko foroak. |
| Erabakiak ikastetxean hartzea | **Auto-ebaluazioa**: Hezkuntza-sistemak hobekuntzarekiko erantzukizuna eta ardura sustatzen ditu ikastetxeetan, auto-ebaluazioa sartzearen bidez eta errendimenduari buruzko datuak eskuragarriago jartzearen bidez.<br>**Malgutasuna:** Sistemak ikastetxeei aukera ematen die ikasleentzako egokiak diren programa espezializatuak gauzatzeko; pedagogiaren ardura gero eta gehiago deszentralizatzen du. | Auto-ebaluazioa.<br>Errendimenduari buruzko informazioa jakinaraztea.<br>Ikastetxe espezializatuak eta independenteak |

*McKinsey txostena, 2010. Espainierazko bertsioa, PREAL, 2012*

### *“Oso on-bikain” etapa: lankideen arteko laguntzaren bidez eta irakaskuntzaren berrikuntzaren bidez hobetzea*

“Oso on-bikain” azken etapan, hezkuntza-sistemak ahalegintzen dira irakasleen eta beste alderdi interesdunen sormena eta berrikuntza askatzen duen ingurunea sortzen. Hobekuntza-bidearen etapa honetan, sistemako irakasleak gaitasun handikoak dira, eta partekatutako errutina eta jardunbide multzo bat erabiltzen dute, euren eguneroko lanean bere-berezko bilakatu dena. “Oso on-bikain” etapako neurri-multzoaren helburua irakasleek lankideen garapen profesionalaz duten erantzukizuna handitzea da; sistemek irakasleei, ikasleen ikaskuntza hobeto laguntzeari begira, ideia berriez gogoeta egiteko eta ideia horiek abian jartzeko behar dituzten denbora, baliabideak eta malgutasuna ematen dizkiete.

Sistemaren errendimenduak hobera egin ahala, garapen profesionala urrundu egiten da erakundeek emandako prestakuntza tekniko ofizialetik lankideen arteko lankidetzara eta garapenera hurbiltzeko. Munduko batez bestekoa baino errendimendu altuagoa duten sistemetan ez da goitik behera ezarritako irakaskuntza idatzirik erabiltzen. Sistemaren errendimendua igo ahala, kontu-ematea ere zabaldu egiten da, erakundeek finkatutako ikasleen ebaluazio estandarizatutik ikastetxeen eta irakasleen autoebaluazioa ere sartzera igarotzen delarik. Ikasleen emaitzen hobekuntza lortzeko, errendimendu apaleko sistemak “lurzorua igotzen” ahalegintzen dira, baina errendimendu altuko sistemak “sabaia irekitzen” ahalegintzen dira.

**“OSO ON – BIKAIN”**

| Gaia | Deskribapena | Neurrien adibideak |
|---|---|---|
| Irakasle eta zuzendari berrientzako eskakizun maila igotzea | **Prestakuntza-taldeak**: Sistemak ikastetxe barruko prestakuntza-taldeak eratzea errazten du, lankideen arteko laguntza eta kontu-ematea sortzeko.<br>**Malgutasuna**: Hezkuntza-sistemak autonomia pedagogiko handiagoa ematen die errendimendu handiko irakasleei.<br>**Txandaketa**: Sistemak irakasleak txandakatzen edota trukatzen ditu ikastetxeen artean prestakuntza eta irakasteko estilo ezberdinak zabaltzeko. | Irakasleen arteko lankidetza eta elkarlana.<br>Pedagogia-eskumenak ikastetxeen eta irakasleen eskuetara deszentralizatzea<br>Ikastetxeen arteko txandaketak eta zerbitzu eginkizunak eratzea, eta baita hezkuntza- administrazioaren eta ikastetxeen artekoak ere. |
| Profesionalentzako laguntza-mekanismo gehigarriak | **Bultzada**: Hezkuntza-sistemak administrazio-langileak esleitzen ditu ikastetxeetan, irakasleek eta zuzendariek arreta pedagogian eta lidergoan jar dezaten administrazio-lanetan jarri beharrean. | Administrazio-langile gehiago esleitzea. |
| Sistemak sustatutako berrikuntzak ikastetxeetara zabaltzea | **Berrikuntzak hezkuntza-komunitatean**: Hezkuntza-sistemak ikastetxeetan jardunbide berritzaileak sustatzen eta identifikatzen ditu (ikaste/irakaste-jarduerak, gurasoen edota komunitatearen parte-hartzea handitzeko jarduerak eta abar); ondoren berrikuntzak ikastetxeetara zabaltzeko mekanismoak finkatzen ditu. | Ikastetxeetako berrikuntzak partekatzea.<br>Berrikuntzak finantzatzea. |

*McKinsey txostena, 2010. Espainierazko bertsioa, PREAL, 2012*

### 4.3. Esku-hartzeko alderdien deskribapena. Eztabaidarako proposamenak

2. atalean deskribatu dugun Euskadiko hezkuntza-sistemaren errealitatetik abiaturik, gure hezkuntza-sistemako agenteekin batera erkatu eta hausnartu ahal izateko garrantzitsutzat hartu diren hainbat hobekuntza-neurri formulatu dira, bederatzi multzotan bildurik, eta erreferentziatzat bi alderdi hauek harturik: alde batetik, nazioarteko ebaluazioetan emaitza bikainak lortu dituzten herrialdeei buruzko dokumentuen analisia eta bestetik, Mckinsey txostenetan egin den bezala, hezkuntza-sistemak bikaintasunerantz daramaten hobekuntza-ibilbideen araberako antolamendua.

Jarraian azaltzen diren hobekuntza-neurrien bederatzi multzoak ikastetxeetako zuzendaritza talde eta irakasle aukeratuei aurkeztu zaizkie, eta, baita ere, eztabaida-taldeetan parte hartu duten Euskadiko hezkuntza-sistemako profesional batzuei (Ikuskaritzako eta Berritzeguneko teknikariak, unibertsitateko dekanoak eta zuzendariak).

## 1. KANPO EBALUAZIOA ETA IKASTETXEETAKO HOBEKUNTZA PLANAK. INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA

Hezkuntzaren eta errendimenduaren hobekuntzarako oinarrietako bat errendimenduaren neurketaren gardentasuna da, hots, ebaluazioetan zehar datuak biltzea eta ikasleen errendimendua ikastetxeekin gardentasun osoz partekatzea. Kanpoko informazio hori jasotzeak ikastetxeei aukera ematen die emaitzak hobetzen diren jakiteko, euren ekintzen arrakasta ebaluatzeko eta, hala behar denean, zuzenketa-neurriak hartzeko. Ekintza horien bidez irakasleak ikasleen hobekuntza-prozesuan inplikatzen dira.

Kanpoko ebaluazioek berebiziko garrantzia dute hezkuntza-sistema hobetzeko, hurrengo arrazoiengatik, besteak beste:

- Hezkuntza-sistemako agintariei aukera ematen diete ikasleen emaitzak hobetzen ari diren ala ez jakiteko eta, horretan oinarrituta, premia handia duten arloei arreta eta baliabideak emateko.
- Hezkuntza-sistema osoko irakasleek ikasleen emaitzak hobetzeko erantzukizuna hartzen dute, eta, ondorioz, sistemaren kultura aldatzen da (irakastetik ikastera).

McKinseyren 2007ko txostenaren arabera (munduko hezkuntza-sistema onenak eta hobetzen ari direnak aztertzen ditu), errendimendurik altueneko hezkuntza-sistemek bi tresna erabiltzen dituzte irakaskuntzaren eta ikasketen kalitatea kontrolatzeko: azterketak eta ikuskapenak, irakaslana zenbait adierazleren bidez ebaluatzen dutenak. Emaitzak eta prozesuak neurtzen dituzte, eta hobetu beharreko arloak identifikatzen dituzte. Hezkuntza-sistemarik eraginkorrenek, gainera, ebaluazio horren emaitzak jardunbide egokiak identifikatzeko eta hezkuntza-sistema osoan zehar zabaltzeko erabiltzen dituzte.

## 2. FINANTZAKETAREN EGITURA

ELGAko herrialde gehienek handitu zuten hezkuntzako gastua 1980tik 2005era. Hala ere, bakan batzuek bakarrik lortu zuten eraginkortasuna modu nabarian areagotzea. Zenbait ikerlanek eta PISA ebaluazioetako emaitzek erakutsi duten bezala, hezkuntza-baliabideen eta ikasleen errendimenduaren arteko erlazioa ez da estua eta zuzena.

Mckinsey txostenen arabera, hezkuntza-sistema batzuek, antzeko finantzaketa izan arren, oso emaitza ezberdinak lortzen dituztela egiaztatu da. Hortik ondorioztatu daiteke inbertsioak berez ez duela emaitza onik bermatzen. Zenbat diru gastatzen den ez da, beraz, dirua nola gastatzen den bezain garrantzitsua. Ikastetxeen arteko –eta ikastetxe barruko– kalitate-aldeak, batez ere, giza baliabideen kalitatearen ondorio izaten dira.

Txosten hauetan honakoa gomendatzen dute: administrazio- eta finantzaketa-deszentralizazioa eta baliabideak esleitzeko ereduaren aldaketa.

ELGAko herrialdeen artean ikasleko gasturik handiena Finlandiak egiten du. Hori horrela izanik ere, eskola muinbakarrarekin duen konpromisoaren ondorioz, hezkuntza bereziko gastua baxuagoa da ikasle horiek aparteko eskoletan eskolatzen dituzten herrialdeetan baino.

Zeelanda Berrian, Albertan, Ingalaterran, Chicagon eta Massachusettsen finantzaketa-sistema berriak eratu dituzte hobetzeko beharrik handiena duten ikastetxeei baliabide gehigarriak emateko (indartze-programak eta zuzendarien lan-gaitasunen arabera).

Euskadin Hezkuntza Sailak ikastetxe bakoitzari baliabide ekonomiko jakin batzuk esleitzen dizkio, eta ikastetxeak baliabide horiekin aurrekontua egiten du, urteko kudeaketa-programan sartzen dena. Ondoren, kudeaketa ekonomikoak finantza- eta ekonomia-kontrola gainditu behar du.

Finantzaketaren gehikuntzari eta baliabideak esleitzeko ereduaren aldaketari dagokionez, Hamaika Esku proiektuak baliabideak esleitzeko funtzionamenduaren aldaketa dakar. Esleipen-mota hau modu selektiboan egiten da, errendimendu-mailaz igotzeko arazoak dituzten ikastetxeei bideratuta baitago.

## 3. OINARRI PEDAGOGIKOA. IKASTE EREDUA

Hezkuntza-sistema bikainek ikasleen gaitasunak handitzeko aukera ematen duten irakaskuntza- eta ikaskuntza-ereduak proposatu eta eredu horientzat beharrezko material lagungarriak diseinatzen dituzte. Irakaskuntzaren indibidualizazioa edo pertsonalizazioa eta horretarako bide ematen duten neurriak ezartzea, oraindik orain, ikasleen aniztasunari erantzun ahal izateko hobetu beharreko alderdiak dira.

Bikaintasuna sustatzea ikasleari, bere konpetentziak uzten dion heinean, ahalik eta urrunen, ahalik eta arinen eta ahalik eta zabaltasun eta sakontasun handienarekin heltzeko behar dituen hezkuntza-baliabideak ematea da. Eta horrek lanerako ongi prestatutako irakasleak eskatzen ditu, ikasle bakoitzaren banakotasuna errespetatu ahal izateko, aukera-berdintasunaren printzipioa bermatze aldera.

Finlandian ikastetxeek askatasuna dute ikasleak taldekatzeko, ikastetxe bakoitzari irakasle laguntzaile bat esleitzen zaio, eta ikasle guztiek laguntza jasotzen dute beraien ikasketetan. Gainera, honako arloetan arreta berezia jartzen dute: “gauzak eginez” ikastea, talde-lana, sormena eta arazoak ebazteko trebezia.

Errendimendu handiko herrialdeetan, ikasle guztientzat espero da eskola-arrakasta, ikasleak lortu behar duenari buruzko itxaropenak handiak eta zehatzak dira, proposamen didaktikoak irekiak eta testuinguruari lotuak, ikasleen gaitasunen eta erritmoen araberakoak. Proiektuetan oinarritutako lanak eta IKT teknologien erabilera sustatzen da ikasleen ikasteko autonomia areagotzeko.

Heziberri 2020 proiektuan planteatzen den bezala, konpetentzien araberako ikuspegia ikasgelara eramateak aldaketa metodologikoak eskatzen ditu, atazaka lan egitea eskatzen baitute, ezagupenak erabiltzeko baliabide bezala hartzen baitira, ikasketa ebatzi beharreko problemetan eta garatu beharreko proiektuetan oinarriturik baitago. Horrek irakasleen roletan eta lanean aldaketak sartzea dakar. Ikasleak rol aktiboa du bere ikasketan eta irakaslearen zeregina bitartekari bezala indartu egiten da; ezagupenak transmititzetik eta buruz ikastera behartzetik gida izatera pasa da irakaslea, ikasleari konpetentziak garatzen laguntzen diona, berak diseinatutako ikaste-egoeren bidez.

## 4. IRAKASKUNTZARAKO SARBIDEA

Sistema aurreratuak irakasleen profesionalizazioan jartzen du arreta, eta, hortaz, irakaskuntzara sartzeko eskakizunak areagotzen dira eta irakaskuntza aurreko prestakuntza hobetzen dute.

Hezkuntza-sistema baten kalitatearen muga bere irakasleen kalitatea da. McKinsey txosten batzuetan, irakasleak irakaskuntzara sartzeko sistema aldatzea proposatzen da, espedienterik onenak dituzten lizentziadunak kontratatu ahal izateko, eta ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen dituzten iragazki batzuk finkatu ahal izateko.

Errendimendurik altuena duten hezkuntza-sistemek oso profesional gaituak erakartzea, hautatzea eta prestatzea lortzen dute honako hauen bidez: oso sarbide selektiboa hezkuntza-ikasteetara, irakaslegaien prestakuntza egokia, irakasle eraginkor bihurtu arte eta ordainsari egokiak, irakasleen hasierako soldata onekin (baina ez neurriz kanpokoak).

Finlandian irakasle aritzeko, irakaslegaien hautaketa egiteko honako notak hartzen dira kontuan: matrikulazio-azterketaren emaitza, bigarren hezkuntzako notak eta ikastetxetik kanpo izandako notak. Irakaslegaiek idatzizko azterketa bat egin behar dute aurretik finkatutako pedagogia liburuez eta ikasgela barruko behaketa-jarduera batean parte hartzen dute, irakaslegaiek ikasgelako egoera antzeztuei aurre egin behar diete, horretarako gizarte-elkarreraginerako eta komunikaziorako trebetasunak erabili behar dituztelarik. Azkenik, irakaslegairik onenei elkarrizketa bat egiten zaie, eta bertan, besteak beste, irakasle bilakatzeko dituzten arrazoiak azaltzeko eskatzen zaie.

## 5. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Errendimendu altuko herrialdeek irakasleen prestakuntza eta gaitze-programak dituzte, ikastetxeek eta kideek bultzatutako ikaste- eta garapen-aukerak eskaintzen dituztenak. Era berean, ikastetxean bertan lanpostu desberdinetara igotzeko eta karrera profesionala garatzeko aukera eskaintzen dute.

Profesiora sartzeko sistema hauetan eskatzen den gaitasun-maila handia eta protokolo zorrotza direla eta, irakasleek ospe profesional nabarmena dute.

Prestakuntzari dagokionez, "lankidetza-jarduerak edo lankidetza profesionala" deritzon eredua nabarmendu daiteke. Eredu honetan, irakasleak kideekin elkarlanean ikasten du, lan komunaren bidez, eskola irekietan, irakasle aholkulari eta prestatzaileekin. Elkarlanean ikasgelan zerk funtzionatzen duen arreta handiz aztertzen da eta, norberaren jardueraz gain, kideen jarduera hobetzeko konpromisoa ere hartzen da.

Esperientzia handiko irakasle adituei lan-karga arintzen zaie, gainerako irakasleei laguntza eta prestakuntza eman diezaieten, honako ekintzen bidez: gelan klasea nola ematen duten erakutsiz (klasea ematen dute), biak batera emanez eta, azkenik, bakarrik klasea nola ematen duen behatuz (aldez aurretik baimena jasota). Horretarako, komunean lan egiteko denbora-tarteak aurreikusten dira.

Finlandian, esate baterako, irakasleek astean arratsalde bat libre izaten dute ikasketa-plana garatzeko eta taldeka planifikazioa egiteko (elkarrengandik ikasi). Era berean, arrakasta izan duten irakaste-esperientziei buruzko ezagutza partekatzen da, haien zabalkundea antolatzeko eta horrela beste pertsonek haiengandik ikas dezaten ahalbidetzeko.

Zentzu honetan, Kalifornian Estatu Batuetara zabaldu den esperientzia bat dago errendimendu handiko zuzendariak eta irakasleak zeintzuk diren aztertzeko, besteen prestatzaile bilakatzeko.

## 6. EBALUAZIOA, ERABAKIAK HARTZEKO TRESNA

Ikastetxea eskola-komunitatea dela abiapuntutzat harturik, sistema aurreratuetan honakoa antzematen da: ikastetxea bera dela, datuetan oinarrituta, ikaste-irakaste prozesuaren helburuez eztabaidatzen duena eta horren inguruko ikuspegi partekatua eratzen duena, eta baita behar dituen metodoak eta baliabideak erabakitzen dituena ere.

Hori horrela izanik, ikastetxean bertan erabakiak hartu ahal izateko, beharrezkoa da ikastetxeetan autoebaluazioa sustatzea eta errendimenduaren gaineko datuak profesional guztien esku uztea. Emaitzen ebaluazioak honakoa ahalbidetzen du: praktika didaktikoak identifikatzea, hobetze-arloak zehaztea eta berrikuntza zein hobekuntza sustatzea.

Era berean, hezkuntza-sistema aurreratuek ikastetxeei malgutasuna ematen diete ikasleei egokitutako programak egin ditzaten. Horrekin batera, ahalbidetzen dute deszentralizazio pedagogikoa ikasketa-planarekiko, estandarrekiko edota irakaste-programa berrien definizioarekiko.

Finlandiako ikasketa-planak argi azpimarratzen du irakasleek ikasketa tokian tokiko testuingurura moldatu behar dutela, eta onartzen du haur bakoitzak bere erritmoan ikasten duela. Irakasleek autonomia pedagogikoa dute beraien erabakiak hartzeko ikastetxearen errealitatean oinarrituta.

Finlandian garrantzi handia ematen zaie ikastetxeen autoebaluazioei eta ikasketen emaitzen ebaluazio nazionalei. Horrela, beraien errendimenduari buruzko datuak dituzte, testuingurura eta errealitatera egokitu ahal izateko.

Ikaslearen heziketarekin lotura duten alderdietan oinarrituta hartzen dira erabakiak. Ikastetxearen barruko zein kanpoko koordinazioa eta lankidetza sustatzen da. Horrela, irakasleen arteko koordinaziorako neurriak daude ikasleen gaitasunak goiz antzemateko, eta ikasleekin egin beharreko lana egokitzeko beren errendimendu-mailarik altuena lor dezaten; kanpoko agenteekin koordinazioa (erakundeak, enpresak, osasun zerbitzuak eta bestelakoak) ikasketa-esperientzia gehiago eskaini ahal izateko ikasleei; familiekin koordinazioa, informazioa emanez eta haiekin batera lankidetzan aritu finkatutako helburuak lortzeko.

## 7. IKASTETXEEN AUTONOMIA PEDAGOGIKOA

Bikainak diren hezkuntza-sistemek ikastetxeetan irakasleen arteko ikaste-komunitateak sustatzen dituzte; komunitate hauek autonomia pedagogikoa areagotzen dute, ikastetxe barruko zein kanpoko irakasle adituak lider direla, beraiek praktika onak zabalduz sistema osoan zehar ibiliz.

Nazioarteko hainbat ikerketak erakusten dutenez, sistemaren errendimenduak hobera egin ahala, garapen profesionala urrundu egiten da erakundeek emandako prestakuntza tekniko ofizialetik lankideen arteko lankidetzara eta garapenera hurbiltzeko. Hori dela eta, ikastetxeen arteko lankidetza-trukea garrantzizkotzat jotzen da: irakasleen artean ikasbideak, jardunbideak eta laguntza partekatzea.

Batez bestekoa baino errendimendu altuagoa duten sistemetan ez da goitik behera ezarritako irakaskuntza idatzirik erabiltzen. Malguagoak dira eta irakaslerik gaituenengan konfiantza erakusten dute, autonomia gehiago eskainiz beraien lana egin dezaten. Sistemek irakasleei, ikasleen ikaskuntzan hobeto laguntzeari begira, ideia berriez gogoeta egiteko eta ideia horiek abian jartzeko behar dituzten denbora, baliabideak eta malgutasuna ematen dizkiete.

Autonomia-mailaren garapena lidergo sendo batean oinarritzen da. Ikastetxeetako zuzendariek behar besteko autonomia dute, Eskola Kontseiluarekin elkarlanean, ikastetxeko irakasleak hautatzeko, ikastaldeetan banatzeko, lanak eta ardurak emateko, beraien ezagutzen eta gaitasunen arabera. Ikastetxeek autonomia dute, halaber, karrera profesionalean gora egingo duten irakasleak baloratzeko, irizpide homologatuei jarraikiz.

Finlandian, esate baterako, irakasleek autonomia pedagogikoa dute metodologia eta materialak erabakitzeko, eta askatasun osoa dute zer erakutsiko duten eta nola erakutsiko duten erabakitzeko (ikasketa-planaren diseinua eta testu-liburuen aukeraketa) eta baita ikasleak taldekatzeko ere.

## 8. ZUZENDARITZAREN LIDERGO PEDAGOGIKOA

Nazioarteko hezkuntza-sistemen azterketek erakusten dute lidergo sendoa beharrezkoa dela hezkuntza-kalitatea bermatzeko. ELGAren arabera, lidergoa ez da oinarritzen pertsona bakarrean ezta kargu formaletan ere. Lidergoa maila desberdinetan zehar zabaltzen da eta agente desberdinek hartzen dute bere gain lidergo-erantzukizuna.

Ikastetxeetako zuzendaritzen lidergoa honako alderdietan oinarritzen da: alderdi pedagogikoan, taldeko harremanetan, irakasleen antolakuntzan eta finkatutako helburuak betetzeko planetan. Lidergo pedagogikoak erakunde osoaren ikasketa eta ezagutza areagotzea du helburu: parte-hartzea eta erantzukizun partekatua sortzen du, ikastetxea ikasten duen komunitatea bihurtuz eta, lankidetza horri esker, ikastetxearen gaitasun osoa ahalik eta gehien garatzen da.

Ikastetxeetako zuzendaritzek erantzukizun eta lan-karga gehiago dute honako faktoreengatik, besteak beste: deszentralizazioa eta autonomia, kontu-ematearen sarrera eta hezkuntza-sistemak dituen erronka berriak. Hori dela eta, sistema aurreratuak administrazio-postuak gehitzen ari dira irakasleek eta zuzendariek ataza pedagogikoan arreta jar dezaten, lan administratiboetan jarri beharrean.

ELGAren arabera, hauek dira hezkuntza-zuzendaritzek aurre egin beharko dieten erronka nagusiak: prestakuntza eta entrenamendu eskasa, laguntza desegokia, karrera profesional mugatua eta pizgarri gutxi. Faktore hauek zailtzen dute hautagai egokiak erakartzea.

Ikastetxeen zuzendaritzak profesionalizatu beharra antzematen da. Finlandian, esate baterako, zuzendaritza-lana profesioa da, eta prestakuntza berezitua beharrezkoa da.

Euskadin ikastetxeetako zuzendaritzetan karguan dauden pertsonek honako profila dute: lanpostuan 5 urte baino gutxiagoko esperientzia dute (%51,9) eta irakaskuntzan, berriz, antzinatasun zabala dute 20 urte baino gehiagoko esperientziarekin (%74,6).

## 9. IKASTETXEEN BERRIZTATZEA SISTEMAREN LAGUNTZAZ

Etengabeko bilakaeran dagoen hezkuntza-sistemarentzat berrikuntza urrats garrantzitsua da. Hezkuntza-sistema aurreratuetan irakasleen profesionalizazioa gero eta handiagoa da (hasierako prestakuntza eta etengabea), ikastetxeetako autoebaluazioan eta ikasleen kanpo ebaluazioetan oinarritutako planak diseinatzen dira. Sistema aurreratuetan finantzaketa-egiturak ikastetxean bertan erabakiak hartu ahal izatea ahalbidetzen du. Ikastetxean bertan eginiko hausnarketan oinarritutako ikaste-ereduak eta lerro pedagogikoa dira nagusi, lankide adituak buru dituztenak, kudeaketa administratiboa murriztu zaion eta bereziki prestatua izan den zuzendaritzarekin batera.

Emaitza bikainak lortzen dituzten hezkuntza-sistemak ahalegintzen dira irakasleen sormena eta berrikuntza askatzen duen ingurunea sortzen. Hori dela eta, sistemek denbora, baliabideak eta malgutasuna eskaintzen dizkiete irakasleei, ikasleen ikaskuntzan hobeto laguntze aldera, eta haiek praktikan nola jarri pentsa dezaten. Ikastetxeak berrikuntza horietatik ikasten du eta sistemako gainontzeko ikastetxeekin partekatzen ditu, eskola-komunitate osoa, familiak eta ikasleak inplikatuz.

Hauek dira berrikuntza sustatzeko lan-lerro batzuk:

- Berrikuntza pedagogikoa sustatzea, ikaslean oinarrituta hainbat iturburu dituen

datuetatik abiatuz: kanpo-ebaluazioak, ikasleen barne-ebaluazioak eta irakasleen autoebaluazioak, eta abar.

- Proiektuetan oinarritutako lanetan eta IKT teknologien erabileran berrikuntza sustatzea, diziplinarteko ikasketetarako aukera ahalbidetzeko, ikasleek beraien gaitasun gorena gara dezaten. Herbehereetan, esate baterako, hainbat ekimen daude ikasle onengandik ahalik eta errendimendurik onena lortzeko, beraien sormena eta motibazioa areagotuz, testu-liburuaren erabilera murriztuz.
- Irakasle eta zuzendaritza berritzaileen aitorpena eta saritze-sistema.

Berrikuntza lan egiteko era bat da sistema bikainetan, eguneroko lanean ohitura eta praktika jakinak txertatuz. Irakasleen arteko lankidetza hobekuntzaren giltzarria da, ikasketan eta irakaskuntzan berrikuntza sortzen baitute.

Euskadin praktika onen eta esperientzia berritzaileen elkartrukatze-sareak daude, Euskalit, Kudeaketa Aurreraturako Euskal Erakundearen inguruan biltzen diren Zilarrezko eta Urrezko Q Bizkaintasun Sariak –Eusko Jaurlaritzak ematen dituenak– lortu dituzten ikastetxeak kasu. Hobetzen jarraitzeko informazioa eta ezagutza partekatzen dute.

# 5. HEZIKETA-BIKAINTASUNERANZKO HOBEKUNTZA ALDERDIEI BURUZKO EZTABAIDAREN GARAPENA

## 5.1. Eztabaida-prozesuaren deskribapena

Azken hamar urte hauetako ebaluazioen analisiak erakusten duen bezala, hezkuntza-sisteman ekitate-maila egokia lortu eta mantendu da. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak helburu nagusitzat hartu du hezkuntzaren bikaintasuna bilatzea. Horretarako hezkuntza-sistemaren ahalegina ikasleen errendimendu-maila igotzera bideratu behar da, oraingo ekitate-maila mantenduz eta bikaintasunaren aldeko apustua eginez.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 29an egindako osoko bilkuran, 101/2014 Legez besteko Proposamena onetsi du, eskolako emaitzak hobetzeko plana aurkezteari buruz. Horren arabera, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen dio *"jarrai dezala euskal hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko prozesuarekin, arreta eskainiz barne nahiz kanpoko ebaluazioen emaitzei"*, *"egin eta aurkez dezala eskolako emaitzak hobetzeko plan bat, sistema osoari ekitaterik galdu gabe bikaintasunean aurrera egitea eta gure hezkuntzaren kalitatea hobetzea ahalbidetuko duten beharrezko neurri guztiak eztabaidatu eta integratzera iritsi ahal izateko"*, eta *"plan horrek bereziki jaso dezala irakasleen prestakuntza jarraitu eta etengabea, prestakuntza horren baitakoa delako hezkuntza kalitatezko eta bikaina lortzeko lan funtsezkoa"*.

Abiapuntu honetatik, bikainak diren ereduak aintzat hartuta eta euskal hezkuntza-sistemaren errealitatea zein den jakinik, ISEI-IVEIk hezkuntza-bikaintasunerantz bideratzeko neurri-proposamenak jaso zituen, bederatzi jardun-eremutan egituratuta, irakaskuntzan egunero inplikatuta dabiltzan pertsonekin kontrastatzeko, ikasleekin eta ikastetxeekin harreman zuzena duten profesionalekin, alegia. Hori dela eta, profesional hauetariko batzuk gonbidatu dira lan-lerro hauei buruz eztabaidatzeko, emaitzak hobetze aldera bestelako neurriak jasotzeko, eta proposatutako jarduerak bere eraginkortasunaren eta bere bideragarritasunararen arabera lehentasuna ematea.

Eztabaida-prozesuaren **helburu nagusia,** hortaz, da **Euskadiko hezkuntza-sistema hobetzeko egindako proposamenak dituen dokumentua aberastea, hezkuntza-bikaintasunerantz bultzatuko duen heziketa-agente desberdinekiko adostasuna lantzeko.**

Horretarako, hurrengo **helburu operatiboak** ere ezarri dira:

- ELGAko probetan **emaitza bikainak dituzten sistemen proposamenak eta faktore komunak** aztertzea.
- **Lan-proposamen berriak identifikatu** hezkuntza-bikaintasunerantz bideratuta, ISEI-IVEIren hasierako proposamenean jaso ez direnak.
- ISEI-IVEIk jasotako proposamenen **eraginkortasuna eta bideragarritasuna finkatzea**.
- **Euskadiko hezkuntza-sisteman eredugarriak izan daitezkeen alderdiak hezkuntza-komunitatearekin batera aztertu** eta haiek ezartzeko aukerak baloratu bikaintasuna hobetze aldera.

- **Proposamenak egokitu** eta hezkuntza-komunitatearen **ikuspegi pragmatikoa eskaini**.
- **Legitimitate gehiago** eskaini ezarri nahi direnean.

Lan-metodologiari dagokionez, bi atal nagusi bereiztu behar dira:

- **Parte hartzeko metodología diseinatu da** prozesu honetan partehartzea eta akordio nahiz kontrastea sustatzeko.
- **Prozesuaren eta partehartzearen emaitzen azterketa, prozesuan hezkuntza-komunitatearen inplikazioa eta partehartzea** jasotzen dituena; era berean, idazkaritza-teknikoak egin duen koordinazio- eta komunikazio-lana jasotzen da

### 5.1.1. Diseinu metodologikoa

Finkatutako helburuak lortze aldera parte hartzeko metodología diseiñatu da, hurrengo urratsetan oinarrituta:

- ISEI-IVEIk Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera partehartzaileak aukeratu ditu, hurrengo taulan adierazten diren hainbat irizpideei jarraiki, hezkuntza-komunitatearen partehartze orekatsua bermatzeko, etengabeko hobekuntzarekin konpromisoa erakutsi duten ikastetxeak lehenetsiz:

| | |
|---|---|
| Rolak | •Zuzendariak eta irakasleak, Berritzeguneko teknikariak, Hezkuntza Ikuskaritzako langileak eta adituak |
| Etapa | •Lehen Hezkuntza eta DBH |
| Sarea | •Publikoa eta Itunpekoa |
| Eredua | •A/B/D |
| ISEK | •Indize Sozioekonomiko eta kulturala: Maila baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua |
| Taminua | •Hiru mailetan ikasleen kopuruaren arabera |
| Lurraldea | •Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia |
| Generoa | •Emakuzmezkoa eta gizonezkoa |
| Emaitzak | •Maila aurreratuan ikasleen portzentajerik altuenak dituzten ikastetxeak eta ED09 eta ED13 urteen artean emaitzetan gehien hobetu dutenak |
| Irakasgaia | •DBHn Letrak eta Zientziak |

- Ondoren, aukeratutako pertsonekin harremanetan jartzeko prozesua abian jarri da. Horretarako, datuen babeserako prozedurari jarraiki, hainbat gutun-eredu eta argudio-sorta landu dira hezkuntza-komunitatea informatzeko eta inplikatzeko.

**Partehartzea sustatzeko argudio-sorta:**

- Azkeneko urteotan euskal hezkuntza-sistemaren eboluzio positiboa.
- Erronka berriak hezkuntza-bikaintasun alorrean, denon artean aurre egiteko.
- Aurrera egiteko hezkuntza-komunitateko eragile guztien inplikazioaren beharra.
- Hezkuntza-komunitateko eragileen beharrak entzuteko administrazioak sortu duen entzute-gunea.
- Hezkuntza-komunitateak egindako lanari eskerrona.

Harremanetan jartzeko gutunez gain, partehartzaileak inplikatzeko 600 dei baino gehiago egin dira.

- Informazio-multzoa diseinatu eta osatu da ISEI-IVEIk jasotako proposamenak biltzen dituen dokumentuaren banakako azterketa eta balorazioa egiten dezaten partehartzaileek eta prozesuaren berri izan dezaten.

Horretarako, hurrengo urratsak garatu dira:

- “Hezkuntza bikaintasunerantz” txostenaren eduki esanguratsuena jasotzen duen AURKEZPEN LABURTUA egin eta bidali, lehen hausnarketa-lana egin dezaten.
- On line inkesta bidali partehartzaileek bete zezaten, egindako proposamenen bideragarritasuna eta eraginkortasuna neurtuz, balorazio kualitatiboa jasoz eta ekarpen berriak eginez.
- Bi topagune antolatu eta bideratu dira 2015eko martxoaren 9an eta 10ean, Eusko Jaurlaritzako egoitzan, Vitoria-Gasteizen.

Topaguneetako gai-zerrenda honakoa izan zen:

1. Aurkezpena
2. Ongi-etorria, eskerrona
3. Prozesuaren helburuaren aurkezpena
4. Inkesten emaitzak
5. Eztabaida lan-taldeetan
6. Bateratzea
7. Agurra eta eskerrona

Topagune bakoitzean, hiru lan-mahai antolatu ziren osaera honekin:




Lan-mahai bakoitza eztabaida-taldeetan esperientzia handiko moderatzaile baten bidez dinamizatua izan zen, EAEko bi hizkuntzetan mintzatzeko eta aldibereko itzulpenak egiteko gaitasun nahikoarekin.

- Azkenik, gune birtuala ireki da ideia berriak, iradokizunak eta iritziak elkartrukatu ahal izateko.

Partehartzeko online guneak hezkuntza-bikaintasunari buruzko proposamenen gaineko eztabaida eta hausnarketan sakontzeko aukera ematen du; era berean, hezkuntza-komunitateko eragileen arteko elkarreragitea ahalbidetzen du. Aurrez aurreko topaguneek dituzten mugak (denbora, txandak, berehalakotasuna…) gainditzeko aukera eskaintzen du gune birtualak.

Gainera, on-line partehartzeko gune honek prozesuaren emaitzen berri emateko aukera eskaintze ahalbidetzen du.

Eztabaidarako online gune hau irekita mantendu da parteharte-prozesu guztian: parte hartu duten eragile guztien lehen hartu-emona izan denetik Parlamentura prozesu honen emaitza aurkeztu arte.

Prozesu osoan zehar idazkaritza teknikoa zabalik egon da edozein zalantzari erantzuteko edota iradokizun jasotzeko.

### 5.1.2 Partehartzearen eta prozesuaren emaitzen azterketa

Jarraian Euskadiko hezkuntza-sistemaren hobekuntzarako partehartzearen eta prozesuaren emaitzak aztertuko dira. Datuak bereiztuta aurkezten dira erabilitako eremintaren arabera:

- Inkesta
- Open Ideiak gune birtuala
- Topaguneak

**INKESTA:** online galdetegia.

ISEI-IVEIren **"Hezkuntza Bikaintasunerantz"** dokumentuaren eta dagokion bibliografiaren irakurketa analitikoaren ostean, proposamen nagusien inkesta egin zen, hezkuntza-komunitateko profesionalen balorazioa era kuantitaiboan jasotzeko. Inkesta egin izanak eskaini zituen irizpide fidagarriak Hezkuntza-Bikaintasunari begira antolatutako Topaguneetan landu beharreko gai nagusiak aukeratzeko (dokumentu honetako 4.3 atala).

Ahalik eta erantzun gehien jasotze aldera, idazkaritza teknikoak honako ekintzak burutu zituen: 284 emailen bidalketa, 100 telefono-dei baino gehiago ikastetxeetako arduradunei, eta honako gaiei buruzko 50etik gorako erantzun eta kudeaketa:

- Parte hartzeko prozesuan irakasleen izendapena.
- Informazio-multzoaren bidalketa.
- Inkesta betetzeko datei eta ikastetxeetako arduradunen izendapenei buruzko gogorarazpenen bidalketa.
- Zalantzak argitu eta online galdetegiari buruzko arazo teknikoen konponketa.

Inkesta hezkuntza-sistemako 138 profesionalei bidali zitzaien. Horietatik %65ek (90) erantzun zuten.

| Rola | Erantzunak |
|---|---|
| Ikastetxeko zuzendaritzak | 27 (% 66) |
| Irakasleak | 49 (% 64) |
| Ikuskaritza | 6 (% 100) |
| Adituak | 2 (% 33) |
| Berritzeguneko aholkulariak | 6 (% 100) |
| **GUZTIRA** | **90** (% 65) |

*Parentesien artean eragile-mota bakoitzaren erantzunen portzentajea erakusten da, inkesta egitera gonbidatuta izan ziren persona guztiekiko.*

**OPEN IDEIAK,** informaziorako gune birtuala.

Lehendabizko unetik, idazkaritza teknikoak informaziorako eta partehartzeko gune irekia edukitzeko beharra ikusi du, denbora eta espazio mugarik gabe. Hori dela eta, Open Ideiak (Innobasque) plataforman gunea ireki zen; bertan 4 dokumentu, hezkuntza-praktika onen inguruko 2 bideo eta Topagune nahiz Online Inkestaren gaineko informazioa igo zen.

Eragile desberdinei gune honen berri emateko 115 mezu elektronikoak bidali zien. Open Ideiak erremintari buruzko zalantzak argitzeko 15 dei kudeatu ziren.

Honen ondorioz, idazkaritza teknikoak 9 eskaera jaso ditu plataforman sartzeko.

**TOPAGUNEAK**, aurrez aurreko partehartzerako gunea.

Hasieratik, Topaguneak diseinatu ziren **"Hezkuntza Bikaintasunerantz"** txostenaren proposamenen balorazioa eta hausnarketa egiteko gunerik garrantzitsuenak izateko, baita ISEI-IVEIren lana osatzeko aukera nagusitzat hartu ziren eragileek aukera izan zitzaten proposamen berriak egiteko. Topaguneetara ahalik eta partehartze handiena bermatzeko, idazkaritza teknikoak honako lanak egin zituen partehartzaileekin harremanetan jartzeko:

- Zuzendariak eta irakasleak gonbidatzeko deialdia.
- Hezkuntza-komunitateko gainontzeko langileen deia.
- Informazio-eskaerak (dokumentazioa, NAN…).

Guztira ondorengo tramiteak burutu dira: 268 mezu elektronikoak, 100 telefono-dei baino gehiago eta eragile desberdinen 53 zalantza argitu ziren horretarako martxan jarritako bulegoaren bidez.

Topaguneetara etorritako emaitzari dagokionez, martxoaren 9 eta 10eko ekitaldietara deitutako 61 pertsonetatik, %79 etorri ziren (48 pertsona). Bertaratutakoak hurrengo eran banatzen dira:

| | HOBEKUNTZA | BIKAINTASUNA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Ikastetxeetako zuzendariak | 6/8 | 5/7 | **11/15 (73%)** |
| Irakasleak | 10/14 | 10/14 | **20/28 (71%)** |
| Ikuskaritza | 3/3 | 3/3 | **6/6 (100%)** |
| Adituak | 3/3 | 2/3 | **5/6 (83%)** |
| Berritzeguneko aholkulariak | 3/3 | 3/3 | **6/6 (100%)** |
| **GUZTIRA** | **25/31** | **23/30** | **48/61** |

### 5.2. Eztabaidan aurkeztutako alderdien balioespen osoa

Beheko taulan, galde-sorten bitartez parte hartzeko prozesuan eskuratu ziren datuak erakusten dira, planteatutako proposamenen (4.3 atala) eraginkortasunari eta bideragarritasunari dagokienez.

| JARDUERA-EREMUAK | ERAGINKOR-TASUNA | BIDERAGARRI TASUNA |
|---|---|---|
| 1. KANPO EBALUAZIOA ETA IKASTETXEETAKO HOBEKUNTZA PLANAK. INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA | 7,3 | 7,2 |
| 2. FINANTZAKETAREN EGITURA | 7,6 | 6,5 |
| 3. OINARRI PEDAGOGIKOA. IKASTE EREDUA | 8,2 | 6,6 |
| 4. IRAKASKUNTZARAKO SARBIDEA | 7,6 | 7,0 |
| 5. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA | 8,1 | 6,6 |
| 6. EBALUAZIOA, ERABAKIAK HARTZEKO TRESNA | 8,3 | 7,0 |
| 7. IKASTETXEETAKO ATONOMIA PEDAGOGIKOA | 8,1 | 6,9 |
| 8. LIDERGO PEDAGOGIKOA ZUZENDARITZETAN | 8,2 | 6,5 |
| 9. BERRIKUNTZA IKASTETXEETAN SISTEMAREN LAGUNTZAREKIN | 8,4 | 7,5 |

Bildutako datuen argitan honako balorazioa hau egin daiteke:

1. *Eztabaidan proposatutako alderdi guztiek puntuazio altua lortu dute. Alderdi horiek, sistemaren hobekuntzari begira, profesionalentzat ere garrantzitsuak direla ondorioztatu daiteke.*
2. *Alderdi guztiek puntuazio altuagoa izan dute hobekuntza lortzeko duten eraginkortasunean euren bideragarritasunean baino, hau da, garatzeko aukeretan baino.*

Eztabaidarako aurkeztutako bederatzi alderdiek, eraginkortasunari dagokionez, 10etik 7,3 eta 8,4 arteko puntuazioa izan dute, eta bideragarritasunari dagokionez, puntuazio apur bat apalagoa (6,5etik 7,5era).

Eztabaidatutako jardueretako sei oso eraginkorrak bezala balioestu dira (8tik gora):

- Oinarri pedagogikoa. Ikaste eredua.
- Irakasleen prestakuntza.
- Ebaluazioa, erabaki-hartzerako tresna bezala.
- Ikastetxeetako atonomia pedagogikoa.
- Lidergo pedagogikoa zuzendaritzetan.
- Berrikuntza ikastetxeetan sistemaren laguntzarekin.

Beste hirurek 7tik gorako balorazioa lortu dute.

**Bideragarritasuna**ren arabera aztertura, jarduеretako lau 7tik gorako puntuazioaz balioestu dira:

- Kanpo ebaluazioa eta ikastetxeetako hobekuntza planak. Informazioaren gardentasuna.
- Irakaskuntzarako sarbidea.
- Ebaluazioa, erabakiak hartzeko tresna.
- Berrikuntza ikastetxeetan sistemaren laguntzarekin.

Gainerako 5 jarduerek 6,6 edo goragoko balorazioa lortu dute.

Ondorengo grafikoan eztabaidan egindako proposamenen eraginkortasuna eta bideragarritasuna 0-10 eskala batean adierazten dira. Proposamen guztiak daude goiko

eskuinaldeko koadrantean, eta horrek adierazten du guztiak eraginkor eta bideragarritzat jo direla errendimenduaren hobekuntzan aurrera joateko eta hezkuntza-bikaintasuna bilatzeko.

**Proposamenen balioezpena**
**haien eraginkortasun- eta bideragarritasun-mailaren arabera**




**Puntuazioen xehetasuna**
**eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren altuko koadrantean**



3. *Eztabaidan ez da sortu hasieran proposatutako alderdien aspektu osagarririk. Beraz, badirudi proposatutako alderdiak egokiak direla hezkuntza-bikaintasunerako bidean aurrera joateko. Proposatutako alderdi guztien artean eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren aldetik baloratuena Hezkuntza Berriztatzea izan da.*

4. *Proposatutako alderdietan ez dago ia alderik zuzendaritza-taldeen eta irakasleen balorazioen artean. Puntuaziorik altuenak aditu deitzen diegun pertsonenak izan dira (Magisteritza Eskola, EHU-UPV).*

| | ERAGINKORTASUNA | | | BIDERAGARRITASUNA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Ira.** | **Zuz.** | **Adi.** | **Ira.** | **Zuz.** | **Adi.** |
| **KANPO EBALUAZIOA ETA IKASTETXEETAKO HOBEKUNTZA PLANAK.** | 7,4 | 7,4 | 8,5 | 7,0 | 7,4 | 8,3 |
| **FINANTZAKETAREN EGITURA** | 7,4 | 7,8 | 9,0 | 6,3 | 7,0 | 9,0 |
| **OINARRI PEDAGOGIKOA. IKASTE EREDUA** | 8,3 | 8,0 | 9,4 | 6,9 | 6,3 | 7,1 |
| **IRAKASKUNTZARAKO SARBIDEA** | 7,6 | 7,6 | 8,7 | 6,9 | 7,1 | 8,5 |
| **IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA** | 8,0 | 8,2 | 9,9 | 6,5 | 6,8 | 8,6 |
| **EBALUAZIOA, ERABAKIAK HARTZEKO TRESNA** | 8,1 | 8,5 | 9,0 | 6,8 | 7,3 | 8,5 |
| **IKASTETXEETAKO ATONOMIA PEDAGOGIKOA** | 8,1 | 8,2 | 9,6 | 6,8 | 7,0 | 8,1 |
| **LIDERGO PEDAGOGIKOA ZUZENDARITZETAN** | 8,2 | 8,2 | 9,8 | 6,4 | 6,5 | 8,6 |
| **BERRIKUNTZA IKASTETXEETAN SISTEMAREN LAGUNTZAREKIN** | 8,4 | 8,7 | 10,0 | 7,4 | 7,8 | 8,8 |

5. *Lan-taldeetako partaideek alderdi bakoitzean egindako ekarpenak hurrengo atal honetan azaltzen dira.*

## 5.3 Eztabaidatik eratorritako ekarpenak eta proposamenak

Atal honetan proposamen zerrenda bat aurkezten da: batzuk nazioarteko ebaluazioetan emaitza bikainak lortu dituzten herrialdeetako jardunbideei buruzko dokumentuen analisitik eratorriak, eta beste batzuk Euskadin eztabaidan parte hartu duten profesionalen ekarpenetatik eratorriak.

Euskadin profesionalekiko eztabaidetarako proposatu ziren alderdiak –dokumentu honen 4.3 atalean azaldutakoak– lan-arloetan bildurik aurkezten dira. Zerrenda moduan aurkeztu arren, alderdiak ikastetxeko berriztatze-proiektu orokorren barruan landu behar direla erabaki da, horrelako proiektuek ezinbestean proposamenetako asko pizten baitituzte, adibidez hobekuntza-planak, hezkuntza-proiektuak eta abar. Ikastetxeko irakasle batzuk inplikatzen dituzten mikro-proiektuen barruan ere landu litezke, adibidez, zientziarako konpetentzian ordenagailua edo tableta ordezko didaktika-tresna gisa erabiltzea.

Zerrenda moduan aurkeztu arren, alderdiak ikastetxeko berriztatze-proiektu orokorren barruan landu beharko dira, horrelako proiektuek ezinbestean proposamenetako asko pizten baitituzte, adibidez hobekuntza-planak, hezkuntza-proiektuak eta abar. Ikastetxeko irakasle

batzuk inplikatzen dituzten mikro-proiektuen barruan ere landu litezke, adibidez, zientziarako konpetentzian ordenagailua edo tableta ordezko didaktika-tresna gisa erabiltzea.

## 1. KANPO EBALUAZIOA ETA IKASTETXEETAKO HOBEKUNTZA PLANAK. INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA

**Proposamenak:**

- Kanpoko ebaluazioak egitea ikasleen errendimendua ezagutzeko.
- Ordurarte egindako hobekuntza-planak eta ikasleen aurrerapenean duten eragina ebaluatzea.
- Adierazle homologatuak[27] finkatzea ikastetxeei hobetu beharreko aspektuak ezagutzen eta definitzen laguntzeko. Adierazle horiek hobekuntza-planen hasierako gogoeta eta gauzatu ondorengo balorazioa erraztuko dituzte.
- Hobekuntza-plan berrietarako aholkularitza, abian dauden planen ebaluaziotik ondorioztatutako aldaketak ere sartzen direlarik, ikastetxeetako irakasleen arteko baterako gogoetarako baliagarriak izan daitezen:
  - Adierazleetan oinarritutako gogoeta
  - Hobekuntza-planak kanpotik eta barrutik ebaluatzea eta jarraitzea, planak aldatu eta egokitu ahal izateko.
  - Ikastetxeko baliabideak baloratzea eta optimizatzea.
  - Kalitate handiko hezkuntzari lotutako beste aspektu batzuk, ez bakarrik errendimendua hobetzeari lotutakoak.
  - Gogoetarako laguntza gisa, ereduak zabaltzea: xedeen definizioa, estrategiak, antolamendua, lidergoa, irakasleen arteko lankidetza, denborak...
  - Neurri batzuk hartzea plana tramite burokratiko hutsa bihurtu ez dadin.
  - Prozesua gauzatzeko irakaslanetik kanpoko denbora tarteak erabiltzea: hasierako gogoeta, plana gauzatu bitarteko jarraipena, prozesuaren ebaluazioa eta bukaerako ebaluazioa.
- Irakasle-taldeen planteatutako eta bultzatutako plan partzial, zehatz eta garapen errazagokoetarako ere aholkularitza egitea.

**1. lan-arloa: HOBEKUNTZA PLANAK**

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Aurrera egiteko neurtu<br>• Emaitzak aztertu hobetu behar dena zer den jakiteko<br>• Hausnarketarako aukera |
| **Zailtasunak** | • Oraingo funtzionamendua ez da egokiena: lan-karga burokratikoa |
| **Garapenerako ildoak** | • Hobekuntza-planak egiteko zehaztapen maila handiagoa beharrezkoa da<br>• Ikastetxeetako urteko planetan txertatu behar, aparteko plana izan beharrean<br>• Praktika onak zabaltzeko tresnak garatu |

[27] Adibide gisa: http://www.educacion.navarra.es/documents/57308/57761/Sistema_indic_sgto_planes_mejora.pdf/353bab4b-6f4d-435f-acca-cb1a19903f87

## 2. FINANTZAKETAREN EGITURA

**Proposamenak:**

- Ikastetxeetako baliabideen erabilera hobetzea, ikasleen errendimendua helburutzat harturik.
- Esleitutako baliabideen erabileraren gainbegiratzea eta jarraipena.
- Ahalegin ekonomikoa ikasleen premiei eman beharreko erantzunaren arabera definitzea, hezkuntzaren subjektua ikaslea baita. Emaitzak –ez bakarrik akademikoak– zehatz-mehatz aztertu behar dira.
- Ikastetxeetako baliabide digitalen eguneratzea finantzatzea.
- Finantzaketa-eredu berriak finkatzea, hobetu beharreko ikastetxeei (ez bakarrik gizarte-ingurune kaltetuko ikasleen ikastetxeei) baliabide gehigarriak eman ahal izateko.
- Esleipenak definitzerakoan honako proiektu hauek lehenetsi behar dira: klaustroaren konpromisoa duten ikastetxeko proiektuak (ikasleen errendimenduaren hobekuntzarako planteamendu esplizituen arabera); eta, beste aldetik, ikaste/irakaste prozesuen berrikuntza sustatzen duten irakasleen proiektuak.
- Eraginkorrak izan diren laguntzak ahal delarik itunpeko ikastetxeetara zabaltzeko posibilitatea aztertzea.
- Ikasleen errendimendua hobetzeko eraginkortasunaren jarraipena eta ebaluazioa egiten duten proiektuei emaitza ekonomikoa mantentzea. Urte anitzeko proiektuen finantzaketa aztertzea, euren eraginkortasunaren kanpoko ebaluazioaren emaitzak kontuan izanik.

***2. lan-arloa: FINANTZAKETA***

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Finantziatu bai, baina ez da garrantzitsuena, gakoa baliabideei etekina ateratzean datza |
| **Zailtasunak** | • Finantziazioa estrategia baten menpe egon behar den tresna baten moduan ulertzea. |
| **Garapenerako ildoak** | • Kontuak eskatu behar zaizkie dirulaguntzak ematen zaizkienei<br>• Hobekuntza, behar dutenentzat, dagoen mailan dagoela<br>• Eragin handiko proiektuak bilatu |

## 3. OINARRI PEDAGOGIKOA. IKASTE EREDUA

**Proposamenak:**

Metodologia:

- Ikasleentzako banakako irakaskuntza bultzatzea; gaitasun eta erritmo anitzen arabera finkatutako proposamen didaktiko irekiak eta testuinguruan errotuak erabiliz. Banakako ikaskuntza errendimendu apaleko ikasleentzako laguntza izango litzateke, eta errendimendu altuko ikasleentzat errefortzu gehigarria izango litzateke.
- Ikastetxeko espazioaren eta denboraren antolamendu berritzailea planteatzen duten proiektuak sustatzea, egin beharreko lan-motaren arabera ikasleak batetik bestera mugitu ahal izateko.
- "Ikaskideen arteko" laguntza bultzatzen duten proiektuak sortzea (ikasgela barruan edo ikasgelen artean, taldekatze anitzen bidez).

- Ikaste-erritmo ezberdinetan oinarritutako gelako ebaluazioak garatzen dituzten proiektuak sustatzea.
- Ikastetxeko irakasle-taldeen prestakuntza eta lankidetza ahalbidetzen dituzten antolamendu-ereduak aurkeztea.

Baliabideak

- Ikastetxeetan IKT teknologiei lotutako baliabideak eguneratzea, baliabide didaktiko arrunt bihurtu daitezen. Baliabide didaktiko arrunt bihurtze hori ezinbesteko baldintza bide da ikasgelako ikaste/irakaste prozesua eraldatzeko. Era berean, ikaste/irakaste prozesuaren pertsonalizazioa erraztuko du, ikasleak ez baitago ikasgelako batez besteko erritmoa jarraitzera behartuta.
- Ikastetxeetan baliabide didaktikoen zerrenda aztertzea eta aurkeztea, irakasgai edo arloetan banaturik eta hizkuntza anitzetan (euskara, gaztelania...). Barneko prestakuntza.
- Ikasleen errendimenduaren bikaintasunerantz bultzatzeko behar diren baliabide guztien (metodologikoak, pertsonalak, materialak) analisia egitea.

Irakasleak

- Teknologia berrietan prestakuntza.
- Gaur egun euskarri digitalean dauden baliabide didaktikoei buruzko prestakuntza praktikoa. Ordenagailua, tableta, arbel digitalak... ikaste/irakaste prozesuaren ardatz.
- Ikastetxeko prestakuntza irakasleen arteko tutoretza-esperientziak sustatzeko (bi irakasle gelan: irakaslea eta behatzailea).
- Ikasleen gaitasunak arloetako edukien bidez nola garatu ikasteko prestakuntza.
- Orientatzailearen lidergoa ikastetxean aldaketa pedagogikoei buruz diziplinen arteko gogoeta sustatzeko.
- Errendimendu altuko ikasleak identifikatzen tutorearekin lanean diharduten laguntza-irakasleei errefortzu bat ematea, ikasle horiei ezagupenetan sakontzen eta bikaintasunerantz joaten lagundu behar baitzaie.

Ikaslea bere eskolatzearen hasieratik ikastetxea utzi arte laguntzeko kultura garatzeko prestakuntza. Tutorearen figura indartzea, ikasleak hezkuntza-prozesuan behar izaten dituen laguntzen analisia bermatzen baitu.

### *3. lan-arloa: OINARRI PEDAGOGIKOA*

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Irakaskuntzaren helburua irakaskuntza egokitua da: aniztasuna, pertsonengan arreta jartzea, ikasleen erritmora egokitzea,...<br>• Errendimendu handiko ikasleei ere |
| **Zailtasunak** | • Irakaskuntza egokituaren esperientziak badaude baina sistematizazioa eta orokortzea zaila da. Beste modu bateko eskola baten beharra legoke |
| **Garapenerako ildoak** | • Mentalidadea aldatu behar da<br>• Lantaldea bultzatu behar da<br>• Prestakuntza beharrezkoa da<br>• Baliabideak eskaini behar dira<br>• Hezkuntza-komunitatearen inplikazioa<br>• Kurrikuluma berrikusi (Legeak uzten duen heinean)<br>• Errendimenduko altuko ikasleei ere arreta eskaini behar zaie |

## 4. IRAKASKUNTZARAKO SARBIDEA

**Proposamenak:**

- Irakasleen hasierako prestakuntzan (Irakasleen Unibertsitate Eskola, Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra Derrigorrezko eta Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzan) ikasgelako praktika-sistema ongi egituratua sustatzea, ikastetxeko zuzendaritzak, bakoitzaren esperientzia ikusita, izendatutako irakasle gaituek egingo dute praktiken jarraipena. Irakasle gaitu horiei pizgarri bat eman behar zaie.
- Meritu lehiaketaren fasean sisteman sartzeko erabilitako tituluko kalifikazioak kontuan hartzea; eta oposizioaren faseko proba adin baterako eta kasuan kasuko arloko unitate didaktikoen garapenean eta defentsan oinarritzea. Irakaslanari aplikatutako teknologiari buruzko ezagupenak baloratzea.
- Merituen balorazioan irakaskuntzan emandako urteen (esperientzia) garrantzia erlatibizatzea.
- Opositoreek agian nortasun-test bat bete behar izatea posibilitate bezala aztertzea.
- Hezkuntza-mundura beste titulu batekin (matematikariak, informatikariak (???)...) sartu diren irakasleei ikastaroetan ematen zaien prestakuntza pedagogikoa ebaluatzea eta gaurkotzea.
- Oposizioen osteko praktikak: jarraipena ikastetxeko zuzendaritzak egin behar du, tutoretza zuzendaritzak izendatutako irakasle aditu batek egin behar du; eta ganbegiratzea Hezkuntza Ikuskaritzak egin behar du (gela barruko behaketa eta protokolo baten araberako ebaluazioa). Gauza bera egin liteke irakasle berriak ordezko bezala dituen hasierako esperientzietan.

Ikastetxean irakasle berriak lanean hasten direnerako harrera-planak finkatzea, ikastetxera egokitu ahal izan daitezen. "Irakasle aditu" batek hartu eta gainbegiratu beharko lituzke. Irakasle adituari denbora eta ahalegina aitortzea.

### *4. lan-arloa: SARBIDEA*

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Irasle hoberenak irakaskuntza hoberenerako |
| **Zailtasunak** | • Oraingo sarbide sistema ez da egokiena |
| **Garapenerako ildoak** | • Sarbidea: beste baliabide batzuk baloratu<br>• Tutorizazioa sartu berri direnentzat: Tutorizazioa egiteko prest egon behar dute pertsona egokiek. Astia eta prestakuntza behar dute tutoreek. Tutorizazioaren sistematizaioa beharrezkoa da, eta ez borondatezkoa<br>• Formakuntza: bokazioa suspertu, konpetentzia berritan formatu, |

## 5. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

**Proposamenak:**

- Irakasleen arteko lankidetzan oinarritutako prestakuntza-proiektuak sustatzea: elkarlana, eskola irekiak eta lankideen aholkulari/prestatzailea den "irakasle aditua" barne hartzen dituzten praktikak.
- Irakasle gaitu eta esperientziadunei lan-karga murrizteko proposamenak egitea, lankideei ikasgela barruko jardunean lagundu ahal izateko.

- Ikastetxea "irakasle adituaren" figurari garrantzia eta aitorpena ematea.
- Aldiro irakasleen jardueraren birziklapena bermatzea, "irakasle adituak" ikasgela barruan laguntzen dielarik.
- "Irakasle adituentzako" kanpoko egiaztagiriren bat ematea, euren curriculumean eragina duena. "Pizgarriren" bat ematea pentsatu beharko litzateke.
- Ikastetxeen arteko elkartrukeak egitea: jardunbide egokiak koordinatzeko eta jakinarazteko foroak bultzatzea.
- Irakasleen errendimenduan bikaintasuna sustatzea. Irakasleentzako ibilbide profesionala definitzea, ikastetxeetan lanpostu edo betebehar berrietara promozionatzeko aukera izan dezaten.
- Irakasleei prestakuntza ematea, ikastetxeetan irakasleen arteko elkarlanaren kultura sortzeko.
- Ikastetxe ezberdinetako irakasle adituen arteko trukeak sustatzea, arlo edo irakasgai jakinetan.

***5. lan-arloa: PRESTAKUNTZA***

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Formakuntza, hobekuntzarako nahitaezko osagaia<br>• Jarduera ebaluatzeko beharra |
| **Zailtasunak** | • Irakasleentzat beharrezkoak diren konpetentzietara formakuntza egokitzeko zailtasuna<br>• Kultura aldatu beharra dago |
| **Garapenerako ildoak** | • Harrera-plana behar da<br>• Karrera profesionala beharrezkoa da; arriskua ere badu eta kontrako jarrerak gerta daitezke<br>• Rol desberdinak identifikatu<br>• Irakasle adituek astia eta prestakuntza behar dute<br>• kideen arteko fomakuntza, gela barrura kanpotik etorritako irakaslea sartzeko aukera |

## 6. EBALUAZIOA, ERABAKIAK HARTZEKO TRESNA

**Proposamenak:**

- Ikaste/irakaste prozesuaren alderdi guztien inguruko erabakiak hartzea errazten duen autoebaluazio-sistemak identifikatzea. Ondorengo hauek neurtzeko tresnak finkatzea:
  - Ikasleen aurrerapenaren autoebaluazioa ikastetxean, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko, eta horretan oinarriturik, hauei buruzko erabakiak hartzeko: irakasteko metodoak, testuak, baliabideak, azterketak, ikaskideen arteko ikaskuntza eta abar.
  - Irakasleen lanaren autoebaluazioa neurtzeko adierazleen bidez (gogoeta protokolizatzea: aztertu beharreko alderdiak eta lorpena neurtzeko adierazleak).
  - Irakasleen autoebaluazioa errazteko adierazle homologatuak finkatzea.
  - Irakasleen autoebaluazioaren emaitzen eragina aztertzea: "irakasle adituek" edo kanpoko adituek alderdi jakinen inguruko prestakuntza ematea.
- Ikasleen autoebaluazioa indartzea, euren aurrerapenaz jabetu daitezen eta euren beharrei eta interesei loturiko ikaste-jarduerak diseinatzen lagundu ahal izan dezaten.

- Ikatetxe barruko eta kanpoko ebaluazioak ikastetxeko irakaslana hobetzeko baterako jarduerak diseinatzeko erabiltzea, “irakasle adituek" eta zuzendaritzak bultzaturik.
- Informazioa sistematikoki biltzea jardunbide egokien bilduman sartzeko. Bilduma beste ikastetxe batzuetara zabalduko da ingurunera egokituta.
- Ikastetxean irakasleen ebaluazioa sustatzea, zuzendaritzaren lidergo pedagogikoaren pean.

- Ikastetxe batzuetan ikasleek irakasleen lana ebaluatzen dute, irizpide jakin batzuen arabera eta isilpekotasuna gordeaz; horrelako esperientziak jakinarazi beharko lirateke.

***6. lan-arloa: EBALUAZIOA***

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Gabeziak identifikatzeko eta hobetu ahal izateko ebaluatu: iraskasleria, ikasleria, irakaskuntza zentroak, sistema… |
| **Zailtasunak** | • Hobekuntzarako ez da ebaluazio kulturarik existitzen, fiskalizazio-tresna moduan erabiltzen da. |
| **Garapenerako ildoak** | • Ebaluatzeko irizpideak finkatu behar dira (definir qué y para qué)<br>• Kultura aldaketa behar da<br>• Lidergo sendoa beharrezkoa da<br>• Sistematizazioa eta ez borondatezkoa |

## 7. IKASTETXEEN AUTONOMIA PEDAGOGIKOA

**Proposamenak:**

- Irakasleei erabakiak hartzerakoan (curriculuma, metodologia, materialak, ikasketa-planak, ikasleen taldekatzea...) autonomia eta erantzukizun pedagogiko handiagoa ematen dieten ikastetxeko proiektuak bultzatzea. Proiektuen betetze-maila ebaluatzea.
- Irakasleei talde, zeregin eta ardurak euren ezagupenen arabera esleitzerakoan zuzendaritza taldeen eta Eskola Kontseiluen autonomia eta erantzukizuna bultzatzen duten proiektuak sustatzea.
- Aurkeztutako proiektuen arabera, plantilak zeregin bakoitzerako profesionalik gaituenekin aldi baterako indartzea, beharrak identifikatzeko, eta garatu beharreko konpetentzietan ezagupenak sakontzea edo dibertsifikatzea planifikatzeko. Bukaerako ebaluazioa proiektu guztietan.
- Ikastetxe barruan eta ikastetxeen artean irakasleen trukeak erraztea, lankideen arteko prestakuntza egiteko. Horretarako behar den denbora aztertu beharko litzateke.
- Eskualdeko zerbitzuei, ikastetxe bati "irakasle aditu" bat esleitzeko aukera ematea, ikastetxeko esperientzia kontuan izanik.

### *7. lan-arloa: AUTONOMIA*

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Funtzionamendu propioa handitzeak zentroaren helburuen lorpena lor dezake. Zentroaren identitate propioa handitu.<br>• Autonomia ez bakarrik eremu pedagogikoan, kudeaketan, administrazioan, finanziazioan…baita ere |
| **Zailtasunak** | • Kontzeptu zabala eta gauzatze zaila duena<br>• Barne-zailtasunak: autonomiak suposatzen duen esfortzua, oso definitua dagoen proiektu bat edukitzearen beharra, ikasgela irakaslearen gune propioa delaren sinismena, motibazioa-inplikazioa, ….<br>• Kanpo-zailtasunak: legeak, hezkuntza-politika, kontratazioa, diru-laguntzak, sindikatuak,…mugak eta kortse bilakatzen dira |
| **Garapenerako ildoak** | Errealitatera egokitzeko ahalmena ikastetxeetan<br>Administrazioaren laguntza behar da: baliabideak, metodologiak, ebaluazio-osagaiak, …<br>Erregularizazio eza (desregularizazioa) |

## 8. ZUZENDARITZAREN LIDERGO PEDAGOGIKOA

**Proposamenak:**

- Ikastetxeetako lidergo motak ebaluatzeko tresnak sortzea eta erantzukizun handiko postuetarako profil egokia (ezagupenak, jarrerak, berriztatzeko eta lidergorako gaitasuna, esperientzia…) identifikatzeko tresnak sortzea.
- Zuzendaritza taldea aukeratzerakoan: zuzendaritzarako pertsona egokiak erakartzea eta hautatzea, kualifikazioa, motibazioa eta pizgarria lehenetsiz. Hautagaitzarik onenak aurkeztu daitezen lortu beharko litzateke; kudeaketarako eta lidergorako laguntza izango dute, eta, aldi berean, administrazio-kargaren murrizpena.
- Xede partekatuak eta ongi definitutako helburuak dituzten proiektuak aurkezten dituzten zuzendaritzak lehenestea.
- Ikastetxeko zuzendaritza taldeek izango dituzten betebeharrik handienei buruzko berariazko prestakuntza (hasierakoa eta etengabea): lidergo pedagogikoa, irakasleen antolamendua, helburuak betetzea, hezkuntzaren kalitatearen ebaluazioa eta jarraipena eta emaitzen jarraipena. Horren bidez, gizarte-trebetasunak, izpiritu kritikoa, behatzeko, sortzeko, berriztatzeko gaitasuna, autonomia, xedeaniztasuna eta ekintzailetza landuko dira. prestakuntza aldiro ebaluatuko da abian dauden gaikuntza-planen eraginkortasuna ezagutzeko.
- Proiektuek balorazio positiboa duten bitartean, zuzendaritzaren egonkortasuna mantendu beharko litzateke.
- Unibertsitate-eskolen arteko koordinazioa hasierako prestakuntzan, ikastetxe batean lidergoa nola eraman sartzen delarik.
- Zuzendaritza-taldeei laguntza-zerbitzuetatik aholkularitza ematea.

### *8. lan-arloa: LIDERGOA EN LAS DIRECCIONES*

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Zuzendaritza irakaskuntza zentroaren ardatza<br>• Lidergoa ez bakarrik eremu pedagogikoan, kudeaketan, administrazioan, finanziazioan…baita ere |
| **Zailtasunak** | • Zentroaren zuzendaritzaren onarpena ez da erakargarria |
| **Garapenerako ildoak** | • Egonkortasuna beharrezkoa da<br>• Zuzendaritzen prestakuntza berezitua, hasieran eta etengabekoa<br>• Zentroaren proiketu onak finkatu<br>• Pizgarri eraginkorrak<br>• Zuzendaritzaren karga administratiboa gutxitu |

## 9. IKASTETXEEN BERRIZTATZEA SISTEMAREN LAGUNTZAZ

**Proposamenak:**

- Proiektu berriztatzaileak –ikastetxekoak zein irakasle-talde batenak– bultzatzea, aholkularitza eta baliabideak emanez.
- Ikastetxeak hala eskatzen badu, berriztatze-proiektuetarako kanpoko aholkularitza (laguntza-zerbitzuak, Ikuskaritza, unibertsitatea…) ematea.
- Garatutako berriztatze-proiektuak baloratzeko ebaluazio-irizpide edo adierazle homologatuak finkatzea.
- Ikastetxeek berriztatze-proiektuak egin ditzaten bultzatzea eta ordu-kreditukin motibatzea.
- Garatutako berriztatze-proiektuen emaitzak ebaluatzea. Balorazioan oinarrituta, kanpoko nolabaiteko egiaztagiria ematea.
- Berriztatze-proiektu egokiak sareetan jakinaraztea, ikastetxeetan ezagutu ditzaten eta hezkuntza-komunitatean hezkuntza-esperientzia horien berri emateko.
- Hezkuntzako agente ezberdinen arteko sinergia bultzatzea: Berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskaritza, unibertsitateko adituak eta abar. Proiektuen jarraipena egitea.
- Ikastetxeetan IKT (ordenagailua eta tableta) teknologien erabilera didaktikoari lotutako berriztatze-proiektuak bultzatzea, ikaste/irakaste prozesua errazten dutelako, ikasleentzako motibagarriak izaten direlako eta erritmo anitzekin ikasteko aukera eskaintzen dutelako.

Hezkuntza Sailak proiektuetarako diru-laguntzen eskaintza sistematikoki berrikusi beharko luke, eta baita ikastetxeen eskarien arabera eguneratu ere.

### *9. lan-arloa: BERRIKUNTZA*

| | |
|---|---|
| **Gakoak** | • Zentruek dauzkaten arazo eta behar berriak hobetu eta konpontzeko laguntzen duen ildoa. |
| **Zailtasunak** | • Oraingo deialdiak hobetu behar dira: eraginkorragoak, zentroaren barne-laguntza, teknologia berriak ezartzea baino areago, |
| **Garapenerako ildoak** | • Finantzazioa behar da<br>• Prestakuntza beharrezkoa da<br>• Sistematizazioa<br>• Lidergotza<br>• Kultura kolaboratiboa: berrikuntzaren mapa egiteko beharra |

## 6. PROPOSAMENAK IKASTETXEAN ABIARAZTEKO EREDUA

Proposamen horietako batzuk sailkapeneko bederatzi alderdietako batean baino gehiagotan ageri dira. Proposamen batzuk behar bezala ulertzeko, dokumentu honen 1. atalean azaldutako marko teorikoaren testuinguruan kokatu behar dira.

Proposamen batzuk proiektu orokorragoetan garatu daitezke. Adibidez, gaur egun, hainbat Ebaluazio Diagnostiko egin ondoren, ikastetxeek badute informazio nahikorik zertan hobetu behar diren jakiteko, eta ikastetxeetako Hobekuntza Planak aldaketetarako ardatz bezala erabiltzea lehenetsi liteke. Plan horietan orain arte aipatutako proposamen asko ekintza bihurtuko lirateke.

Izan ere, hobekuntza-planak ikastetxeetako proiektu instituzionalak (Ikastetxeko Hezkuntza-proiektua; Ikastetxeko Curriculum Proiektua; Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua; Ikastetxe Publikoetako Autonomia Proiektua, Antolamendurako eta Funtzionamendurako Araudia/ Funtzionamendurako Barne Araudia) gaurkotzearen barruan sartu beharko lirateke, eta, baita ere, ikasgelan erabiltzen diren gidak eta tresnak (ikaste-programazioak, unitate didaktikoen ereduak, curriculum materialak sortzeko eta ebaluatzeko gidak, prozedurak, jarrerak eta egoeren bilduma) berriztatzearen barruan.

Hobekuntza-plana, ebaluazio diagnostikoetako datuetan oinarriturik, ikastetxeko proiektuaren barruan sartu beharko litzateke:

- Ikastetxean aurreko planaren aztertzea eta baloratzea
- Plana aldatzea: aurretiaz finkatutako adierazle homologatuak erabili behar dira ikastetxeko profesionalen gogoeta ahalbidetzeko.
- Prozesuan zehar aholkularitza izatea, honako alderdi hauek barne hartu beharko lituzkeelarik:
    - Lortu beharreko hezkuntza-xedeak finkatzea.
    - Pertsonen, denboren eta baliabide materialen antolamendua.
    - Alderdi metodologikoak eta didaktikoak: ikasgela ikaste-estilo anitzak errespetatuz nola antolatu, irakaskuntza banakotuaren ereduak, baliabide informatikoak eguneratzea, irakasleen arteko lankidetza ikasgelan, ikaskideen arteko ikaskuntza.
    - Ikastetxeko autoebaluazio motak identifikatzea

- Euskarri digitaleko baliabide didaktikoei buruzko informazioa. Horien erabilera ikastetxeko informatika-arduradunak antolatu beharko luke.
- Ikastetxeko beharrik handienak identifikatzea.

Hobekuntza-plana aurrera ateratzeko Hezkuntza Sailaren laguntza-neurriak ere izan litezke:

- Zuzendaritza taldeentzako kanpoko aholkularitza, irakasle taldeak, planaren garapenean parte hartuko duten Berritzeguneko teknikariak, EHU-UPVko adituak, ikastetxeko beste profesional batzuk. Agenteen arteko sinergia bultzatzea.
- Planaren arduradunei lan-orduak murriztea.
- Ikastetxeetako orientazio-sailaren lidergoa bultzatzea.
- Baliabideak: daudenak optimizatzea eta baliabide digitalak eguneratzea.
- Ikastetxean autonomia eta erantzunkizun pedagogikoaren aldeko eredu berriztatzaileei buruzko gogoeta egitea. Horretarako ordutegiak egokitu beharko lirateke.
- Errendimendu altuko ikasleak identifikatzeko eta tratatzeko "laguntza-neurri" puntualak finkatzea.
- Plana garatu ahala datuen bilketarako baliabideak (prozesuaren adierazleak) lortzea.
- Planaren bukaerako ebaluazioa egitea, hasierako hausnarketarako erabili diren adierazleak zenbateraino bete diren jakiteko.
- Planaren kanpoko ebaluazioa. Hasieran finkatutako helburuak kontuan izanik eraginkortzat hartzen diren planei finantzaketa mantentzea.

Irakasle talde bat ("adituen sarea") eratu liteke arestian aipatutako alderdi batzuen inguruan tutoretza-lana egiteko. Kideak proiektu berritzaile motaren arabera hautatuko lirateke.

Profesional horien errendimendu bikaina merituen aitortzarekin sustatu liteke. Horri esker ikastetxe barruko promozioa errazagoa izango da, eta bide batez ibilbide profesionala zehazten aurreratuko da.

Baloraziorik altuena izan duten esperientzia berritzaileak jakinaraztea eta hezkuntzako profesionalen artean hausnarketa erraztea.

## 7. BIKAINTASUNAREN GARAPENA HEZKUNTZA SAILAK PRESTAKUNTZARAKO FINKATU DITUEN LEHENTASUNEZKO LERROETAN

Bikaintasunaren garapena Heziberri 2020 planaren sei lerro estrategikoen barruan sartzen da:

- Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza; familien prestakuntza
- Elebitasuna hezkuntza eleanitzaren markoan.
- Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta
- Material didaktikoak sortzea eta erabiltzea.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak ikaste/irakaste prozesuetan integratzea.
- Ikasleen eta hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta ikerketa.

Proposamen asko *Hezkuntza Sailordetzaren Prest Gara Prestakuntza Planean*[28] jasota daude. Plana 2014an onartu zen, honako premisa hauetan oinarrituta:

- *Prestakuntzaren benetako jasotzailea ez da irakaslea edo hezkuntzako pertsonala, ikaslea baizik; irakasleen konpromisoa eta erantzukizuna bilatu behar da prestakuntza abian jartzeko eta ikastaroen jarraipena finkatutako helburuak lortu arte egiteko.*

- *Prestakuntzak berriztatze-proiektuak bultzatu behar ditu ikastetxeetan bikaintasuna lortzeko. Ikastetxeko bizitza hainbat arlotan prestakuntzarekin batera berriztatze-proiektuak –aldaketak– ere gauzatu behar dira, hala nola curriculum, metodologia eta antolamenduaren inguruko alderdiak, familiekiko eta komunitateko erakundeekiko lankidetza, ikasgelako jardueren aldaketak.*

- *Banakako prestakuntza hutsetik ikastetxean errotutako prestakuntzara igaro behar da, ikastetxeen beharrei eta hezkuntza-komunitatearen errealitateari (ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen prestakuntza-proiektuak) egokitutako proiektuen bidez (ikastetxeko plan eta proiektuetatik eratorriak: hobekuntza-planak, esku-hartze orokorrerako proiektuak, hezkidetza, bizikidetza...). Izan ere, nazioarte mailan gaur egungo berriztatze-asmo nagusia ikastetxea "Ikaskuntza Komunitate Profesional" bihurtzea da: profesionalek, ikasleen ikaskuntza hobetzeko asmoz,ezagupenak eta esperientziak trukatzen dituzteneko lekua.*

- *Banakako prestakuntza oraindik ere beharrezkoa da, batez ere hezkuntza-eredu pedagogikoaren Markoaren planteamenduari erantzun bat eman ahal izateko, banakako prestakuntzarik gabe ez baita mentalitate aldaketarik gertatzen, ezta sinesmen aldaketarik ere. Hala ere, ezinbestekoa da prestakuntza ikastetxearen testuinguruari egokitzea.*

- *Azkenik, prestakuntza-prozesuaren barruan prestakuntzak ikasgelan eta ikastetxeko eguneroko bizitzaren beste arlo batzuetan (curriculuma, antolamendua, metodologia, ebaluazioa, familiekiko lankidetza, gizarteko eta komunitateko erakundeekiko lankidetza) duen eragina eta inpaktua baloratu behar dira. Prestakuntza-proiektu guztiek kontuan izan beharko lukete eragin hori, zenbait adierazleren bidez sistematizaturik eta zehazturik.*

Planaren 3. atalean inplementatzeko estrategiak biltzen dira. Planaren xedea hezkuntza-komunitateko agente guztien lan-gaikuntza da, ikasleek derrigorrezko hezkuntza-etaparen bukaerarako finkatutako oinarrizko konpetentziak eskura ditzaten eta irakaslanaren prestigioa handitzeko:

- ESTRATEGIA 1: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxeetako prestakuntza eta berriztatze proiektuetarako finkatu dituen lerro nagusiak abiaraztea:
    - 1. lerroa: eleaniztasunerantz
    - 2. lerroa: sare-hezkuntza
    - 3. lerroa: aniztasunean elkarrekin bizitzen ikastea
    - 4. lerroa: ikasten ikasteko eta norbera izaten ikasteko konpetentziak garatzea

[28] http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/die11/eu_2070/ofertacursos_garatu_actual.html

    - 5. lerroa: jardunbide egokietatik eta ekintzailetzatik bikaintasunerantz
- ESTRATEGIA 2: ikastetxeak (ikasten duten) hezkuntza-komunitateak eraikitzeko ardatz izan daitezen lortzea.
- ESTRATEGIA 3: hezkuntza-komunitatea osatzen duten agenteen artean eta laguntza-zerbitzuen artean (Berritzegune, Ingurugela, Irale...) sinergiak, lankidetza eta koordinazioa sustatzea.

Planaren lehen estrategiaren 5. lerroan ("jardunbide egokietatik eta ekintzailetzatik bikaintasunerantz") honako hau formulatzen da Misiotzat:

> "*Hezkuntza-komunitatea prestatzea, ikasleek gaitasun pertsonaleko sentipena, bere gaitasunarekiko konfiantza, lorpenerako motibazioa, erantzukizuna eta autonomia eskura ditzaten*".

Helburu hauek finkatzen ditu:

- Ikasleen gaitasun pertsonala, lorpenerako motibazioa eta ahaleginaren balorazioa lantzeko tresnak.
- Irakasleei bikaintasuna tratatzen duten berriztatze-proiektuetan laguntza ematea.
- Metodologia berrietan tresna didaktiko berritzaileetan prestakuntza ematea bikaintasunerako bidean.
- Oro har irakasle guztiei, eta bereziki tutoreei eta orientatzaileei, ikaste-arazoak dituzten ikasleei eta konpetentzia-maila altukoei laguntzeko tresnak ematea.
- Gizarte-ingurune kaltetuko ikasleek bikaintasuna lortzeko behar diren jarduera didaktikoak sustatzea.
- Jardunbide egokiak trukatzeko gune bat sortzea.
- Jasangarritasunaren inguruko esperientziak trukatzeko gune bat sortzea.

# I. ERANSKINA

# Batez besteko puntuazioaren bilakaera

# PISA 2003 – 2012

**Matematikarako konpetentzia**




***Irakurtzeko konpetentzia***




***Zientzietarako konpetentzia***



**Ikastetxeen banaketa PISA 2003 eta PISA 2012 ebaluazioetako puntuazioen arabera. *Matematikarako eta Zientziarako konpetentziak.***

*McKinsey txostenaren sailkapenaren arabera antolaturik*




"Oso on-bikain" tartean dauden ikastetxeen ehunekoa (% 20,7) konpetentziako altuena da, eta "pobre-onargarri" tartekoa (% 11,5), berriz, baxuena.
Ikastetxe guztien % 70 inguru "onargarri-oso on" tartean daude. *Zientzietarako konpetentziako* ehuneko berdina.




"Pobre-onargarri" tartean dauden ikastetxeen ehunekoa (% 26,2) oso altua izan zen, eta PISA 2012 ebaluazioan, % 11.
"Oso-on-bikain" tarteko ikastetxeen ehunekoa 11,5 puntu igo da, % 17ra heldu delarik.
Ikastetxe guztien % 72 "onargarri-oso on" tartean egon ziren. *Matematikarako konpetentziako* ehuneko berdina.

## Ikasleen ehunekoak errendimendu-mailetan. *Matematikarako konpetentzia*. PISA 2012

**1. Grafikoa**

**PISA 2012. Ikasleen ehunekoen bilakaera *Matematikarako konpetentziako* erdiko errendimendu-mailetan (2, 3 eta 4) herrialdeen arabera**




Ekitatea Euskadiko hezkuntza-sistemaren indarguneetako bat da. 15 urteko ikasleen % 74 errendimendu-maila ertainetan kokatu da.

**2. Grafikoa**

**PISA 2012. Ikasleen ehunekoen bilakaera Matematikarako konpetentziako errendimendu maila handietan (5 eta 6)**




Hezkuntza-sistemaren alderdi negatiboa: Euskadin ikasleen % 10,4 bakarrik egon da errendimendu-maila altuan eta bikainean. Finlandian ehunekoa % 15,3 izan da. Irlanda, Portugal eta Danimarkan ehunekoak Euskadikoen antzekoak izan dira.

**3.Grafikoa**
**PISA 2012. Ikasleen ehunekoa Matematikako errendimendu-mailetan**




Ehunekoak 2tik beherako errendimendu-mailen baturari dagozkio eta 5 eta 6 errendimendu-mailen baturari.

**4. Grafikoa**
**PISA 2012. Ikasleen ehunekoa Matematikako errendimendu 1 eta <1 errendimendu-mailetan**




Euskadin errendimendu-mailarik baxuenean dauden ikasleen ehunekoa (% 15,5) ELGAko batez bestekoa (% 23) baino askoz txikiagoa da.

# Errendimenduaren bilakaera maila altuetan

# PISA 2003-2012

## EUSKADI-ELGA.

### Matematikarako konpetentzia

| | ELGA | EUSKADI | ELGArekiko aldea |
|---|---|---|---|
| PISA 2003 | 14,7 | 9,7 | 5% |
| PISA 2006 | 13,4 | 10,1 | 3,3% |
| PISA 2009 | 12,7 | 12,7 | 0 |
| PISA 2012 | 12,6 | 10,4 | 2,2% |

### Irakurtzeko konpetentzia

| | ELGA | EUSKADI | ELGArekiko aldea |
|---|---|---|---|
| PISA 2003 | 8,3 | 6,6 | 1,7% |
| PISA 2006 | 8,6 | 4,2 | 4,4% |
| PISA 2009 | 7,6 | 4,5 | 3,1% |
| PISA 2012 | 8,4 | 5 | 3,4% |

### Zientzietarako konpetentzia

| | ELGA | EUSKADI | ELGArekiko aldea |
|---|---|---|---|
| PISA 2003 | - | - | - |
| PISA 2006 | 9 | 4,3 | 4,7% |
| PISA 2009 | 8,5 | 3,2 | 5,3% |
| PISA 2012 | 8,4 | 4,7 | 3,7% |

### *Matematikarako konpetentzia.* Finlandia, Herbehereak eta Kanada.

| | EUSKADI % | FINLANDIA % | Aldea | HERBEHEREAK % | Aldea | KANADA % | Aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PISA 2003 | 9,7 | 23,4 | 13,7% | 25,5 | 15,8% | 20,3 | 10,6% |
| PISA 2006 | 10,1 | 24 | 13,9% | 28 | 17,9% | 26,6 | 16,5% |
| PISA 2009 | 12,7 | 21,6 | 8,9% | 19,8 | 7,1% | 18,3 | 5,6% |
| PISA 2012 | 10,4 | 15,2 | 4,8% | 19,3 | 9,2% | 16,4 | 6% |

# II. ERANSKINA

# Ebaluazio Diagnostikoak.
# Ikasle ehunekoen bilakaera errendimendu mailetan

## LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu-mailetan Ebaluazio Diagnostikoetan

2.1.2.a *grafikoa*. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu mailen arabera.




2.3.2.a *grafikoa*. LH4. Errendimendu mailen bilakaera *Matematikarako konpetentzian.*




2.2.2.a *grafikoa*. LH4. Ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu mailen arabera.




2.4.2.a *grafikoa*. LH4. Errendimendu mailen bilakaera *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian.*




Hala ere, 2009an, talde horren kopurua % 83koa izan zen.

## DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailetan Ebaluazio Diagnostikoetan

2.1.2. *grafikoa:* DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu mailen arabera.




2.3.2. *grafikoa:* DBH 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. *Errendimendu mailen bilakaera Matematikarako konpetentzian.*




2.2.2. *grafikoa:* DBH 2. maila. ED09-ED10-ED11-ED13. Emaitzen bilakaera errendimendu mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.*




2.4.2. *grafikoa:* DBHko 2. maila. ED09-ED13. *Errendimendu mailen bilakaera Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako konpetentzian.*



# IKASGELAKO KALIFIKAZIOEN ETA IKASLEAREN IKASTALDEAREN ARTEKO ERLAZIOA

## EBALUAZIO DIGNOSTIOAK

***El nivel académico del grupo en que está escolarizado el alumnado condiciona las calificaciones que obtiene en el aula. A un mismo resultado en la evaluación pueden corresponderse notas de aula diferentes, según que el grupo en que esté escolarizado el alumno o alumna sea considerado de "nivel alto" o de "nivel bajo".***

***Ikaslea eskolatuta dagoen ikastaldearen maila akademikoak ikasgelan lortzen dituzten emaitzak baldintzatzen ditu. Baliteke ebaluazioko puntuazio berari ikasgelako nota ezberdinak egokitzea, ikaslearen ikastaldea "goi mailakotzat" edo "behe mailakotzat" hartua izatearen ondorioz***

Analiasia sakontzeko eta ikaslearen ikastaldeak ikasgelako kalifikazioak baldintzatzen dituen ala ez jakiteko, ebaluazioan parte hartu duten talde guztiak lau kuartiletan banatu dira, ebaluazio diagnostikoan izan dituzten puntuazioen arabera. I kuartilean puntuaziorik apalenak lortu dituzten ikasleen taldeen % 25 daude, eta 4 kuartilean ebaluazioan puntuaziorik altuenak lortu dituzten ikasleen taldeak. Kuartiletan sailkatutako puntuazioak ikasleek, euren esanetan, Matematikan aurreko ikasturtean ikasgelan lortu zituzten kalifikazioekin konparatu dira. Ikerketa hori 2009, 2010 eta 2011ko ebaluazio diagnostikoetan ondoz ondoko ertan burutu zen, matematikarako eta zientietarako konpetentzietan.

### ED 2011.LH 4. MAILA.




Ardatz bertikala 180an hasten da , puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezen.

Adibide moduan, honako egoera hau aztertuko dugu: ikasgelan oso ongi kalifikazioa lortu duen 1. kuartileko (2011ko Ebaluazi diagnostikoan errendimendurik baxuena lortu dutenen % 25) taldean eskolatutako ikasle batek 243 puntu lortu ditu ebaluazioan, 255 puntuko ezarritako batez bestekoaren azpitik. Ikasle hori 3. kuartila osatzen dutenen taldean (puntuazio ertaina-altua) egongo balitz, ongi kalifikazioa aterako luke ikasgelan, eta 4. kuartila osatzen dutenen taldean egongo balitz (ebaluazioan errendimendu altuena lortzen dutenak), nahikoa kalifikazioa aterako luke ikasgelan.

Aztertutako ebaluazio guztietan (2009, 2010, 2011) ondorioa baieztatzen da, ikaslea eskolatuta dagoen taldearen mailak baldintzatu egiten dituela ikasgelan lortzen dituen kalifikazioak; izan ere, irakasleek ikasgelan ikasleen artean gertatu ohi den sakabanatzea egokitu ohi dute eta ebaluazio-irizpideak gelari edo taldeari emandako erdi-mailara moldatzen ditu. Ebaluazio diagnostikoan, emaitza berberak ikasgelako nota desberdinak izan ditzake, Ikaslearen taldea "maila altukoa" edo "maila baxukoa" izatearen arabera.

Analisi hau DBH 2. mailako ikasleekin egiten denean ondorioak berdinak dira hurrengo grafikoetan ikusten denez.

## ED11. DBH 2. MAILA

**ED11-DBHko 2. maila. *Matematikarako konpetentziako* emaitzak ikasgelako kalifikazioen arabera.**




*

*Grafikoaren eskala 180an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.*

1. kuartileko (ebaluazioan errendimendurik baxuena lortzen duen % 25) ikasleei dagokien lerro urdinari (beheko lerroa) arretaz begiratuz gero, antzemango dugu bikain kalifikazioa lortzen dutenek ere ez dutela 250,7 puntuko batez besteko puntuazioa lortzen. Kuartil guztietan kokatutako eta gutxiegi edo nahikoa kalifikazioa lortu duten ikasleak ez dira iristen batez besteko puntuazio orokorra lortzera. Ongi kalifikazioko batez bestekoarekin batez besteko orokorra gainditzen duten ikasle bakarrak 4. kuartilari dagozkion taldekoak dira. Oso ongi eta bikain kalifikazioak lortu dituzten 2., 3., eta 4. kuartileko taldeek, kasu batzuetan neurri handi batean, Matematikarako konpetentziako batez besteko orokorra gainditu du.

## BIBLIOGRAFÍA

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2015): *Ikastetxe publikoen barne-antolamendua berriztatzeko proiektuan parte hartzeko deialdia (HAUSPOA).*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig2/eu_otras_ex/adjuntos/hauspoa/Hauspoa_2015_2016_BEHIN_BETIKO_deialdia_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2015): *Hezkuntza Prestakuntza eta Berriztapeneko Proiektuak.*
http://www.proiektuak.net/index_e.php

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2015): *Baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko SARE_HEZKUNTZA GELAN proiektuan 2015-2016 ikasturtean parte hartzeko deialdia.*
http://www.proiektuak.net/pdf/SARE2015_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2015): *Hezkuntzaren bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak 2015-2016 ikasturtean egiteko deialdia.*
http://www.proiektuak.net/pdf/BIKAINTASUNERANTZ2015_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2015): *Prest_Gara: ikasten duen hezkuntza-komunitatea. Prestakuntza plana.*
http://www.prestgaraentidadeak.net/ikastaroak/Cursos%202015_2016%20Garatu%201.pdf
http://www.prestgaraentidadeak.net/ikastaroak/Cursos%202015_2016%20Garatu%202.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2014): *Bikaintasuneratz. Hezkuntza bikainera bidean 2014-2015 ikasturtean Prestakuntza Proiektuak egiteko deialdia.*
Centros públicos:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/dib6/eu_2037/adjuntos/proyectos_formacion_e_innovacion_educativa/BIKAINTASUNERANTZ_e.pdf
ikastetxe pribatuak:
https://www.euskadi.net/diru_laguntza/2014/bikaintasunerantz/y22-izapide/eu/

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2014): *Heziberri 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_sist_edu/adjuntos/13_hezkuntza_sistema_000/000009e_Pub_EJ_heziberri_2020_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2014): *Hamaika esku programa.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120015e_Pub_EJ_hamaika_esku_laburpen_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2014): *Prest_Gara: ikasten duen hezkuntza-komunitatea. Prestakuntza plana.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_sist_edu/adjuntos/13_hezkuntza_sistema_000/000010e_Pub_EJ_Prest_Gara_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2014): *Ikastetxe publikoetako zuzendari berrien hasierako prestakuntza-programa.* http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/die11/eu_2070/adjuntos/nuevos_directores/resolucion_formacion_inicial_directores_as_2014_2018_e.pdf

ISEI-IVEI (2014): *Ebaluazio Diagnostikoa 2013. Txosten exekutiboa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.* Bilbao. ISEI-IVEI.
http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED13/ED13_2DBHeusk.pdf

ISEI-IVEI (2014): *Ebaluazio Diagnostikoa 2013. Txosten exekutiboa. Lehen Hezkuntzako 4. maila.* Bilbao. ISEI-IVEI.
http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED13/ED13_4LH_eusk.pdf

ISEI-IVEI (2014): *PISA 2012 EUSKADI. Emaitzen txostena eta aldagaien azterketa.* Bilbao. ISEI-IVEI.
http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA2012/PISA2012_cast.pdf

MINISTRY OF EDUCATION. ONTARIO (2014): *Achieving Excellence: A Renewed Vision for Education for Education in Ontario.*
http://www.edu.gov.on.ca/eng/about/renewedvision.pdf

LIZASOAIN HERNÁNDEZ, L. Y OTROS (2013): *Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak*. Bilbao. ISEI-IVEI
http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/handikobalioa/txosten_laburra.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2013): *Irakas-praktikaren hobekuntza. Autoebaluazio-esperientzia.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_liderazg/adjuntos/200012e_Pub_EJ_mejora_practica_docente_e.pdf

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA (2013): *Hezkuntza Euskadin, 2012-2013*. Bilbao. Euskadiko Eskola Kontseilua.
http://www.consejoescolardeeuskadi.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=3a49da40-1a29-4a07-a89c-234d8d195cba&groupId=17937

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA IKUSKARITZA (2013): *Resultados de los informes finales de evaluación a las direcciones 2009-2013.*

OECD (2013): *PISA 2012 Results: What Makes Schools Successful? Resources, Policies and Practices Volume IV.*
http://www.oecd.org/pisa/keyfindings/pisa-2012-results-volume-iv.htm

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2012): *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100011e_Pub_EJ_Plan_diversidad_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2012): *Hezkuntza-indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientabideak oinarrizko hezkuntzan.*

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120011e_Pub_EJ_plan_refuerzo_basica_e.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2012): *gindua, zuzendarien ebaluazio-prozesuari buruzkoa.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_liderazg/adjuntos/200010e_Pub_BOPV_Orden_eval_direccion_e.pdf

MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE. PISA 2012. *Programa para la evaluación internacional de alumnos. Informe español.*
http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/internacional/pisa2012/pisa2012lineavolumeni.pdf?documentId=0901e72b81786310

CALLEJA, T.; COLLADO, S.; MACÍAS, G.; SAN JOSÉ, C. (2012): *Educación en España: motivos para la esperanza.* McKinsey&Company.
http://www.mckinsey.com/~/media/McKinsey%20Offices/Spain/PDFs/Educacion_en_Espana_Motivos_para_la_esperanza.ashx

OECD (2012): *Sistemas fuertes y reformadores exitosos en la educación. Orientaciones de PISA para las Islas Canarias, España.*
http://www.oecd.org/pisa/pisaproducts/PISA_Canary_Islands_SPANISH_ebook_FINAL.pdf

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2012): *Adimen gaitasun handiko ikasleen hezkuntza. Jarduera-plana.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100013e_Pub_EJ_altas_capacidades_plan_e.pdf

GOBIERNO VASCO. DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA (2012): *Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.pdf

MARTÍNEZ PISÓN, M. (2012): *El informe McKinsey: una guía para mejorar nuestro sistema educativo.*
http://escuelainclusiva.wordpress.com/2012/05/31/el-informe-mckinsey-una-guia-para-mejorar-nuestro-sistema-educativo/

NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA (2012): *Hobekuntza planak, haien ezarpena eta jarraipena baloratzeko adierazle sistema.*
http://www.educacion.navarra.es/documents/27590/554186/NM07120202++Hobekuntza+planak,%20haien+ezarpena+eta+jarraipena+baloratzeko+adierazle+sistema.pdf/49fe6978-f981-4072-95f7-91d63aeb0960

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA IKUSKARITZA (2011): *Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioa. Dimentsioen eta irizpideen ebaluazioa.*

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_liderazg/adjuntos/200009e_Doc_ITE_eval_funcion_directiva_dimensiones_e.pdf

OECD (2011): *Strong Performers and Successful Reformers in Education. Lessons from PISA for the United States.*
http://www.oecd.org/pisa/46623978.pdf

FINNISH NATIONAL BOARD OF EDUCATION (2011): *The school of opportunities. Towards every learner's full potential*
http://www.oph.fi/download/134584_the_school_of_opportunities.pdf

SAHLBERG, P. (2011): "The Professional educator. Lessons from Finland". *American Educator*, Summer 2011.
http://www.aft.org//sites/default/files/periodicals/Sahlberg.pdf

MOURSHED, M.; CHIJIOKE, C.; BARBER, M. (2010): *Cómo continúan mejorando los sistemas educativos de mayor progreso en el mundo*. McKinsey&Company.
http://www.ceibal.org.uy/docs/PREALDOC61V.pdf

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA (2009): *Euskadiko ikastetxe publikoetako zuzendaritzari buruzko azterlan berria*. Bilbao. Euskadiko Eskola Kontseilua.
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_liderazg/adjuntos/200005e_Doc_CEE_informe_direccion_2009_e.pdf

EHAA (2009): *Dekretua, zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarreko bes-te gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko arautzekoa.*
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_liderazg/adjuntos/200006_Pub_BOPV_Decreto_Direccion_2009.pdf

MCKINSEY&COMPANY (2007): *Cómo hicieron los sistemas educativos con mejor desempeño del mundo para alcanzar sus objetivos.*
http://mckinseyonsociety.com/downloads/reports/Education/Como_hicieron_los_sistemas_educativos.pdf

HARGREAVES, A.; HALÁSZ, G.; PONT, B. (2007): *School leadership for systemic improvement in Finland*. OECD.
http://www.oecd.org/education/school/39928629.pdf

FINNISH NATIONAL BOARD OF EDUCATION: *La educación finlandesa en síntesis*.
http://www.oph.fi/download/151278_education_in_finland_spanish_2013.pdf

OECD. Strong performers and successful reformers:
Finland: http://www.pearsonfoundation.org/oecd/finland.html
Canada: http://www.pearsonfoundation.org/oecd/canada.html
Netherlands: http://www.pearsonfoundation.org/oecd/netherlands.html

TIANA; A.: "¿Qué variables explican los mejores resultados en los estudios internacionales?"

http://www.educarchile.cl/ech/pro/app/detalle?ID=136730

PONTES, A.: Conclusiones del informe McKinsey: El éxito educativo depende de la formación del profesorado
http://www.uco.es/hbarra/Master/Conclusiones_del_informe_MCKINSEY.pdf